

1/1991 Arauemate Foru Dekretua, apirilaren 30ekoa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergako Tarifak eta Jarraipidea onesten dituen (BAO Maiatzaren 30ekoa)

Ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauak Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga araupetu zuen. Zerga horretan dagoen tributu kuota haren tarifetatik hasita zehazten da eta tarifa horiek, aplikatzeko dagoen Jarraipidearekin batera, Foru Arau horretako 8. artikuluan dauden Oinarrietan daude araupetuta.

Honako Arauemate-Foru Dekretu honek, xedetzat, Oinarri horien garapena eta Ekonomi Ihardueren Zergako Tarifen eta berauek aplikatzeko dagoen Jarraipidearen ondorengo onespena ditu. Hala ere, tarifa horiek ez dute euren barruan abel iharduera burujabeen sailkapenik hartzen, berauen tributu-ordainketa ez baita 1992.eko urtarrilaren 1era arte ordaineraziko.

Hori dela bide, ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauko 8. artikuluan xedatutakoaren itzalpean, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 1991.eko apirilaren 30eko bilera eztabaidatu eta onetsi ondoren honako hau.

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergako Tarifak eta berauek aplikatzeko Jarraipidea onetsi egiten dira, honako Arauemate-Foru Dekretu honen I eta II. Eranskinetan baitaude.

XEDAPEN OROKORRA

Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak Araugintzako Foru Dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ahal izango ditu.

I. ERANSKINA TARIFAK

Ikusi II. eranskineko 14. Arauaren azalpen oharrak, “Langile kopuruari” eta “Lokalen azalerari” buruzkoak.

LEHEN SAILATALA ENPRESA IHARDUERAK, INDUSTRIALAK, MERKATARITZAZKOAK, ZERBITZUGINTZA ETA MEAGINTZA

1. ZATIKETA. ENERGIA ETA URA .11. ELKARTZEA. ERREGAI SOLIDUEN ETA KOKEKINEN ARAUZKETA, PRESTAKETA ETA AGLOMERAZIOA

111. TALDEA. HARRIKATZAREN ERAUZKETA, PRESTAKETA ETA AGLOMERAZIOA.

111.1. epigrafea. Harrikatzen erauzketa eta prestaketa, harrikatz azpiuitsuarena ezik.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,343947 euro.
- kW bakoitzeko: 3,948650 euro.

111.2. epigrafea. Harrikatz azpiuitsuaren arauzketa eta prestaketa (lignito beltza).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,343947 euro.
- kW bakoitzeko: 3,948650 euro.

111.1 eta 111.2 EPIGRAFE BIENTZAKO OHARRAK

- 1.a.** Mugakide izan edo, izan gabe, ustiapen-unitatea osotzen duten ustiapen, emakida eta gaindidurak, meagunea osotzen dutenean, ustiapen edo emakida bakarra bailiran, hartuko dira.
- 2.a.** Benetan ustiatzen ez diren ustiapen, emakida eta gaindidurak ez dira tributu-ordainketaren menpean egongo, atazetarako urteko planean badaude ere, meagunearen erreserba direlarik.
- 3.a.** Epigrafe hauek ahalmena ematen dute, beste mea-erregai solidu batzu erauzi eta prestatzeko.

111.3. epigrafea. Aparteko edo mea-emakida edo ustiategiaren perimetroaz landako lantokian harrikatza prestatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 9,616194 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du, aparteko lantokian beste mea-erregai solidu batzu prestatzeko.

111.4. epigrafea. Harrikatzaren aglomerazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,154364 euro.
- kW bakoitzeko: 14,61060 euro

OHARRA: Ahalmena ematen du, beste mea-

112. TALDEA. ANTRAZITAREN ERAUZKETA ETA PRESTAKETA.

112.1. epigrafea. Antrazitaren erauzketa eta prestaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,440109 euro.
- kW bakoitzeko: 4,140973 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 111.2 epigrafeetako oharrak aplikatzen zaizkio.

112.2. epigrafea. Aparteko edo mea-emakida edo ustiategiaren perimetroaz landako lantokian antrazita prestatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 9,616194 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du, aparteko lantokian beste mea-erregai solidu batzu prestatzeko.

113. TALDEA. LIGNITO NABARRAREN ERAUZKETA ETA PRESTAKETA.

113.1. epigrafea. Lignito nabarren erauzketa eta prestaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,440109 euro.
- kW bakoitzeko: 4,140973 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 111.2 epigrafeetako oharrak aplikatzen zaizkio.

113.2. epigrafea. Aparteko edo mea-emakida edo ustiategiaren perimetroaz landako lantokian antrazita prestatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 9,616194 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ahalmena ematen du, aparteko lantokian beste mea-erregai solidu batzu prestatzeko

114. TALDEA. KOKEKINEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,613453 euro.
- kW bakoitzeko: 6,953710 euro.

12. ELKARTZEA. PETROLIO ETA IZADIKO GASAREN ERAUZKETA

121. TALDEA. PETROLIO ETA IZADIKO GASAREN ERAUZKETAREN PROSPEKZIOA ETA MEA-IKERKUNTZAKO LAN OSAGARRIAK.

121.1. epigrafea. Zuzendapidezko lekukotza-lanak, osaketa zeharkatuen ezaugarrien zehaztapen, zundaketa, urperaketen sakonera eta norantza eta osaketen norantza, etab.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 1.793,99 euro.

Probintziaren gutxienezko kuota:

- 5.381,96 euro.

Estatuaren kuota:

- 16.017,72 euro.

121.2. epigrafea. Zundaketak desbideratu eta putzuak zimendatzeko lanak, haitzen haustura edo azidokuntza eta ekoizteko saioak.

Kuota	Estatuarena	Probintziarena	Udalaren gutxienezkoa
Kamioiaren gaineko ponpa-unitate bakoitzeko	15.377,014893	5.125,671631	1.6978833
Kamioiaren gaineko nahaskailu bakoitzeko	5.766,380585	1.858,058971	608,675009
Ekoizteko saioak egiteko ekipo bakoitzeko	512,567163	160,181746	44,853533
Zundaketak desbideratzeko ekipo bakoitzeko	512,567163	160,181746	44,853533

121.3. epigrafea. Putzuetako sakoneraren presioa hartzeko lanak, berauek egiteko beraien irekiera eta itxiera, temperatura, presioa, ur etorria, etab., azaleran neurtzea eta kablezko zerbitzuak putzu eta azaleraren bitarteko elementuak lotzeko.

Kuota	Estatuarena	Probintziarena	Udalaren gutxienezkoa
Sakonera eta azaleraren bitarteko tresnak lotzeko kabledun kamioi eta erremolke bakoitzeko	7.047,798493	2.242,484344	704,782854
Putzuaren sakonera eta tutuerien jaiskera ireki eta isteko ekipo bakoitzeko	2.883,193298	896,992535	294,730326
Bereizkailu eta neurkailuen eta azalerako presio eta jariakinen kontrolgailuen ekipo bakoitzeko	1.922,126862	640,708954	217,842847
Putzu, biltontzi eta beraien aldagailuetako beroketa-ekipo bakoitzeko	1.922,126862	640,708954	217,842847

121.9. epigrafea. Petrolioaren eta izadiko gasaren prospekzioarekin zerikusirik duten beste iharduera batzu eta mea-ikerkuntzako lan osagarriak, hala nola, petrolio-geofisikakoak, zundaketen geologiaren kontrolekoak, etab.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 512,57 euro.

Probintziaren gutxienezko kuota:

- 1.601,78 euro.

Estatuaren kuota:

- 5.125,67 euro.

122.TALDEA. PETROLIOAREN GORDINKINEN ERAUZKETA ETA BANAKETA.

122.1. epigrafea. Petrolioaren gordinkinen erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 90,344140 euro.
- kW bakoitzeko: 65,997139 euro.

122.2. epigrafea. Petrolioaren gordinkinen banaketa.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 3.203,54 euro.

Probintziaren gutxienezko kuota:

- 12.814,18 euro.

Estatuaren kuota:

- 44.849,63 euro.

OHARRA: Epigrafe honek petrolioaren eta birfindutako petroliokinen banaketa biltzen du, beti ere oliobidez egiten denean, bai eta beraiek banatzeko behar diren sareen ezarpena ere.

123. TALDEA. IZADIKO GASAREN ERAUZKETA, ARAZKETA ETA BANAKETA.

123.1. epigrafea. Izadiko gasaren erauzketa eta arazketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 90,344140 euro.
- kW bakoitzeko: 65,997139 euro.

123.2. epigrafea. Izadiko gasaren banaketa.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 3.203,54 euro.

Probintziaren gutxienezko kuota:

- 12.814,18 euro.

Estatuaren kuota:

- 44.849,63 euro.

OHARRA: Epigrafe honek izadiko gas mota guztien banaketa biltzen du, beti ere gasbidez egiten denean, bai eta beraiek banatzeko behar diren sareen ezarpena ere.

124. TALDEA. ARBEL UITSUEN ERAUZKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,182095 euro.
- kW bakoitzeko: 4,814107 euro.

13. ELKARTZEA. PETROLIOAREN BIRFINKETA

130. TALDEA. PETROLIOAREN BIRFINKETA.

Kuota:

- Petrolioaren gordinkinaren tratamenduko urteko mila tona edo edukieraren zatiki bakoitzeko: 57,667111 euro.

14. ELKARTZEA. MEA ERRADIOAKTIBOEN ERAUZKETA ETA TRANSFORMAZIOA

141. TALDEA. MEA ERRADIOAKTIBOEN ERAUZKETA ETA PRESTAKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,182095 euro.
- kW bakoitzeko: 4,814107 euro.

142. TALDEA. APARTEKO EDO MEA-EMAKIDA EDO USTIATEGIAREN PERIMETROAZ LANDAKO LANTOKIAN MEA ERRADIOAKTIBOEN PRESTAKETA.

Kuota

- Langile bakoitzeko: 11,990191 euro.
- kW bakoitzeko: 8,396139 euro.

143. TALDEA. MEA ERRADIOAKTIBEN TRANSFORMAZIOA ETA HONDAKIN ERRADIOAKTIBOEN TRATAMENDUA ETA BILTEGIRATZEA.

143.1. epigrafea. Mea erradioaktiboen transformazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 15,578234 euro.
- kW bakoitzeko: 10,836248 euro.

143.2. epigrafea. Hondakin erradioaktiboen tratamendua.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 11,990191 euro.
- kW bakoitzeko: 8,396139 euro.

143.3. epigrafea. Hondakin erradioaktiboen biltegitratzea.

Kuota:

- 32.035,45 euro.

143.2 ETA 143.3 EPIGRAFE BIENTZAKO OHARRA: Epigrafe hauek ahalmena ematen dute instalazio nuklearrak eraisteko eta hondakin erradiaktiboak garraiatzeko.

15. ELKARTZEA. ENERGIA ELEKTRIKO, GAS, LURRIN ETA UR BEROAREN EKOIZPENA, GARRAIOA, BANAKETA ETA MERKATURATZEA

151. TALDEA. ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENA, GARRAIOA, BANAKETA ETA MERKATURATZEA.

151.1. epigrafea. Energia hidroelektrikoaren ekoizpena.

Kuota:

- Sorgailuetako kW potentzia bakoitzeko: 0,775306 euro.

Oharra: Energia hidroelektrikoa ekoizteko «ponpaketa» zentralek epigrafe honetako kuotaren 100eko 50eko zerga ordainduko dute.

151.2. epigrafea. Ohizko energia termoelektrikoaren ekoizpena.

Kuota:

- Sorgailuetako kW potentzia bakoitzeko, 0,456769 euro.

151.3. epigrafea. Energia elektronuklearraren ekoizpena.

Kuota:

- Sorgailuetako kW potentzia bakoitzeko, 0,546921 euro.

151.4. epigrafea. Aurreko epigrafeetan zehaztu ez den energiaren ekoizpena, itsasaldietatik datorren energia, eguzkiaren energia, etab. barru direlarik.

Kuota:

- Sorgailuetako kW potentzia bakoitzeko, 0,775306 euro.

Oharra: Zentral mistoak ez dira epigrafe honen barruan sartzen, hots, zenbait energia mota ekoizten dutenak, euren jarduera nagusiari dagokion epigrafean sailkatuko baitira.

151.5. epigrafea. Energia elektrikoaren garraio eta banaketa.

Kuota:

- Kontratupeko kW potentzia bakoitzeko:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 0,054091 euro.

Probintziaren kuota:

- 0,078132 euro.

Estatuaren kuota:

- 0,078132 euro.

151.6. epigrafea. Energia elektrikoaren merkaturatzea.

Kuota.

Gutxieneko udal kuota:

- 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 64,084845 euro.

Probintziaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 141,646055 euro.

Estatuaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 141,646055 euro.

151. TALDE OSORAKO OHARRAK:

- 1.a. Sorgailuen potentzia zehazteko, korronte alternoa denean, zentrolean neurtutako potentzia-faktorea eta, honen ezean, alfaren kosinu balioa = 0,8 hartuko da.
- 2.a. Zentral hidrauliko nahiz termikoak direnean, zergaordainketaren menpeko kilowatt kopurua sorgailu elektrikoek potentzien batura izango da, erreserbakoak sartu gabe; baina turbinek edo motore termikoek horni dezaketen potentzia txikiagoa bada, kuota turbinek edo sorgailuak pizten dituzten motoreek ekoitz dezaketen potentziaren arabera finkatuko da.
- 3.a. Zentral hidroelektrikoek, erreserba legez termiko bat eduki edo beste egile bati xede berbererako energia eskura diezaiotenean, Erabilpen hau lehortu, uholde edo beraien etekin arruntari gutxipena dakarkioten matxuren garaian izan eta erabiltzen den potentzia osoa, jatorri hidraulikokoa gehi erreserbakoa, aitortzen dena beste edo berau baino txikiagoa bada, erreserbakoa ez da kontutan hartuko. Handiagoa bada, diferentzia zerga-ordainketaren menpean egongo da.
- 4.a. Zentrolean higadura-indarrerako erabiltzen den potentzia elektrikoak ez du zergarik ordainduko.
- 5.a. 151.5 epigrafea aplikatzeko, kontratupeko kilowattak, kontratuaren arabera, azken kontsumitzaileari eman behar zaizkion tokian hartuko dira.

152. TALDEA. GASAREN FABRIKAZIOA, BANAKETA ETA MERKATURATZEA.

152.1. epigrafea. Gasaren fabrikazioa eta banaketa.

Kuota:

- Kw bakoitzeko: 16,347529 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan, gasa banatzeko sareen instalazioa ere sartzen da.

152.2. epigrafea. Gasaren merkaturatzea.

Kuota.

Gutxieneko udal kuota:

- 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 64,084845 euro.

Probintziaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 141,646055 euro.

Estatuaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko: 141,646055 euro.

153. TALDEA. LURRIN ETA UR BEROAREN EKOIZPEN ETA BANAKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 9,676294 euro.
- kW bakoitzeko: 5,835828 euro.

OHARRA: Talde honek gasa banatzeko sareen ezarpena biltzen du.

16. ELKARTZEA. URAREN HARRERA, ARAZKETA ETA BANAKETA ETA IZOTZAREN FABRIKAZIOA

161. TALDEA. HIRIGUNEETARAKO URA EKARRI, ARAZI ETA BANATZEA.

161.1. epigrafea. Hiriguneetarako ura ekarri, arazi eta banatzea.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 0,162273 euro aurreko ekitaldiko ur hornikuntzan kontsumitutako 100 metro kubikoko edo zatikiko, harpidedun edo kontsumitzaileari zenbakailuan erregistraturiko kontsumoen arabera.

Probintziaren kuota:

- 0,162273 euro aurreko ekitaldiko ur hornikuntzan kontsumitutako 100 metro kubikoko edo zatikiko, harpidedun edo kontsumitzaileari zenbakailuan erregistraturiko kontsumoen arabera.

161.2. epigrafea. Hornikuntzarako ura ekartzea.

Kuota:

- 0,030051 euro aurreko ekitaldian ekarritako 100 metro kubiko ur edo zatikiko, hornikuntzarako ura ekartzeko instalazioko irteeran zenbakailuaren edo beste neurgailuren baten bidez erregistratutako kontsumoen arabera.

Oharra: Ur-ekarketak barruan hartzen ditu ura bere ingurune natural edo fisikotik erauzi eta tratamendu edo banaketa instalazioetara bideratzeko egin behar diren lan guztiak.

161.3. epigrafea. Hornikuntzarako uraren tratamendua.

Kuota:

- 0,030051 euro aurreko ekitaldian hornikuntzarako tratatutako 100 metro kubiko ur edo zatikiko, tratamendu instalazioko irteeran zenbakailuaren edo beste neurgailuren baten bidez erregistratutako kontsumoen arabera.

Oharra: Ur-ekarketak barruan hartzen ditu ura jendeak kontsumitzeko edo edateko modukoa izan dadin egin behar diren lan eta industri prozesu guztiak, harik eta inoren esku jartzen den arte, banaketa-sarean sartzeko prest.

161.4. epigrafea. Hiriguneetarako uraren banaketa.

Kuota:

- 0,102172 euro aurreko ekitaldiko hornikuntzan kontsumitutako 100 metro kubiko ur edo zatiki bakoitzeko, harpidedun edo kontsumitzaileari zenbakailuan erregistratutako kontsumoen arabera.

Oharra: Banaketak barruan hartzen ditu kontsumitzaile edo harpideduna bere etxean edo lokalean bertan urez hornitzeko egin behar diren lan eta eragiketa tekniko guztiak.

161.1 eta 161.4. epigrafeetarako oharra: Epigrafeok barruan hartzen dute ura banatzeko sareen instalazioa.

162. TALDEA. SALMENTARAKO IZOTZAREN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,869148 euro.
- kW bakoitzeko: 1,869148 euro.

OHARRA: Fabrikatzen den ekoizkina arrantzuntziak hornitu edo bidalkizun den arraina atontzeko erabiltzen denean, kuota adierazitakoaren ehuneko 50ekoa izango da.

2. ZATIKETA. ENERGIARIK GABEKO MEA ETA EKOIZKIN ERATORRIEN ERAUZKETA ETA TRANSFORMAZIOA, INDUSTRI KIMIKOA

21. ELKARTZEA. METALEZKO MEEN ERAUZKETA ETA PRESTAKETA

211. TALDEA. BURDINA-MEEN ERAUZKETA ETA PRESTAKETA.

211.1. epigrafea. Burdina-meen erauzketa eta prestaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,776676 euro.
- kW bakoitzeko: 2,614403 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 2. epigrafeetako oharrak aplikatzen zaizkio.

211.2. epigrafea. Aparteko edo mea-ustiategi edo emakidaren perimetroaz landako lantokian burdina-meak prestatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 5,517291 euro.

OHARRA: Goiburu honek mineral kontzentrazioaren eragiketa fisikoak jasotzen ditu. Meatze ahoan edo fabrika independentean egindakoak, sintetizazioa, peletizazioa eta antzekoak barne.

212. TALDEA. BURDINAZKOAK EZ DIREN METALEZKO MEEN ERAUZKETA ETA PRESTAKETA.

212.1. epigrafea. Burdinazkoak ez diren metalezko meen erauzketa eta prestaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,269506 euro.
- kW bakoitzeko: 3,533951 euro.

OHARRA: Epigrafe honi 111.1 eta 2. epigrafeetako oharrak aplikatzen zaizkio.

212.2. epigrafea. Aparteko edo mea-ustiategi edo emakidaren perimetroaz landako lantokian burdinazkoak ez diren metalezko meak prestatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,286587 euro.
- kW bakoitzeko: 6,989771 euro.

22. ELKARTZEA. METALEN EKOIZPEN ETA LEHEN TRANSFORMAZIOA

221. TALDEA. BURDINAGINTZA INTEGRALA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,649093 euro.
- kW bakoitzeko: 1,027731 euro.

OHARRA: Talde honek berotako nahiz hotzetako burdinagintza-ekoizkinen eta berauen eratorrien lorpena biltzen du, burdina-mea lehengaitzat hartuta, labe garaiak eta oxigenozko altzairutegien bitartez.

Talde honen barruan, arrabioa, labe garaiko burdinazko aleazioak eta banan-banan ezin sailka daitezkeen burdinagintza-kokekinak sartzen dira.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzek aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

221.1. epigrafea. Lehen mailako edo jatorrizko burdinagintza-ekoizkinak.

221.2. epigrafea. Altzairu gordina.

221.3. epigrafea. Erdiekoizkinak.

221.4. epigrafea. Berotako ijezketak.

221.5. epigrafea. Hotzetako ijezketak.

221.6. epigrafea. Aurrekoen ekoizkin eratorriak, 223. Taldean zehaztutakoak barne.

221.7. epigrafea. Beste ekoizkin eta erdiekoizkin batzu.

222. TALDEA. BURDINAGINTZA EZ-INTEGRALA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,607022 euro.
- kW bakoitzeko: 0,757275 euro.

OHARRA: Talde honek berotako nahiz hotzetako burdinagintza-ekoizkinen eta berauen eratorrien lorpena biltzen du, txatarra lehengaitzat hartuta, altzairutegi elektrikoen bitartez. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

222.1. epigrafea. Altzairu gorina.

222.2. epigrafea. Erdiekoizkinak.

222.3. epigrafea. Berotako ijezketak.

222.4. epigrafea. Hotzetako ijezketak.

222.5. epigrafea. Aurrekoen ekoizkin eratorriak, 223. Taldean zehaztutakoak barne.

222.6. epigrafea. Bestelako produktuak eta azpiproduktuak.

223. TALDEA. ALTZAIKUZKO TUTUEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,649093 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Talde honek altzairuzko tutu soldatuen eta soldatugabeen, gainjantzien eta gainjanzkabeen fabrikazio biltzen du; bai eta altzairuzko tutuen teinkaketa edota altzairuzko tutu, ahokadura, kaxa, junta etabarren fabrikazioa, eroale elektrikoetarako.

Talde honen barruan, berotako altzairuzko tutuen ijezketa ere sartzen da.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

223.1. epigrafea. Altzairuzko tutuzko ekoizkinak (tutuak eta profil hutsak), soldadurarik gabe.

223.2. epigrafea. Luzetara soldatutako altzairuzko tutuzko ekoizkinak.

223.3. epigrafea. Helikoide antzera soldatutako altzairuzko tutuzko ekoizkinak.

223.4. epigrafea. Tutuerietarako aldagailuak (galdaketakoak ezik).

224. TALDEA. TREFILAKETA, TEINKAKETA, PROFILAKETA, ALTZAIKUAAREN HOTZETAKO IJEZKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,649093 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Talde honek altzairuaren hotzetako teinkaketa, altzairuzko zumitzen hotzetako ijezketa, profilen itxuraketazko ijezketa edota altzairuzko ekoizkin lauen hotzetako tolestaketa eta altzairuaren trefilaketa biltzen ditu. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

224.1. epigrafea. Altzairuzko haria.

224.2. epigrafea. Teinkaketa bidezko txantiloak.

224.3. epigrafea. Zuriketa bidezko txantiloak (torneaketa).

224.4. epigrafea. Artezketaz kalibratutako ekoizkinak.

224.5. epigrafea. Hotzetan itxuratutako profilak.

224.6. epigrafea. Hotzetan ijetzitako zumitza.

224.7. epigrafea. Hotzetan ijetzitako zumitz magnetikoa.

224.8. epigrafea. Zumitz gainestalia.

225. TALDEA. BURDINAZKOA EZ DIREN METALEN EKOIZPEN ETA LEHEN TRANSFORMAZIOA.

225.1. epigrafea. Aluminioaren ekoizpen eta lehen transformazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,841417 euro.
- kW bakoitzeko: 2,313897 euro.

OHARRA: Epigrafe honek lehen urtuketako aluminioaren lorpena (lehengaitzat, meak, hondakinak, hondarrak, errautsak eta kondarrak), bigarren urtuketako aluminioaren lorpena (urtuketakoa), burdinagintzaz landako aluminioen lorpena (urtuketakoa), burdinagintzaz landako aluminioen aleazioen lorpena (aluminotermia) biltzen ditu, bai eta aluminioaren eta beronen aleazioen lehen transformazioa ere, ijezketa, teinkaketa, trefilaketa, estrusio etabarren bitartez.

225.2. epigrafea. Kobrearen ekoizpen eta lehen transformazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,841417 euro.
- kW bakoitzeko: 2,313897 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kobre birfindugabearen lorpena biltzen du, lehengaitzat meak hartuta (blistera eta beste batzu), bai eta kobre elektrolitikoa, finketa termikozko kobrea, bigarren urtuketako kobrea, kobrearen aleazioak eta kobrearen eta beronen aleazioen lehen transformazioa ere, ijezketa, teinkaketa, trefilaketa, estrusio etabarren bitartez.

225.9. epigrafea. Burdinazkoak ez diren eta bestelako ataletan bildu ez diren metalen ekoizpen eta lehen transformazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,841417 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Epigrafe honek burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena eta lehen transformazioa biltzen ditu, hala nola, zinka, beruna, eztainua, antimonioa, bismutoa, wolframioa, merkurioa, urrea, zilarra, etab. Lehen eta bigarren urtuketan bitartezko lorpena hartzen du bere barruan, bai eta ijezketa, teinkaketa, trefilaketa, estrusio etabarren bitartezko lehen transformazioa eta metal hauen aleazioak ere.

23. ELKARTZEA. EZ METALIK EZ ENERGIARIK DUTEN MEEN ERAUZKETA: ZOHIAZTEGIAK

231. TALDEA. ERAIKUNTZAKO MATERIALEN ERAUZKETA.

231.1. epigrafea. Buztinezko substantzien erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,104913 euro.
- kW bakoitzeko: 1,676824 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zeramikazko buztin eta erregogorren, marga, kaolin eta buztinezko beste substantzia batzuren erauzketa biltzen du, bai eta erauzketarekin batera egiten diren hausketa, xeheketa, etab. ere.

231.2. epigrafea. Haitz eta harbelen erauzketa, eraikintzarako.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,104913 euro.
- kW bakoitzeko: 1,676824 euro.

OHARRA: Epigrafe honek harri, harbel, hairzurdin, karaitz, granito, porfidarri eta basaltoen erauzketa biltzen du, bai eta erauzketarekin batera egiten diren tailaketa, hausketa, xeheketa, etab. ere.

231.3. epigrafea. Area eta legarren erauzketa, eraikintzarako.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,104913 euro.
- kW bakoitzeko: 1,676824 euro.

OHARRA: Epigrafe honek eraikintzarako egiten den harea eta legarren erauzketa biltzen du, bai eta hartxintzarren karramarroztaketa eta erauzketarekin batera egiten diren hausketa, xeheketa, etab. ere.

231.4. epigrafea. Igeltsuen erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,104913 euro.
- kW bakoitzeko: 1,676824 euro.

OHARRA: Epigrafe honek igeltsuaren erauzketa biltzen du, bai eta erauzketarekin batera egiten diren hausketa, xeheketa, etab. ere.

231.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren eraikintzako materialen erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,104913 euro.
- kW bakoitzeko: 1,676824 euro.

OHARRA: Epigrafe honek eraikintzako materialen erauzketa biltzen du, hala nola, serpentina, sienita, diabasa, ofita, toba, trakita, fonolita, etab., bai eta erauzketarekin batera egiten diren hausketa, xeheketa, etab. ere.

232. TALDEA. POTASIO-GATZAK, FOSFATOAK ETA NITRATOAK.

232.1. epigrafea. Potasio-gatzen erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

OHARRA: Epigrafe honek potasio-gatzen erauzketa biltzen du, hala nola, kainita, silbinita eta beste batzu, bai eta eruzketarekin batera egiten diren xeheketa, hausketa, etab. ere.

232.2. epigrafea. Fosfato eta nitratoen erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

OHARRA: Epigrafe honek fosfato mota guztien (kaltziozkoak, aluminio-kaltziozkoak, fosfatodun kretak) eta nitratoen erauzketa biltzen du, bai eta eruzketarekin batera egiten diren xeheketa, hausketa, etab. ere.

233. TALDEA. GATZ ARRUNTAREN ERAUZKETA.

233.1. epigrafea. Itsasoko gatzaren erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

OHARRA: Epigrafe honek itsasoko gatzaren erauzketa biltzen du, erauzketarekin batera egiten diren ehoketa, baheketa eta birfinketa barne direlarik.

233.2. epigrafea. Urbegiko gatzaren eta gema gatzaren erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euros.

OHARRA: Epigrafe honek urbegiko gatzaren eta gema gatzaren erauzketa biltzen du, erauzketarekin batera egiten diren ehoketa, baheketa eta birfinketa barne direlarik.

234. TALDEA. SUFRE-PIRITEN ERAUZKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

OHARRA: Epigrafe honek izadiko sufrearen, sufrezko meen, pirita eta pirrotiten erauzketa biltzen du, bai eta eruzketarekin batera egiten diren ehoketa, xeheketa, hausketa, etab. ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

234.1. epigrafea. Txigortu gabeko burdinazko piritak.

234.2. epigrafea. Izadiko sufrea.

239. TALDEA. EZ METALIK EZ ENERGIARIK DUTEN MEEN ERAUZKETA: ZOHIAZTEGIAK.

239.1. epigrafea. Fluoritaren erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

OHARRA: Epigrafe honek fluoritaren (fluorrezko espatua) erauzketa biltzen du, bai eta erauzketarekin batera egiten diren ehoketa, xeheketa, hausketa, etab. ere.

239.2. epigrafea. Zohikatzaren erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

239.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren eta ez metalik ez energiari duten meen erauzketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,154364 euro.
- kW bakoitzeko: 2,566322 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zohikatzaren, sodio-meen (thenardita, galuberita), borozkoen, bariozkoen (baritina), koartozkoen, silizezkoen, eraikintzan erabiltzen ez diren silize-hareen, Tripoli-harrien, feldespatu, pegmatita, dolomia, magnesita, talko, esteatito, sepiolita, asfaltinaslik, gema, granate, grafito, amianto, mika, nabar, arseniko, litio, estrontzio eta beste batzuren erauzketa biltzen du, bai eta erauzketarekin batera egiten diren ehoketa, xeheketa, hausketa, etab. ere.

24. ELKARTZEA. METALIK GABEKO MEA-EKOIZKINEN INDUSTRIAK

241. TALDEA. ERAIKINTZARAKO LUR EGOSIZKO EKOIZKINEN MATERIALEN FABRIKAZIOA (GAI ERREGOGORRAK EZIK).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,506220 euro.
- kW bakoitzeko: 2,632433 euro.

OHARRA: Epigrafe honek eraikintzarako lur egosiz egin baina erregogorrek ez diren ekoizkinen fabrikazioa biltzen du, hala nola, adreilu, teila eta aldagailuak, zorua eta gainjazkiak egiteko diren baldosa eta losetak; tutuak eta kaineriak, erlantz, friso, hegaltxo, gangatilak eta eraikintzarako beste pieza berezi batzu. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

241.1. epigrafea. Adreilu, blokeak eta forjaketetarako pieza bereziak.

241.2. epigrafea. Teila, baldosak eta eraikintzarako lur egosizko beste material batzu.

242. TALDEA. ZEMENTU, KAREEN ETA IGELTSUAREN FABRIKAZIOA.

242.1. epigrafea. Zementu artifizialen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,956980 euro.

- kW bakoitzeko: 6,731336 euro.

OHARRA: Epigrafe honek clinker, Portland zementuen (arrunta, selenitadun urei jazartzen zaiena, burdinagintzazkoa, etab.) aluminiodun zementu, puzolaniko eta beste zementu artifizial batzuren fabrikazioa biltzen du.

242.2. epigrafea. Izadiko zementuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,956980 euro.
- kW bakoitzeko: 4,297237 euro.

OHARRA: Epigrafe honek izadiko zementu mota guztien fabrikazioa biltzen du.

242.3. epigrafea. Igeltsu-kareen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,956980 euro.
- kW bakoitzeko: 4,297237 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kare bizi, hidrauliko eta arrunten, kare hil edo gorberen, igeltsu zuri eta beltzaren, eskaiola, klarion etab.en fabrikazioa biltzen du.

243. TALDEA. ORMIGOI, ZEMENTU, IGELTSU, ESKAIOLA ETA BESTE BATZUZKO MATERIALEN FABRIKAZIOA ERIKINTZARAKO.

243.1. epigrafea. Ormigo prestatuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,819588 euro.
- kW bakoitzeko: 8,973111 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ormigo freskoaren edota nahasiaren fabrikazioa biltzen du, ormigo-ontzia duten kamioi berezien bitartez obretan eurretan ematea barne.

243.2. epigrafea. Fibrozementuzko ekoizkinen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,171024 euro.
- kW bakoitzeko: 5,258856 euro.

OHARRA: Epigrafe honek fibrozementuzko eta amianto-zementuzko ekoizkinen fabrikazioa biltzen du, hala nola, plakak, tutuak, tutuerietarako aldagailuak eta eraikintzarako beste elementu batzu.

243.3. epigrafea. Zementuaren beste ekoizkin eratorri batzuren fabrikazioa, zoladurak ezik.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,429459 euro.

- kW bakoitzeko: 3,149303 euro.

OHARRA: Epigrafe honek eraikintza eta herrilaretarako masatako zementuz, armatuz eta aurreteinkatuz egiten diren elementuen fabrikazioa biltzen du, bai eta zelulosa-zementuzko eta apar-zementuzko gaiena ere, zoladurak egiteko erabiltzen diren zementuaren ekoizkin eratorriak ezik.

243.4. epigrafea. Zementuzko zoladura eratorrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,756326 euro.
- kW bakoitzeko: 2,728595 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zoladurak egiteko erabiltzen diren zementuaren ekoizkin eratorrien fabrikazioa biltzen du.

243.5. epigrafea. Igeltsu-eskaiolen gai eratorrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,094263 euro.
- kW bakoitzeko: 5,769716 euro.

OHARRA: Epigrafe honek igeltsuzko eta eskaiolazko elementuen fabrikazioa biltzen du, hala nola, plantxak, panelak, baldosak, lauzatxoak, moldurak eta antzekoak.

244. TALDEA. IZADIKO HARRIAREN INDUSTRIAK.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,953710 euro.
- kW bakoitzeko: 6,286587 euro.

OHARRA: Talde honek haitzurdingintza (dekoraziorakoa, hiletarakoa), harbelaren tailaketa, eraikintzarako harria eta izadiko harria, harrobitik kanpora, biltzen ditu, bai eta legar eta harearen industria ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

244.1. epigrafea. Izadiko harri xehekatu-sailkatuak.

244.2. epigrafea. Bakarrik landu eta zerratutako izadiko harria.

244.3. epigrafea. Harri gertutua.

245. TALDEA. KISKALGAILUEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,412378 euro.
- kW bakoitzeko: 2,247785 euro.

OHARRA: Talde honek haginarrak, asperoiak, zorroztauriak, esmerilarriak eta paperak eta ehun kiskalgarriak, leunketarako oreak eta eragiketa mekanikozko beste ekoizkin kiskalgarri batzuren fabrikazioa biltzen du, direla izadikoak, direla artifizialak, nahiz aglomeratuak, nahiz izadiko diamantez

edota sintetikozen egiten direnak izan, bai eta euskarriaren gaineko kiskalgarrien ekoizpena ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako, epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

245.1. epigrafea. Makinetarako haginarrak eta antzeko gaiak eta eskuz zorroztu edo leuntzeko diren harriak.

245.2. epigrafea. Beste kiskalgarri batzu.

246. TALDEA. BEIRAREN INDUSTRIA.

246.1. epigrafea. Beira launaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,247785 euro.
- kW bakoitzeko: 4,976380 euro.

OHARRA: Epigrafe honek beira laun teinkatu eta ijertziaren edo isuriaren fabrikazioa biltzen du.

246.2. epigrafea. Beira hutsaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,247785 euro.
- kW bakoitzeko: 5,835828 euro.

OHARRA: Epigrafe honek beira hutsa prozedura automatikoz, erdiautomatikoz edo eskuz egitea biltzen du eta beirazko ontzien fabrikazioa hartzen du bere barruan; bai eta mahaiko zerbitzugaia eta zapaldu gabeko beirazko beste objektu etxetiar batzuren, zapalduetako beiraren fabrikazioa eta beira hutsezko beste fabrikazio batzu ere.

246.3. epigrafea. Beira teknikoaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,247785 euro.
- kW bakoitzeko: 5,835828 euro.

OHARRA: Epigrafe honek optika, erlojugintza, bonbila, balbula eta lanpara elektrikoetarako (tutuak eta hagatxoak barne) beiraren fabrikazioa biltzen du; bai eta graduazio-laborategi, higie, farmazia eta medikuen erabilerarako beirarena; hala suari jazartzen zaion beiraren, nola koartozko eta silize urtuzko objektuena; beira esmaltatuzko tutuak, barrak, hagatxoak eta bolak egiteko eta ortopediarako beirarena, etab. ere.

246.4. epigrafea. Beirazko zuntzaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,247785 euro.
- kW bakoitzeko: 5,835828 euro.

OHARRA: Epigrafe honek beirazko zuntzaren (harizko beira eta zentrifugatua) fabrikazioa biltzen du, dela ehunezkoa, dela bestelakoa, etengabea eta etena, haitzezko ilea edo beirazko

ilea barne direlarik, bai eta zuntz horrezko gaiena ere, hala nola panel, koltxoi, ontzi-oihal eta mastak, ehungaiak eta zintak, metxak eta hariak, etab.

246.5. epigrafea. Beiraren eskuztapena.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,819588 euro.
- kW bakoitzeko: 14,550503 euro.

OHARRA: Beira launaren eskuztapena (tenplatua, leunketa, pintarratua, grabatua, tailaketa, sufreztaketa, zilarreztaketa, etab.) biltzen du, bai eta beira hutsaren eskuztapena (tailaketa, dekorazioa, etab.), beiraren sopleteko eskuztapena eta beiraren beste eskuztapen batzu ere.

246.6. epigrafea. Zeramikazko esmalteen eta friten fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,769716 euro.
- kW bakoitzeko: 8,654574 euro.

247. TALDEA. ZERAMIKAZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

247.1. epigrafea. Gai erregogorren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,346688 euro.
- kW bakoitzeko: 7,182095 euro.

OHARRA: Epigrafe honek mota guztietako gai erregogorren fabrikazioa biltzen du (siliziozkoak, aluminiozkoak, grafitozkoak, ikatzezkoak, kromitazkoak, magnesitazkoak, bauxitazkoak, dolomitazkoak), hala nola, adreiluak, blokeak, piezak, etab.

247.2. epigrafea. Zoladuraak edota gainjazkiak egiteko diren baldosa berniztugabe eta esmaltatugabeen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,863558 euro.
- kW bakoitzeko: 10,511702 euro.

247.3. epigrafea. Zoladurak edota gainjazkiak egiteko diren baldosa berniztu eta esmaltatuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,863558 euro.
- kW bakoitzeko: 10,511702 euro.

247.4. epigrafea. Baxereria, etxeko gai eta zeramikazko materialen apainketarako gaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 7,891289 euro.

OHARRA: Epigrafe honek buztinezko gaien (eltzegintza), loza arrunt, maioliko-finen, portzelanagaien (zurien edo koloreztatuen), gresgaien eta baxerierietarako zeramikazko beste material batzuren, etxeko gaien eta dekoraziogaien fabrikazioa biltzen du.

247.5. epigrafea. Loza, portzelana eta gresezko sanitare aparatuaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 7,891289 euro.

OHARRA: Epigrafe honek gresezko, lozazko eta portzelanazko mota guztietako higie eta sanitare aparatuaren fabrikazioa biltzen du.

247.6. epigrafea. Instalazio elektrikoetarako zeramikazko isolagailu eta pieza isolagarrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 7,891289 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kanpokaldeko airezko linea elektrikoetarako eta instalazio elektrikoetarako zeramikazko isolagailu eta pieza isolagarrien fabrikazioa biltzen du.

247.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren zeramikazko gaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,126633 euro.
- kW bakoitzeko: 7,891289 euro.

OHARRA: Epigrafe honek industri eltzeeen, portzelana termiko, tekniko, laborategikoaren, murko eta kotxor berezien fabrikazioa biltzen du; bai eta arkitektura eta eraikintzarako diren azpira, galdaratxo, pitxar eta zeramikaz egiten diren beste kotxor antzekoena ere.

249. TALDEA. BESTELAKO ATALETAN BILDU EZ DIREN METALIK GABEKO MEA-EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,863558 euro.
- kW bakoitzeko: 6,220475 euro.

OHARRA: Epigrafe honek amianto, grafito, mika, asfalto etabarrezko ekoizkinen fabrikazioa biltzen du. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

249.1. epigrafea. Asfaltozko ekoizkinak.

249.2. epigrafea. Amiantozko ekoizkinak.

249.3. epigrafea. Beste mea ez-metaliko batzuz egiten diren ekoizkinak.

25. ELKARTZEA. INDUSTRIA KIMIKOA

251. TALDEA. BASEZKO EKOIZKIN KIMIKO ORGANIKOEN FABRIKAZIOA (BASEZKO FARMAZI EKOIZKINAK EZIK).

251.1. epigrafea. Jatorri petrokimikoa duten ekoizkin kimiko organikoen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,731336 euro.
- kW bakoitzeko: 14,995252 euro.

OHARRA: Epigrafe honek hidrokarburoen eta berauen eratorrien, baita monomeroen lorpena biltzen du, hala nola, azetilenoa, bentzenoa, etilenoa, butadienoa, nitrobuzenoa, naftalenoa, propilenoa, etilo-bromuro eta kloruroak, betilo eta metiloa eta beste batzu, bai eta eratorri halogenatuak, nitratuak eta hidrokarburoz nitrosatuak direnak.

251.2. epigrafea. Beste ekoizkin kimiko organiko batzuren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,731336 euro.
- kW bakoitzeko: 14,995252 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ikazkimikaren ekoizkinen eta sintesizko eta ez-sintesizko beste ekoizkin batzuren lopena biltzen du, hala nola, azido organikoak eta berauen eratorriak, alkoholak eta berauen eratorriak, aldehido-zetonak eta berauen eratorriak, konposatu nitrogenatuak (amidak, aminak, nitriloak) eta berauen eratorriak, eterak eta berauen eratorriak, fenolak eta berauen eratorriak, karbono hidratoak eta berauen eratorriak; bai eta mea-ikatzeko eta berauen eratorrien (mundruna eta bentzola) destilazioa eta asfaltozko naslika oxidatuen fabrikazioa.

251.3. epigrafea. Produktu kimiko ez-organikoen fabrikazioa (industria-gasen fabrikazioa barne, gas konprimituak izan ezik).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,412378 euro.
- kW bakoitzeko: 0,967629 euro.

OHARRA: epigrafe honen barruan sartzen da azido sulfurikoa eta produktu deribatuak lortzea (anhidrido sulfurosoa eta bere deribatuak, kobre sulfatoa, aluminio sulfatoa, karbono sulfuroa, sodio sulfatoa eta sodio sulfuroa, sublimatutako, findutako eta prezipitatutako azukreak, etab.); gas industrialen fabrikazioa, egoera likido edo gaseosoan (Gas konprimituak izan ezik; gas konprimatutzat hartzen dira likido-egoeran edo gas-egoeran fabrikatu ondoren 150 bar baino gehiagoko presioan ontziratzen diren gas industrialak); elektrokimika; kaltzio-karburoa lortzea; Fosforoa, kaltzioa, artsenikoa, zianuroa, bromoa, iodoa lortzea; azido inorganikoak; oinarriak, hidroxidoak eta peroxidoak; haluro ez-metalikoak; gatzak eta oinarritzko beste produktu kimiko ez-organiko batzuk eta isotopo erradioaktiboak lortzea.

251.4. epigrafea. Lehengai plastikoen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,283846 euro.
- kW bakoitzeko: 3,461830 euro.

OHARRA: Epigrafe honek gordin egon eta itxura likidua, hautsezkoa edo pikorduna duten lehengai plastikoen fabrikazioa biltzen du, hala nola fenoplastoak, aminoplastoak, poliesterrak, poliamidak, poliuretanoak, silikonak, polimerizaziokinak (binilo polikloruroa, binilo poliazetatoa, akriliko, metakrilikoak, etab.), bai eta zelulosa azetatoz eta beste gai plastiko batzuz egiten diren gai plastikoena ere.

251.5. epigrafea. Kautxu eta latex sintetikoen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,283846 euro.
- kW bakoitzeko: 3,461830 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kautxu eta latex sintetikoen lorpena biltzen du, hala nota, butilo-kautxua, polibutadienoa, estireno-polibutadienoa, akrilonitrilopolibutadienoa, poliklorobutadienoa, kautxuzko latex sintetikoa, estireno-polibutadienozko latexa eta beste batzu.

251.6. epigrafea. Zuntz artifizial-sintetikoen ekoizpena.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,104913 euro.
- kW bakoitzeko: 8,973111 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zuntz artifizial-sintetikoen ekoizpena biltzen du, direla etengabeak, direla etenak, nahiz polimerizazioz edo monomero organikoen kondentsazioz edo izadiko polimero organikoen transformazioz lortuak izan, hala nola erraiona eta zelulosazko beste zuntz batzu, zuntz akrilikoak, nylona eta beste zuntz poliamidiko batzu, poliesterrezkoa, poli-propilenozko haria, etab.

251.7. epigrafea. Azido eta anhidrido fialiko eta maleikoak, eta azido isoftalikoa eta tereftalikoa fabrikatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,286166 euro.
- kW bakoitzeko: 0,324547 euro.

252. TALDEA. BATEZ ERE NEKAZARITZAN ERABILTZEN DIREN EKOIZKIN KIMIKOEN FABRIKAZIOA.

252.1. epigrafea. Ongarrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,929249 euro.
- kW bakoitzeko: 5,391079 euro.

OHARRA: Epigrafe honek fosfatodun ongarri, nitrogenodun, potasiko eta beste batzuren (organikoak, konposatuak eta komplexuak) fabrikazioa biltzen du. Azido sulfuriko, fosforiko eta

nitrikoen fabrikak ere sartzen dira honen barruan, baldin eta ongarri fabrikekin batera ihardun eta banan-banan ezin sailka badaitezke.

252.2. epigrafea. Zomorro-hilkarien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 31,402882 euro.
- kW bakoitzeko: 29,281310 euro.

OHARRA: Epigrafe honek nekazaritzan erabiltzen diren zomorro-hilkari mota guztien fabrikazioa biltzen du, hala nola, ekoizkin organikoz eta ez-organikoz egiten diren nekazal intsektu-hilkariak; birbiraketa eta hausketarako formulazioak (kloratuak, fosforatuak, karbamatoak); bikorrezko formulazioak; keztakariak; akaro-hilkariak; nematizidak; zabarkenkariak eta hazien desinfektakariak; belar-kenkariak; molusku-hilkariak, etab.; abeltzantzan erabiltzen diren mota guztietako ekoizkin kimikoak, bai eta intsektu-hilkariak eta etxean erabiltzen diren landare-sanitatezko beste ekoizkin batzu ere.

253. TALDEA. BATEZ ERE INDUSTRIAN ERABILTZEN DIREN EKOIZKIN KIMIKOEN FABRIKAZIOA.

253.1. epigrafea. Gas konprimituen eta anhidrido karboniko solidotuaren fabrikazioa (izotz lehorra).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,269506 euro.
- kW bakoitzeko: 3,401729 euro.

OHARRA: gas konprimatutzat jotzen da 251.3 epigrafean fabrikatutako edozein gas industrial, 150 baretik gorako presioan ontziratua.

253.2. epigrafea. Kolorekari eta pigmentuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,720686 euro.
- kW bakoitzeko: 12,561153 euro.

OHARRA: Epigrafe honek mea-jatorrizko, jatorri organikoko kolorekari eta pigmentuen, baita sintetikoen fabrikazioa biltzen du, hala nola, albaialdea, prusia eta itsasosteko urdinak, litopona, minio, intxaurtinta, okreak, titanio bioxidoa, burdinazko oxido gorriak (izadikoak eta sintetikoak), zink oxidoak eta berunezkoak, anilinazko kolorekariak, purpurina, etab.

253.3. epigrafea. Pintura, berniz eta laken fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 23,583715 euro.
- kW bakoitzeko: 18,204657 euro.

OHARRA: Epigrafe honek uretako pinturen, oretako koloreen, marrazkigintza eta arte pinturarako koloreen fabrikazioa; bai eta zelulosa-eratorriz, erretxina natural, artifizial eta sintetikoak edota kautxu, asfalto eta olioaren eratorriez egiten diren pintura, berniz eta lakenak;

baita pintura, berniz eta laken ondoko ekoizkinen fabrikazioa, hala nola olioeko mastikak, lehorkariak, pintura-ezabakariak, orekariak eta beste batzu.

253.4. epigrafea. Moldiztegiko tinden fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 23,583715 euro.
- kW bakoitzeko: 18,204657 euro.

OHARRA: Epigrafe honek arte grafikoetarako tinda, helio-edLiziorako tinda, offset motako tinda eta moldiztegiko beste tinda batzuren fabrikazioa biltzen du.

253.5. epigrafea. Industrian erabiltzeko diren olio eta koipeen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 16,732177 euro.
- kW bakoitzeko: 10,896349 euro.

OHARRA: Epigrafe honek glizerina, estearina, lanolina, oleina, azido koipetsuak eta garbikariak egiteko basezko ekoizkinak lortzeko olio eta koipeen destolestaketa biltzen du, bai eta industri koipeen transformazio kimikoa ere (sulfonatoen, estearatoen, alkohol koipetsu eta eratorrien, etab.en lorpena).

253.6. epigrafea. Esentziazko olioan eta substantzia aromatiko natural eta sintetikoan fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 21,786689 euro.
- kW bakoitzeko: 23,902251 euro.

OHARRA: Epigrafe honek esentzien, esentziazko olioan eta izadiko lehengai aromatikoan fabrikazioa biltzen du; bai eta esentzia eta aromen destilazioa, elikadur industriadako lehengai aromatikoan lorpena eta lurrin natural edota sintetikoan egin eta lurringintza eta elikadur industriadako erabiltzen diren konposatuak fabrikazioa ere.

253.7. epigrafea. Ehun, larru eta kautxugintzarako kola, gelatina eta ekoizkin lagungarrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,116404 euro.
- kW bakoitzeko: 12,819588 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kola eta gelatinen fabrikazioa biltzen du, erretxina natural, zelulosiko eta abereenekoak, kaseinazkoa, elastomerozkoa, plastomerozkoa, etab.; mastika eta beste eranskailu eta prestakinena, landarezko larrukariena eta sintetikoena eta larrukigintza beste ekoizkin kimiko lagungarri batzuren; karbonozko belz, kezko beltz eta azetilenezko beltzarena; algakinena eta beste landarekin eta aberekinena; bai eta ehungai eta larruetarako labaingaien prestaketa, etab. ere.

253.8. epigrafea. Lehergailuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 21,281839 euro.
- kW bakoitzeko: 21,281839 euro.

OHARRA: Epigrafe honek lehergailu eta polbora mota guztien fabrikazioa biltzen du, hala nola binitrotoluenoa, dinamita, nitrozulosa, nitroglizerina, trilita, tretalita, pizgailuen kapsulak, detonagailuak, metxak eta kordoi detonakariak eta polbora mota guztiak

Epigrafe honen barruan, guda munizioaren fabrikazioa ere sartzen da.

253.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren industri erabilerako ekoizkin kinikoen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,000841 euro.
- kW bakoitzeko: 11,924080 euro.

OHARRA: Epigrafe honek industrian erabiltzeko diren beste ekoizkin kimiko batzuren fabrikazioa biltzen du, hala nola, ikatz aktibo eta artifizialak, lur aktibatuak eta beste mea aktibatu batzu (bentonita, kolorekari-lurrak etab.); metalak, olioak eta ura tratatzeko ekoizkin kimikoak eta erabilera mekanikokoak (landarezko labaingaiak eta mistoak, transmisio hidraulikoetarako likiduak eta antizozgarriak, erregai eta labaingailetarako gehigarriak, desugerkariak, destartekatzaileak, uraren arazkariak, etab.); kiskalgailu kimikoak, izadiko erretxinazko ekoizkinak eta berauen eratorria, etab.

254. TALDEA. FARMAZIAKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

254.1. epigrafea. Baseko farmazi ekoizkinen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 17,050713 euro.
- kW bakoitzeko: 15,253687 euro.

OHARRA: Epigrafe honek alkaloide, antibiotiko, eratorri saliziliko, pirazol, barbituriko, sulfamida, bitamina, hormona, medikuntzako landare-aterakin, erabilera opoterapikoetarako guruinezko eta beste batzuzko prestakin, gerli eta txertoen eta basezko ekoizkin farmazeutiko batzuren fabrikazioa.

254.2. epigrafea. Farmaziako espezialitateen eta beste ekoizkin batzuren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 14,099744 euro.
- kW bakoitzeko: 10,000841 euro.

OHARRA: Epigrafe honek giza medikuntzaren erabilerarako farmazi espezialitateen eta albaitaritzaren erabilerarako farmazi espezialitateen eta pentsu-zuzenkarien gertuketa biltzen du, bai eta farmaziako beste ekoizkin batzuren fabrikazioa ere (txaplatak, gasa esterilizatua, katguta, esparadrapua, analisisietarako erreaktiboak, medikuen prestakinak, etab.).

255. TALDEA. BATEZ ERE AZKEN KONTSUMORAKO ERABILTZEN DIREN BESTE EKOIZKIN KIMIKO BATZUREN FABRIKAZIOA.

255.1. epigrafea. Xaboi arrunt, garbikari eta lixiben fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 11,533422 euro.
- kW bakoitzeko: 13,847319 euro.

OHARRA: Epigrafe honek xaboi arrunt eta industrial, garbikari eta lixiben fabrikazioa biltzen du.

255.2. epigrafea. Apainmahaiko xaboen eta lurringintza eta kosmetikako beste ekoizkin batzuren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 23,066845 euro.
- kW bakoitzeko: 26,913322 euro.

OHARRA: Epigrafe honek norbere garbitasunerako gaien (apainmahaiko, bainugelako eta bizarra kentzeko xaboiak, bainuko gatzak, usain-kenkariak, etab.), kolonia, lozio eta lurrinen, larruazala zaindu eta artatzeko edergintzako ekoizkinen, ilea zaindu eta artatzeko ekoizkinen eta lurringintza eta kosmetikako beste ekoizkin batzuren fabrikazioa biltzen du.

255.3. epigrafea. Ezko eta parafinen eratorrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 32,550816 euro.
- kW bakoitzeko: 19,677136 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ezkoen prestaketa biltzen du, bai eta zapatak artatu eta garbitzeko ekoizkinen, etxea artatu eta zaintzeko ezko eta parafinen eratorrien ekoizkinen (zoru eta altzarietarako enkaustikariak, metaletarako lustreak, etab.), ibilgailuak artatu eta garbitzeko ezko eta parafinen ekoizkin eratorrien gertuketa eta kandela, bujia eta antzeko gaien eta ezko eta parafinen beste ekoizkin eratorri batzuren fabrikazioa ere.

255.4. epigrafea. Argazkigintzako material sentiberaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 18,072434 euro.
- kW bakoitzeko: 26,144027 euro.

OHARRA: Epigrafe honek argazkigintzan eta zinemagintzan erabiltzeko filme, plaka eta paperen, planoen (heliografikoak, azografikoak, etab.) berregintzarako paperen fabrikazioa biltzen du, bai eta argazki-laboregiteko prestakin kimikoen fabrikazioa (fokakariak, errebelakariak, finkakariak, motelkariak) eta argazkigintzako bestelako material sentiberaren fabrikazioa ere.

255.5. epigrafea. Pirotekniagaien, supizteko eta pospoluen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 20,506533 euro.
- kW bakoitzeko: 32,743139 euro.

OHARRA: Epigrafe honek pirotekniagaien fabrikazioa biltzen du, hala nola, suziak, seinale eta salbamendurako pospolugaiak, zuziriak, trakak, bolanderak eta txapliguak; bai eta supizteko eta pospoluen fabrikazioa ere.

255.9. epigrafea. Batez ere azken kontsumorako erabiltzeko izan baina bestelako ataletan bildu ez diren ekoizkin kimikoen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 20,506533 euro.
- kW bakoitzeko: 32,743139 euro.

OHARRA: Epigrafe honek batez ere azken kontsumorako erabiltzeko beste ekoizkin kimiko batzuren fabrikazioa biltzen du, hala nola, bulego eta idazguko ekoizkin kimikoak (tindak, klitxeak, ikatz-papera, etab.); garbigaiak (kristal-garbikariak, metal-garbikariak, lohi-kenkariak, giro-garbikariak, etab.) eta beste batzu.

3. ZATIKETA. METALEN TRANSFORMAGINTZAK. ZEHAZTASUNEZKO MEKANIKA

31. ELKARTZEA. METALEZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA (GARRAIOKO MATERIAL-MAKINAK EZIK)

311. TALDEA. GALDAKETAK.

311.1. epigrafea. Burdina eta altzairuzko piezen galdaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,841417 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Epigrafe honek burdina nahiz altzairuzko galdaketan edozein prozeduraz pieza mota guztiak lortzea biltzen du.

311.2. epigrafea. Burdinazkoak ez diren metalen eta berauen aleazioen piezen galdaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,841417 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Epigrafe honek burdinazkoak ez diren metalen eta berauen aleazioen piezen galdaketa biltzen du, hala nola, kobrearen, beronen aleazioen eta beste zenbait aleazioen, hala arinen, nola ultrarinen galdaketaren ekoizkinak; bai eta burdinazkoak ez diren metalgaien eta presiopeko galdaketaren prozedurez lortzen diren aleazioen ekoizpena ere.

312. TALDEA. FORJAKETA, ESTANPAKETA, TROKELAKETA, EBAKETA ETA ERREPULTSATUA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,884858 euro.
- kW bakoitzeko: 2,247785 euro.

OHARRA: Epigrafe honek burdinazko metalen, ez-burdinazkoen eta aleazioen forjaketa, estanpaketa, ebaketa, trokelaketa, errepultsatu eta enbutizioa biltzen ditu. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

312.1. epigrafea. Pieza forjatuak.

312.2. epigrafea. Pieza estanpatu edota trokelatuak.

312.3. epigrafea. Pieza enbutatu, ebaki edota errepultsatuak.

313. TALDEA. METALEN TRATAMENDU ETA GAINESTALDURA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,440109 euro.
- kW bakoitzeko: 1,604702 euro.

OHARRA: Talde honek metalen gainestaldura edo gainjazkia eta beraien tratamendu termikoa biltzen ditu, bai eta beraien dekorazioa eta dekoraziozko babesak. elektrolisi, oxidazio anodiko eta fosfatazio bidezko gainestaldura, murgilketa bidezko gainjazkia, baita metalezko pinturezkoa, eta esmaltatu, lakatu, leunketa, etab. biltzen ditu. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

313.1. epigrafea. Metalen tratamendua (tenplaketa, iraoketa, etab.).

313.2. epigrafea. Metalezko gainestaldurak.

313.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren metalak babesteko tratamenduak.

314. TALDEA. EGITURETARAKO METALEZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

314.1. epigrafea. Metalezko arozgintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 3,978700 euro.

OHARRA: Epigrafe honek metalezko arozgintzako gaien fabrikazioa biltzen du, hala nola, ateak, leihoak, ate eta leihoetarako markoak, bastidoreak, markesinak, burdinesiak, burdinsareak, kalostrak, murrak, trenkadak, panelak, erlaizak, sabaileihoak, berogintzarako elementuak, aireztapenekoak, aire girotukoak, urusketakoak, etab.; bai eta banan-banan ezin sailka daitezkeen instalazio erantsiak ere.

314.2. epigrafea. Metalezko egituren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 3,978700 euro.

OHARRA: Epigrafe honek metalezko egituren fabrikazioa biltzen du, hala nola, eraikinen armazoiak, hangare aurrefabrikatuak, zubi elementuak, zaldainak, zutabeak, egituretarako

metalezko elementuak, trenbide, lehorreraleku, kai finko, uhertsigarri, etab. etarako material finkoa; bai eta banan-banan ezin sailka daitekeen instalazio erantsia ere.

315. TALDEA. GORDAILU HANDI ETA GALDARA LODIEN ERAIKUNTZA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,391079 euro.
- kW bakoitzeko: 3,978700 euro.

OHARRA: Talde honek likidu edota gasetarako gordailu handi, tutueria handi, galdaren sailatal, lurrun-galdaren (tutuaniztunak, erditutuzkoak eta beste batzu), tximinia, eta metalezko gaien eraikuntza biltzen du, bai eta eraikuntzaz landa ezin sailka daitekeen instalazio erantsia ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

315.1. epigrafea. Galdara handiak.

315.2. epigrafea. Metalezko gordailu handiak eta beste galdara lodi batzu.

316. TALDEA. ERREMINTEN ETA METALEZKO GAI AMAITUEN FABRIKAZIOA, MATERIAL ELEKTRIKOA EZIK.

316.1. epigrafea. Esku-erreminten fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek nekazaritza, baratzantza eta basogintzako eskuerreminten fabrikazioa (palak, igitaiak, segak, aitzurrak, zerrak, etab.) biltzen du; etxe eta industriarako esku-erremintena (mailuak, kurrikak, giltza ingelesak, etab.), zura eta metalak lantzeko esku-erremintena (zerrak, zerra-orriak, karraskak, trintxak, terrailak, mailuak, berak, etab.); errementaltegiatarako materialarena (ingudeak, forjak, etab.); eraikintza, meatzaritza, xafla-lan etabarretarako esku-erremintena.

316.2. epigrafea. Burdindegizerrailtegiatarako gaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek industriarako ez diren aiztoen fabrikazioa biltzen du; bai eta bizarlabantxo, bizarlaban eta bizarmakin ez-elektrikoena, zerrailtegiatarako gaiena; iturgintzako gaiena (balbulak eta txorrotak), kriseilugintzako gaiena, errementaltegiatarako (mota guztietako burdineriak) eta burdindegiko beste gai batzuren ere.

316.3. epigrafea. Torlojugintza eta hariaren gai eratorrien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek torloju, berno, azkoin, zirindola, errematxe eta zerrailen fabrikazioa biltzen du, bai eta malguki, eragingailu, balezta eta kateen, erositako biribilez egiten den hariaren, arku-soldadurarako elektrodoen, metalezko sare eta sarebegien, hari arantzatsuaren, kableen (hari eta kable elektrikoak ezik), orratz, buruorratz eta hariaren beste gai metaliko eratorri batzuren fabrikazioa ere.

316.4. epigrafea. Tresneriagaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek mahaigaineko gaien fabrikazioa biltzen du (metal bitxizkoak nahiz metal arrunt txapatuzkoak ezik); bai eta metalezko eltzeria, treska, sukaltarri, bainontzi, etab., eta eragintza elektrikorik gabeko zenbait lanabes etxetiarrena ere (kafeontziak, kafehogailuak, hozkailuak, lisakinak, etab.).

316.5. epigrafea. Sutegi, berogailu eta berogintzako aparatu etxetiar ez elektrikoen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek sutegi, berogailu, estufa, suontzi, erradiadore eta berogintzako aparatu etxetiarren mota guztien fabrikazioa biltzen du, baldin eta atondura elektrikorik ez badute.

316.6. epigrafea. Metalezko altzarien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek metalezko ohe, somier, malgukidun koltxoien, etxe-erabilerarako metalezko beste altzari batzuren fabrikazioa biltzen du; bai eta bulego, terraza eta lorategietakoena; sanitate eta ospitaletan erabiltzekoak; kutxa gotorren fabrikazioa; jatetxe, denda, ileapaindegi aretoetarako aldagailuena (metalezko besaulkiak, erakusmahaiak, beirarasak, etab.); telefono kabinena, etab., bai eta pieza aldagailuen fabrikazioa ere.

316.7. epigrafea. Metalezko kotxor eta ontzien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek edukinontzien, altzairu-txapazko ontzien, latorrizkoen, aluminiozkoen, presiopako likidu eta gasetarako kotxor berezien eta metalezko beste ontzi batzuren fabrikazioa biltzen du.

316.8. epigrafea. Suarma arinen eta berauen munizioen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek arma arinen, ehizakoen eta, orohar, kiroletarakoen, pneumobalistikakoen, arma zurien etabarren fabrikazioa biltzen du; bai eta beraien jaurtikigai eta munizioen fabrikazio eta beraietarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Ez da honen barruan guda armen fabrikazioa sartzen.

316.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren metalez akabatzen diren gaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 3,269506 euro.

OHARRA: Epigrafe honek balbuleria eta txorroteriarren fabrikazioa biltzen du, bai eta argiteria, seinaleztapen eta iragargintzako aparatu metalikoena ere, baldin eta zati elektrikoa aldagailua bada (lanparak, eskutargiak, iragarki kartelak, seinaleztapen plakak, etab.); eta moldiztipoen eta aurrean sailkatu ez diren beste gai metaliko batzuren ere (metalezko apingailuak, esku grapagailuak, kanpaitxoak, etab.).

319. TALDEA. MEKANIKA LANTEGI INDEPENDIENTEAK.

319.1. epigrafea. Mekanika orokorra.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,324967 euro.
- kW bakoitzeko: 2,884858 euro.

OHARRA: Epigrafe honek makina-erreminten bitartezko metalen transformapide zenbaiten aplikazioa biltzen du, baldin eta aginduta edo makinagintza eta mekanikarako materialgintzako enpresek ematen dituzten planoen arabera burutzen badira.

319.9. epigrafea. Bestelako ataletan bidu ez diren mekanika lantegiak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,741986 euro.

OHARRA: Epigrafe honek nekazal materialaren konponketa espezializatua biltzen du, bai eta soldadura lantegiak, ferratzaile-forjariak, etab., eta aurreko taldeetan zehaztu ez diren beste lantegi independente guztiak ere.

32. ELKARTZEA. MAKINERIA ETA EKIPO MEKANIKOAK EGITEA

321. TALDEA. INDUSTRI MAKINA ETA NEKAZAL TRAKTOREAK EGITEA.

321.1. epigrafea. Nekazal makinagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,489560 euro.
- kW bakoitzeko: 3,461830 euro.

OHARRA: Epigrafe honek laborantza, ereintza, ongarrizaketa eta bilketarako; izurriteen tratamendurako; uztako gaien biltegiatze eta artapenerako; basogintzako makineria eta ekiporako; lorazantarako makineria; eraisteko makina eta aparatuen; dolareetarako makineria, nekazal ustategietarako aparatu eta aldagailu berezi, hegatzizantza, erlazantza, arrainzantza, untzizantza etabarretarako makineriagintza biltzen du; bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuak egitea ere.

321.2. epigrafea. Nekazal traktoregintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,489560 euro.
- kW bakoitzeko: 3,461830 euro.

OHARRA: Epigrafe honek motoaitzur, nekazaritzako gurpildun traktore eta beldardun traktoregintza biltzen du.

322. TALDEA. METALAK, ZURA ETA KORTXOA LANTZEKO MAKINAGINTZA: LANABESAK, EKIPOAK ETA MAKINETARAKO ORDEZKAIK.

322.1. epigrafea. Metalak lantzeko makinagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek metalen hotzetako eta berotako lanketarako makineriagintza biltzen du, hala nola, ijezketa eta trefilaketarako, forjaketa, eta estrusiorako makineria; elektrikoak ez diren soldagailuak; txirbila ateratzearen bidezko makina-erremintak, deformaziorakoa eta antzeko beste makineria; bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

322.2. epigrafea. Zur-kortxoak lantzeko makinagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zerrategietarako makineriagintza biltzen du (azal-kengailuak, adabegi-kengailuak, destolestagailuak, zerrak); bai eta zuraren lanketa orokorrerakoena (leungailuak, profilagailuak, usugailuak, biribilgailuak, lixagailuak, zapalgailuak); txapa eta kontratxapatuak gertutu; zuntzak, txirbilak eta zerrautsa aglomeratzeko; gogorketa eta kutsapen; altzarigintza; upelagintza; enbalaketa eta zurezko beste gai batzuren akabera (zurezko zapatak eta orkoiak, saskigintza eta antzekoak, parketa, etab.) eta kortxogintza, zumizkintza etabarretarako makineriarena eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

322.3. epigrafea. Makina-erremintetarako lanabes, ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek makina-erremintetarako lanabes, ekipo, pieza eta aldagailu mota guztien fabrikazioa biltzen du, hala nola, barautsak, mandrilak, fresak, zulatzeko makinak, txantiloak, etab.

323. TALDEA. EHUNGINTZA, LARRUGINTZA, ZAPATAGINTZA ETA JANTZIGINTZARAKO MAKINAGINTZA.

323.1. epigrafea. Ehun-makinagintza eta beraien aldagailugintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ehun-zuntzen prestaketarako, hariak egin, ehunak egin, artilegaiak egin eta puntu-generoak zuritu, tindatu, estanpatu eta amaitzeko makineria eta bestelako ehun-makineria egitea biltzen du, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

323.2. epigrafea. Larrugintza eta zapatagintzarako makinagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek larruazal eta larruak prestatu, ondu eta gertutzeko makinagintza (haragi-kengailuak, mazo edota zilindrozko bolak, urragailuak, ebakigailuak, satinagailuak eta bizkorgailuak) eta zapata eta larruzko eta larruantzeko beste gai batzuren fabrikazio eta konponketarako makineriagintza biltzen ditu, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

323.3. epigrafea. Josteko makinen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek etxean eta industrian erabiltzen diren josi eta brodatzeko makinen fabrikazioa biltzen du, bai eta beraietarako ekipo, pieza eta aldagailuen ere.

324. TALDEA. ELIKADURAGINTZA, KIMIKAGINTZA, PLASTIKOGINTZA ETA KAUTXUGINTZARAKO MAKINA ETA APARATUAK EGITEA.

324.1. epigrafea. Elikaduragintza, edarigintza eta tabakogintzarako makinak egitea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.

- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek harakintza, esnegintza, kontserbagintza, oliogintza eta koipegintza, errotagintza, okintza, azukregintza, kakao eta txokolategintza, alkoholaren destilazio, ardogintza, garagardogintza, edarien fabrikazio eta ontziraketa, tabakogintza etabarretarako makinagintza eta aparatugintza biltzen ditu, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

324.2. epigrafea. Kimikagintzarako makinak egitea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kimikagintza eta petrolioaren birfindegietarako makina eta aparatuen egitea biltzen du (sailkagailuak, banagailuak, nahasgailuak, errektoreak, etab.), bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

324.3. epigrafea. Kautxuaren eta plastikogaein transformagintzarako makinak egitea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek plastikoaren transformagintza (estrusio, ijezketa, moldeaketa, etab. etarako makineria) eta kautxuaren transformagintzarako (gertuketa, errekauxu, etab. etarako makineria) makina eta aparatuen egitea biltzen du, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

325. TALDEA. MEATZARITZA, ERAIKINTZA ETA HERRILAN, BURDINAGINTZA ETA GALDAKETA ETA JASOKETA ETA ESKUZTAPENERAKO MAKINA ETA EKIPOGINTZA.

325.1. epigrafea. Meatzaritza, eraikintza eta herrilanetarako makina eta ekipogintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek meatze eta harrobietarako makineria eta ekipogintza (zundaketa, harroketa eta erauzketa; petrolioaren prospekzio eta erauzketa; meen garbiketa eta prestaketarako makineria; segurtasun eta salbamendurako ekipoak, etab.) eta eraikintza eta herrilanetarako makineria eta ekipogintza (indusgailuak, zapalgailuak, tinkogailuak eta errepideen eraikuntza eta artapenerakoak, ormigoiontziak, laugailuak, etab.) biltzen ditu, bai eta makineria honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

325.2. epigrafea. Metalezkoak ez diren mea-ekoizkingintzarako makina-ekipoak egitea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek beiragintza, zeramikagintza, izadiko harrigintza, zementu, kare eta igeltsugintzarako eta metalezkoak ez diren beste mea-ekoizkingintzarako makineria eta ekipok egitea biltzen du (xehekatu, bahetu, garbitu, haustu, nahastu, eho, etab.etarako makineria), bai eta makineria honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

325.3. epigrafea. Burdinagintza eta galdaketarako makina-ekipoak egitea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek burdinagintza eta galdaketarako makineria eta ekipogintza biltzen du, hala nola, bihurgailuak, koladarako galdarak, lingotontziak, koladarako makineria, ijezkailuak eta galdaketarako makineria eta materiala, bai eta makineria honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

325.4. epigrafea. Jasoketa eta eskuztapenerako makineriagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek eraikin, meatze, establezimendu, geltoki, portu, aireportu etab.en barruan pertsonak edota materialak jaso, igon eta lekuzaldatzeko makineriagintza biltzen du, hala nola, igongailu, jasogailu eta eskailera mekanikoak; bagoneta eta traktore industrialak; zubigarabiak eta erreibakarrekoak; garraiagailu mekanikoak (zintazkoak, arrabolezkoak, kateazkoak, etab.); pilagailuak, bagoien baskuladoreak, etab.; bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere

Epigrafe honen barruan, teleferiko, funikularren eta kablez oinarritzen den arraste eta erremolkeetarako bestelako ekipoaren egitea biltzen du, bai eta gindax, dibidieta, drika hidrauliko eta pneumatikoen, etab.en fabrikazioa ere.

326. TALDEA. TRANSMISIOGAILUEN FABRIKAZIOA.

326.1. epigrafea. Engranaje, transmisio kateen eta bestelako transmisiogailuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek abiadura-aldaketa eta abiadura erregulagarriaren araberako eragintzarako aparatu, abiadura-kaxa, abiadura erregulagarriaren araberako enbrage hidrauliko, abiadura-erreduktore eta biderkatzaile, enbrage, engranaje eta engranaje-tren, kateazko eta katalina-gurpilezko transmisio (bizikletetarako kateak barne), artikulazio loturen, baita mota hidrauliko malgu eta orokorren, eta transmisio aldagailuen, hala nola, transmisio-ardatz, bolante, polea etabarren fabrikazioa biltzen du, bai eta makineri honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

326.2. epigrafea. Errodamenduen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek errodamendu eta kojinete lauen, boladunen, arraboldunen, orraztun etabarren fabrikazioa biltzen du, bai eta beraien pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

329. TALDEA. BESTELAKO MAKINAGINTZA ETA EKIPO MEKANIKOGINTZA.

329.1. epigrafea. Papergintza, kartoigintza eta arte grafikoetarako makinak egitea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek paper-orea, papera eta kartoia sortzeko makinagintza (zaticagailuak, zuntz-kengailuak, xehegailuak, lodigailuak, orerako errota, Foudrinier motako makinak eta kartoia egiteko zilindro motakoak eta aurrebobinagailuak, papera zuritu, kutsatu, satinatu, marrakatu eta krimilatzeko makinak); papergaiak gertutzeko makinagintza (boltsak, gutunazalak, papera eta kartoi uhindua, kaxak eta kartoizko beste ontzi batzu gertutu, papergaiak moldeatu, papera ebaki eta zulatu etab. etarako makinak) eta moldizketa eta azaleztapenerako makineria eta ekipoak (linotipia, estereotipia, minerbak, zapalgailu birakariak, makina litografikoak eta offset-ekoak, tolestagailuak, gomaztagailuak, liburuen zapaltzekoak, joskailuak, etab.) egitea biltzen du, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

329.2. epigrafea. Lehorreko ikuzketa eta garbiketarako makinagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek tindatu, lisatu, ikuzketa, lehorketa eta lehorreko garbiketarako makinagintza biltzen du, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

329.3. epigrafea. Motoregintza eta turbinagintza (garraiorakoak direnak ezik).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek motore eta turbina hidrauliko, lurrun-makina, lurrun eta gas-turbina, diesel eta erdi-diesel motore, aire edota gas konprimatuzko motoreak, etab. egitea biltzen du, bai makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

329.4. epigrafea. Jariakinen eskuztapenerako makineriagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Epigrafe honek transmisio hidrauliko eta pneumatiko (zirkuitu olio-hidraulikoetarako metagailuak, presio-biderkatzaileak, presio eta emariaren mugagailuak edo erreduktoreak, likiduen jasogailuak, etab.), aire eta gasen konpresore eta gasetarako makina berezi eta erreminta pneumatikoak egitea biltzen du, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

329.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren makinagintza eta ekipogintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 4,874208 euro.

OHARRA: Bestelako epigrafeetan zehaztu ez diren makina eta ekipo mekanikoak egitea biltzen du, hala nola, aparatu eoliko, etxerako ez diren hozkailu, airea girotzeko, hozketa eta aireztapenerako makineria, pisagailu (zehaztasunezko balankak ezik), zentrifugadore eta industriako iragazekipo (elikadura eta edarigintzarako ezik); industrian erabiltzen diren labe ez-elektriko, atondura eta enbalaketarako makineria, likidu nahiz hautsen atomizaziorako ekipo, salmenta eta banaketarako aparatu automatiko, makina txanponjale, automobilen gasolindegietarako ikuzketa eta koipeztaketako ekipo, suteen aurkako borrokarako materiala egitea, gudako armagintza, erlojugintzarako makineria, ostalaritza zerbitzugintzarako makineriagintza biltzen ditu, bai eta makineria honetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

32. Taldearentzako ohar orokorra: Talde honetan matrikulatutako subjektu pasiboek, inolako kuota gehigarririk ordaindu gabe, fabrikatutako makinak eta ekipo mekanikoa instalatu ahal izango dituzte, baldin eta instalazio hori fabrikatzaileak egin behar badu.

33. ELKARTZEA. BULEGOKO MAKINAGINTZA ETA ORDENAGAILUGINTZA (BERAIEN INSTALAZIOA BARNE)

330. TALDEA. BULEGOKO MAKINAGINTZA ETA ORDENAGAILUGINTZA (BERAIEN INSTALAZIOA BARNE).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,055882 euro.
- kW bakoitzeko: 5,451180 euro.

OHARRA: Talde honek idazmakina, estenotipia etab., kalkulagailu, batugailu, kontabilizagailu, makina erregistratzaile eta antzekoak; kopiagailuak eta dokumentuen berregingailuak (fotokopiagailuak ezik); zulagailuak, fitxen begiztagailu eta sailkagailuak, datuen prozesu elektronikorako ekipoak egitea biltzen du, beraien instalazioa barne, bai eta makina hauetarako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

330.1. epigrafea. Bulegoko makinak eta ordenagailuak.

330.2. epigrafea. Bulegoko makina eta ordenagailuen instalazioa.

34. ELKARTZEA. MAKINERIA ETA MATERIAL ELEKTRIKOAREN FABRIKAZIOA

341. TALDEA. HARI ETA KABLE ELEKTRIKOAK EGITEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,626844 euro.

- kW bakoitzeko: 6,094263 euro.

OHARRA: Talde honek hari eta kable elektriko (material isolagarritzko estalkidun eroaleak, esmaltatuak, blindatuak edo babes berezikoak, urazpiko eta lurrazpiko kableak, bobinakatarako hariak, elektronikarako kable bereziak eta goi maiztasunekoak, etab.) eta telefono eta telegraforako hari eta kableak (koaxialak eta beste batzu) egitea biltzen du. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

341.1. epigrafea. Komunikazioetarako hari eta kable isolatuak.

341.2. epigrafea. Elektrizitatearen garraiorako hari eta kable isolatuak.

341.3. epigrafea. Bobinetarako hari eta kable isolatuak.

341.4. epigrafea. Lanpara-ontzietarako soka malgu eta hari isolatuak.

341.5. epigrafea. Eraikintzako instalazioetarako hari eta kable isolatuak.

341.9. epigrafea. Bestelako hari eta kable isolatuak.

342. TALDEA. ERABILPEN ETA EKIPAMENDURAKO MATERIAL ELEKTRIKOGINTZA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,626844 euro.
- kW bakoitzeko: 6,094263 euro.

OHARRA: Talde honek mikromotore, motore orokor, monofase eta bestelako motore elektriko; sorgailu, bihurgailu, elektra talde, transformadore, korronte artzergailu, iman iraunkor eta gailu elektromagnetiko, kondentsadore, konmutadore, babesgailu, trakzio eta garraiorako ibilgailuetarako ekipo elektriko, makinetako banaketa, agente, seinaleztapen eta babes koadro, komunikabide eta, orohar, instalazio (elektronikoak ezik), dinamo, magneto, bujia, pizteko bobina, automobiletarako aldagailu elektriko, industriako labe elektriko, industriako ibilgailu elektriko, erreminta elektriko, soldadura elektrikorako aparatu, galbanoplastiagaiak etab. egitea biltzen du, bai eta material honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

342.1. epigrafea. Energia elektrikoaren ekoizpen eta transformaziorako makina eta aparatuak.

342.2. epigrafea. Erabilpen eta ekipamendurako bestelako material elektrikoa.

343. TALDEA. PILA ETA METAGAILUEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,626844 euro.
- kW bakoitzeko: 6,094263 euro.

OHARRA: Talde honek mota guztietako pila eta baterien fabrikazioa biltzen du, direla lehorrak, direla hezeak, bai eta berunezko metagailuena, alkalinoena eta beste batzuren ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

343.1. epigrafea. Pila elektrikoak.

343.2. epigrafea. Metagailu elektrikoak.

343.3. epigrafea. Pila eta metagailu elektrikoen aldagailu, zati eta piezak.

344. TALDEA. NEURKETA, KONTROL ETA BEGIZTAPENETARAKO ZENBAKAILU ETA APARATU ELEKTRIKOEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,626844 euro.
- kW bakoitzeko: 6,094263 euro.

OHARRA: Talde honek energia elektrikoaren zenbakailu, neurketa transformadore eta neurketa (presio, tenperatura, maila, etab.), kontrol, begiztapen, erregulazio edota analisirako bestelako tresna eta aparatu elektrikoen fabrikazioa ere.

345. TALDEA. ETXEKO ELEKTRATRESNEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,626844 euro.
- kW bakoitzeko: 6,094263 euro.

OHARRA: Talde honek etxean erabiltzen diren aparatu elektrikoen fabrikazioa biltzen du, hala nola, sutegiak, labeak, irabiagailuak, ehogailuak, barrilak, kafeontziak, lauskigailuak, poto-irekigailuak eta sukaldeko beste aparatu lagungarri batzu, irensgailuak, ekortzekoak eta pizgailuak, hozkailuak, lisakinak, bizarkengailuak, lehorgailuak, haizagailuak; hondakin-xehegailuak, garbigailuak eta ontzigarbigailuak, berogailu eta estufa elektrikoak, burusi elektrikoak, etab.; bai eta aparatu hauetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

345.1. epigrafea. Sutegiak, labeak, plakak eta janaria prestatzeko aparatu elektrikoak.

345.2. epigrafea. Etxean erabiltzeko diren haizagailu eta izozkailuak.

345.3. epigrafea. Etxean erabiltzeko diren ontzigarbigailu, garbigailu eta arroparen lehorgailuak.

345.4. epigrafea. Urezko berogailu elektrikoak eta lokalak berotzeko apartu elektrikoak.

345.5. epigrafea. Etxean erabiltzeko diren haizagailuak eta aire-girotailuak.

345.6. epigrafea. Sukaldeko aparatu elektriko lagungarriak.

345.7. epigrafea. Etxea zaindu eta artatzeko aparatu elektrikoak.

345.8. epigrafea. Bestelako aparatu elektrikoak.

345.9. epigrafea. Etxeko elektratresnenaldagailu, zati eta pieza bananduak.

346. TALDEA. ARGITERIAKO LANPAREN ETA MATERIALAREN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,626844 euro.

- kW bakoitzeko: 6,094263 euro.

OHARRA: Talde honek bonbila, tutu, proiektagailu, faroen eta goritasun lanparen, arkuzkoen, neon gazezkoen, merkuriozko lurrunezkoen eta sodiozkoen, flash-ezkoen eta ultramore eta infragorri argizkoen fabrikazioa; erabilera elektrikoetarako ikatz eta grafitozko elektrodoen eta beste ekoizkin batzuren fabrikazioa biltzen ditu, bai eta argiteriako bestelako material eta aldagailuen fabrikazioa ere (kable eta hari elektrikoaren eroapenerako tutu isolagarriak, isolagailuak eta material isolagarria, zeramikazkoak, beirazkoak, plastikogaiak, borneak, lokailuak, entxufeak, etab.). Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

346.1. epigrafea. Lanpara elektrikoak.

346.2. epigrafea. Deskargako goi intentsitaterako argiak.

346.3. epigrafea. Erabilera elektrikoetarako ikazkaiak eta grafitogaiak.

346.4. epigrafea. Argiteriako bestelako materiala.

346.5. epigrafea. Argiteriako lanparen eta materialaren aldagailu, zati eta pieza bananduak.

35. ELKARTZEA. MATERIAL ELEKTRONIKOAREN FABRIKAZIOA (ORDENAGAILUAK EZIK)

351. TALDEA. TELEKOMUNIKAZIOKO EKIPO-APARATUEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.
- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Epigrafe honek telefono eta telegrafiako zentralak, transmisio eta harrerako aparatuak, telefono eta telegrafiako terminalak (telexa barne), teleinprimagailuak, hargailu tipografikoak, irudien transmisore telegrafikoak eta telefono eta telegrafiako bestelako material lagungarria, piezak eta aldagailuak egitea biltzen du.

351.2. epigrafea. Infrakomunikazio, irratihedapen eta telebistako ekipo-aparatuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.
- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Epigrafe honek irratikomunikazio, irratigidaritza, irratikokapen eta irratizundaketako aparatuak eta ekipoa; irratihedapen eta telebistako igorleak eta transmisoreak eta harigabeko komunikazioetarako bestelako ekipo eta aparatuak egitea biltzen du, bai eta aparatu hauetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

352. TALDEA. APARATU ETA EKIPO ELEKTROMEDIKUEN ETA LANBIDEETAN ETA ZIENTZIAN ERABILTZEKO DIRENEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.

- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Talde honek diagnostikoak egiteko ekipo elektriko eta elektronikoa, eritasunak tratatzeko ekipo-aparatuak, bizi-eginkizunak ordeztzekoak, etab.; lanbideetan eta zientzian erabiltzeko diren aparatu eta tresnak egitea biltzen du, bai eta aparatu hauetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

353. TALDEA. SEINALEZTAPEN, KONTROL ETA PROGRAMAZIORAKO APARATU ETA EKIPO ELEKTRONIKOEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.
- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Talde honek nabigazio, trenbide, hiribide, errepide, aireportu eta haizebideetarako seinaleztapen, jartzapen eta programazioko aparatu eta ekipo elektronikoak; industri instalazioetako agente eta gobenu automatikorako ekipo elektronikoak, etab. egitea biltzen du, bai eta aparatu buetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

354. TALDEA. OSAGAI ELEKTRONIKO ETA ZIRKUITU INTEGRATUEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.
- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Talde honek balbula elektronikoak (igortzekoak, osziladoreak, etab.), izpi katodikoak, X izpizko tutuak eta beste tutu elektroniko eta erdieroaleak, zirkuitu integratuak eta aparatu eta ekipo mota guztietarako bestelako osagai elektronikoak egitea biltzen du (aparatugintza eta ekipogintza ezik). Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

354.1. epigrafea. X izpizko balbula eta tutu elektronikoak.

354.2. epigrafea. Bestelako osagai elektroniko aktiboak.

354.3. epigrafea. Osagai elektroniko pasiboak.

354.4. epigrafea. Osagai elektroniko eta zirkuitu integratuen aldagailu, zati eta pieza bananduak.

355. TALDEA. HARGAILU, SOINU-IRUDIEN ERREGISTRO ETA BERREGINGAILUEN FABRIKAZIOA. DISKO ETA ZINTA MAGNETIKOEN GRABAZIOA.

355.1. epigrafea. Irrati-telebisten eta soinu-irudien erregistro eta berregingailuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.
- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Epigrafe honek irrati eta telebista, diskogailu, magnetofono, mikrofono, bozgorailu eta soinu-irudien erregistro eta berregingailuen fabrikazioa biltzen du, bai eta aparatu hauetarako ekipo, pieza eta aldagailuena ere.

355.2. epigrafea. Soinu grabatudun euskarrien, bideokoen eta informatikakoen edizioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,780787 euro.
- kW bakoitzeko: 7,115983 euro.

OHARRA: Epigrafe honek soinu grabatudun euskarrien, bideokoen eta informatikakoen grabazio eta berregintza biltzen ditu.

36. ELKARTZEA. IBILGAILU AUTOMOBIL ETA BEREN ALDAGAIK EGITEA

361. TALDEA. IBILGAILU AUTOMOBILAREN ERAIKUNTZA ETA MUNTAKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,621783 euro.
- kW bakoitzeko: 2,632433 euro.

OHARRA: Talde honek ibilgailu automobilentzako motoregintza eta turismo ibilgailu, kamioi, traktokamioi, furgoi, autokar, autobus, trolebus, lur guztietarako ibilgailu arin, militarren xedeetarako ibilgailu automobil (tankeak eta artilleriako pieza burupropultsatuak ezik), eriauto, ehorzketauto, suhiltzaileauto, polizien kotxe, lasterketa kotxeak, etab. egitea biltzen du, bai eta beraien osagaien fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

361.1. epigrafea. Turismo automobilak.

361.2. epigrafea. Autobus eta autokarrak.

361.3. epigrafea. Kamioiak.

361.4. epigrafea. Bestelako ibilgailu automobilak.

361.5. epigrafea. Ibilgailu automobiletarako motoreak.

361.6. epigrafea. Ibilgailu automobiletarako motoredun txasiak.

361.7. epigrafea. Ibilgailu automobiletarako osagaiak.

362. TALDEA. KARROZERIA, ATOI ETA BROZELAK EGITEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,621783 euro.
- kW bakoitzeko: 2,632433 euro.

OHARRA: Talde honek turismo, autobus, kamioi eta bestelako ibilgailu automobiletarako karrozeriagintza eta etxebizitza-atoi eta kanpatzekoak, merkatal atoi, zama berezien garraio eta beste erabilera batzutarakoak egitea biltzen ditu, bai eta kamioi eta brozeletarako kaxa irekiak egitea ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

362.1. epigrafea. Ibilgailu automobil eta atoiarako karrozeriak.

362.2. epigrafea. Atoi eta brozelak.

363. TALDEA. IBILGAILU AUTOMOBILETARAKO EKIPO, OSAGAI, ALDAGAILU ETA ORDEZKAGAIK EGITEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,621783 euro.
- kW bakoitzeko: 2,632433 euro.

OHARRA: Talde honek transmisio, abiadura kaxa, enbrage, erradiadore, girogailu, artezgailu, esekidura sistema, atzekaldeko zubi oso, iragazki, ponpa, eta ijezketa sistema, ihes sistema, isilgailu, gupil, balazta, motore eta karrozerien euskarri, erregai gordailuen eta ibilgailu automobiletarako bestelako ekipo, aldagailu eta ordezkagaien fabrikazioa biltzen du. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

363.1. epigrafea. Ibilgailu automobiletarako motoreen ekipo, osagai, aldagailu eta ordezkagaiak (ekipo elektrikoa ezik).

363.2. epigrafea. Ibilgailu automobiletarako karrozerien ekipo, osagai, aldagailu eta ordezkagaiak.

363.9. epigrafea. Ibilgailu automobiletarako bestelako ekipo, osagai, aldagailu eta ordezkagaiak.

37. ELKARTZEA. UNTZIGINTZA ETA ITSASUNTZIEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA

371. TALDEA. UNTZIGINTZA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,978700 euro.
- kW bakoitzeko: 1,989350 euro.

OHARRA: Talde honek transatlantiko, merkataluntzi, gudauntzi, arrauntzi, pakebote, tangauntzi, izoztuntzi, atoiuntzi, untzi ozeanografiko, belauntzi, farountzi, ponpauntzi, karramarountzi, kiroluntzi, jolasuntziak, etab. egitea biltzen du, bai eta untzietarako motore eta turbina mota guztiak eta untzietarako bestelako ekipo, makineria eta aldagailu bereziak egitea ere. Altzairu, zur, aluminio eta bestelako materialezko kaskodun untziak biltzen ditu.

Talde honen barruan, artefaktu flotadorrak egitea ere sartzen da, hala nola, buiak, gordailu flotakorrak, dike flotakorrak, mota guztietako almadiak, etab.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

371.1. epigrafea. Altzairuzko kaskodun untziak.

371.2. epigrafea. Zurezko kaskodun untzi mota guztiak.

371.3. epigrafea. Plastiko eta bestelako materialezko kaskodun untzi mota guztiak.

371.4. epigrafea. Artefaktu flotakorrak.

371.5. epigrafea. Untzi mota guztietarako motore, turbina eta bestelako propulsioko makineria.

371.6. epigrafea. Untzi mota guztien eta artefaktu flotakorren aldagailu, zati eta pieza bananduak (untzigintzarako metalezko egiturak ezik) eta beraien propulzio makineria.

372. TALDEA. UNTZIEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,978700 euro.
- kW bakoitzeko: 1,989350 euro.

OHARRA: Talde honek untzi mota guztien konponketa eta mantenimendua biltzen ditu, bai eta beraien zatiketa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

372.1. epigrafea. Untzi mota guztien eta artefaktu flotakorren konponketa eta mantenimendu zerbitzuak.

372.2. epigrafea. Untzi mota guztien eta artefaktu flotakorren zatiketa zerbitzuak.

38. ELKARTZEA. GARRAIKO BESTELAKO MATERIALGINTZA

381. TALDEA. TRENBIDE MATERIALA EGIN, KONPONDU ETA MANTENTZEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,440109 euro.
- kW bakoitzeko: 1,676824 euro.

OHARRA: Talde honek mota guztietako lokomotorak (lurrunezkoak, tenderezkoak, elektrikoak, dieselezkoak, gas turbinezkoak eta bestelakoak); lokomotoretarako lurrin galdara, motore eta turbinak; automotore, tranbe, eriautoak; lurrazpiko trenbideetarako motoredun kotxe eta zerbitzu arineko jasogailuak, trenbideak artatu eta ikuskatzekoak, etab. egitea biltzen du; bai eta trenbidezko bestelako material higikor, tranbeen atoi, hiriazpiko trenbidekoen, jasoan, zerbitzu arin, etab.en fabrikazioa (merkatalgai eta bidaiarien bagoiak, plataformak, bagoi bereziak etab.); eta material honen konponketa eta mantenimendua eta berberako ekipo, pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

381.1. epigrafea. Trenbide-materiala.

381.2. epigrafea. Trenbide-materialaren konponketa eta mantenimendu zerbitzuak.

382. TALDEA. AIREUNTZIAK EGIN, KONPONDU ETA MANTENTZEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,083613 euro.
- kW bakoitzeko: 3,786376 euro.

OHARRA: Talde honek mota guztietako eta erabilera guztietarako (norberarentzat, kirolerako, merkataritzarako, gudarako) hegazkin eta hegazkintxoak, helikoptero eta autogiroak; ontzitxodun aerostato eta globoak, arodeloak, planeagailuak, belauntziak; espazialuntzi eta bala-jaurtikigaiak; aireirristagailuak, lurruzte eta luhartze bertikaleko aireuntziak, etab. egitea biltzen du; bai eta aireuntzi mota guztietarako motoreak egitea (enbolozkoak, turboerreaktoreak, termorerreaktoreak, turbohelizeak, etab.) egitea; zelulak egin eta aireuntzietarako pieza, aldagailuak eta ekipoa egitea (helizeak, errotoreak, lurrartzeko trenak,

etab.) eta aireuntzien konponketa, berrikuspen eta mantenimendua ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

382.1. epigrafea. Aireuntziak eta aeronautikako asmakizun espazialak.

382.2. epigrafea. Aireuntzien konponketa, berrikuspen eta mantenimendu zerbitzuak.

383. TALDEA. BIZIKLETA, MOTOZIKLETA ETA BEREN ORDEZKAGAIK EGITEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,814107 euro.
- kW bakoitzeko: 2,506220 euro.

OHARRA: Talde honek motozikleta, motoreta, ziklomotore, elbarrientzako motoredun eta oinpekodun kotxe eta aulkiak, bizikletak, tandemak, trizikloak eta bestelako aringailuak egin eta muntatzea biltzen du; bai eta motore, engranaje, transmisio organo eta garraio material honetarako ekipo, pieza eta aldagailuak (aulkitxoak, eskulekuak, sidekarrak, atoiak, koadroak, oinpekoak, balaztak, gurpilak, etab.) egitea ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

383.1. epigrafea. Motozikleta, skuter eta ziklomotoreak.

383.2. epigrafea. Bizikleta, triziklo eta monoizikloak (haurrenak ezik).

383.3. epigrafea. Propultsio mekanismodun ibilgailu bereziak.

383.4. epigrafea. Motozikleta, skuter, ziklomotore eta ibilgailu berezietarako motoreak

383.5. epigrafea. Bizikleta eta motozikletetarako aldagailu, zati eta pieza bananduak.

389. TALDEA. BESTELAKO ATALETAN BILDU EZ DEN GARRAIO MATERIALA EGITEA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,814107 euro.
- kW bakoitzeko: 2,506220 euro.

OHARRA: Talde honek bestelako garraio materiala egitea biltzen du, hala nola, haurren kotxetxo eta aulkiak, elbarrientzat izan baina propultsiorako sistema mekanikorik ez duten kotxe eta aulkiak, abel trakzioko ibilgailu eta lerak (gurdi eta gurditxoak, alogerako zalpurdiak, tarrantak, diligentziak, etab.), eskorgak eta bestelako esku-ibilgailuak, etab.; bai eta material honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

389.1. epigrafea. Nekazal atoiak eta abel trakzioko ibilgailuak.

389.2. epigrafea. Eskuz eragiten diren ibilgailuak.

389.3. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez den garraio materialaren aldagailu, zati eta pieza bananduak.

39. ELKARTZEA. ZEHAZTASUNEN TRESNA, OPTIKAKOEN ETA ANTZEKOEN FABRIKAZIOA

391. TALDEA. ZEHAZTASUN, NEURKETA ETA KONTROLERAKO TRESNEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,440530 euro.
- kW bakoitzeko: 5,583402 euro.

OHARRA: Talde honek gas, ur eta beste likidu batzuren zenbakailuak (erregaien hornigailuetarako zenbakailuak barne); neurgailu, kontrolgailu eta erregulagailuak (erreguladoreak, maila adierazkariak, dentsimetroak, etab.); nabigazio eta aeronautikarako aparatuak; hidrologia, geofisika eta meteorologiarakoak; laborategiko aparatuak; zehaztasuneko balantzak; dimentsioak neurtzen dituzten zehaztasuneko tresnak; marrazkilari, delineatzaile eta pantografoentzako aparatu eta tresnak; kalkulagailuak; irakaskuntza eta erakusketako materiala (anatomia maketak, etab.) egitea biltzen du, bai eta beraien pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

391.1. epigrafea. Zenbakailu ez-elektrikoak.

391.2. epigrafea. Nabigazio eta aeronautikarako tresna eta aparatuak.

391.3. epigrafea. Topografia, meteorologia, hidrologia eta geofisikarako tresna eta aparatuak.

391.4. epigrafea. Dentsitate, tenperatura, presio, hezetasun eta antzekoak neurtu, kontrolatu eta erregulatzeko tresna eta aparatuak.

391.5. epigrafea. Materialen entseiu mekanikoetarako tresna eta aparatuak.

391.6. epigrafea. Zehaztasuneko balantzak eta dimentsioak neurtzen dituzten zehaztasuneko tresna eta aparatuak.

391.7. epigrafea. Zehaztasun, neurketa eta kontrolerako bestelako tresna eta aparatuak.

391.8. epigrafea. Zehaztasun, neurketa eta kontrolerako tresna eta aparatuen aldagailu, zati eta pieza bananduak.

392. TALDEA. MATERIAL MEDIKU-KIRURGIKO ETA APARATU ORTOPEDIKOAK EGITEA.

392.1. epigrafea. Material mediku-kirurgikoaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,440530 euro.
- kW bakoitzeko: 5,583402 euro.

OHARRA: Epigrafe honek material mediku, kirurgiko, odontologikoaren (elektrikoa eta oftalmologikoa ezik) fabrikazioa biltzen du, hala nola, diagnostikarako aparatu ez-elektrikoak, esterilizazio, anestesia eta zuzperketarako tresnak; material eta altzari kirurgikoak, odontologiarako tresna bereziak, albaitaritza, mekanoterapia, masaia, psikoteknia, etab. etarako aparatuak; bai eta material honetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

392.2. epigrafea. Protesi eta ortopediako aparatuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,440530 euro.
- kW bakoitzeko: 5,583402 euro.

OHARRA: Epigrafe honek aparatu ortopedikoen (kortseak, euskailuak) eta begi, hortz eta belarrietarako protesien fabrikazio biltzen du; eskuak, besoak, bernak, etab., artifizialak direnak, bai eta hausturetarako gai eta aparatuen (makuluak, besoeuskarriak eta haustura eta zainartatuetaarako bestalako aparatuek) eta aparatu hauetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

393. TALDEA. OPTIKA TRESNEN ETA ARGAZKIGINTZA ETA ZINEMATOGRAFIKO MATERIALAREN FABRIKAZIOA.

393.1. epigrafea. Optika tresnak eta argazkigintza eta zinematografiako materiala (beturrekoetarako oskolak ezik).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,440530 euro.
- kW bakoitzeko: 5,583402 euro.

OHARRA: Epigrafe honek lente, prisma, ispilu, ukipen lente, beturreko (plastikozkoak ezik), primatiko, antioju, zehaztasunezko optika tresna, oftalmologi tresna, teleskopio eta astronomiako beste aparatu batzuek (irratiastronomikoak ezik), mikroskopio; argazki makina, flash aparatu, fotokopiagailu, filmagailu eta argazkigintzako bestalako material (proiektzio pantailak, iragazki kromatikoak, hiruoinekoak); proiektagailu eta kamara zinematografiko eta bestalako material zinematografikoaren fabrikazioa biltzen du, tresna eta material hauetarako pieza eta aldagailuen fabrikazioa ere.

393.2. epigrafea. Beturrekoetarako oskolen fabrikazioa (plastikozkoak ezik).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,726275 euro.
- kW bakoitzeko: 3,209405 euro.

399. TALDEA. ERLOJUEK ETA BESTALAKO ATALETAN BILDU EZ DIREN TRESNEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,440530 euro.
- kW bakoitzeko: 3,209405 euro.

OHARRA: Epigrafe honek eskutur, sakel, hormako erlojuen, malgukidun, pisudun eta elektrikoek, kronometro, fitxa-erloju, datagailu eta jagoleen eta erlojugintzako aparatuek; mekanismo sinkronizatzaile, etab.en fabrikazioa biltzen du, bai eta aurreko taldeetan zehaztu ez diren zehaztasunezko beste tresna batzuek eta antzekoen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

399.1. epigrafea. Eskutur eta sakeleko erloju eta kronografoak.

399.2. epigrafea. Iratzargailuak.

399.3. epigrafea. Horma eta mahaigaineko erlojuak.

399.4. epigrafea. Kotxe, untzi, hegazkin, etab. etarako barruko erlojuak.

399.5. epigrafea. Dorre, fatxada, geltokiko erloju eta antzekoak, bai eta ordu-batasunerako erlojuak ere.

399.6. epigrafea. Kontrolgailuak, denbora zenbakailuak eta erlojugintzako mekanismoak dituzten bestelako tresnak.

399.7. epigrafea. Muntaturiko erloju-makinak.

399.8. epigrafea. Erlojuen kaxak.

399.9. epigrafea. Erlojuen eta bestelako ataletan bildu ez diren tresnen aldagailu, zati eta piza bananduak.

4. ZATIKETA. MANUFAKTURAZKO BESTE INDUSTRIA BATZU

41. ELKARTZEA. JANGAI ETA EDARIGINTZA

411. TALDEA. OLIBAOLIOAREN FABRIKAZIO ETA ONTZIRAKETA.

411.1. epigrafea. Olibaolioaren fabrikazio eta ontziraketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 18,072434 euro.
- kW bakoitzeko: 10,325388 euro.

411.2. epigrafea. Olibaolioaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 16,022983 euro.
- kW bakoitzeko: 8,336038 euro.

411.3. epigrafea. Olibaolioaren ontziraketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 16,022983 euro.
- kW bakoitzeko: 8,336038 euro.

TALDE OSORAKO OHARRA: Talde honek olibaolioaren erauzketaren hondakinak biltzen ditu.

412. TALDEA. LANDARE ETA ABEREEN OLIO ETA KOIPEEN FABRIKAZIOA (OLIBAOLIOA EZIK).

412.1. epigrafea. Hazi oliotsuzko eta olibaren zapakinaren erauzketa eta ontziraketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 18,072434 euro.

- kW bakoitzeko: 10,325388 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ehotze, zapalketaz, disolbakarien bidez edo beste prozedura batzuren bidez eskuti, palmondo, palmiste, soia, ekilore, koko, kokomuin, olio-arbi, ziape, intxaur, sesamo eta kalamuen hazi, linaziaren, artoaren olibaren zapakin, etab.en olioak erauztea biltzen du, bai eta landareen bilgor, olioazko opilen eta erauzketaren beste hondakin batzuren ekoizpena ere. Aipatutako olio eta hondakinen ontziraketa ere biltzen du.

412.2. epigrafea. Itsasoko animalien olio eta koipeen lorpena.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,451600 euro.
- kW bakoitzeko: 0,390658 euro.

OHARRA: Epigrafe honek itsasoko animalien olio eta koipeen lorpena biltzen du, hala nola, bakailu eta beste arrain batzuren gibel eta erraiak, arrainen gorputzaren olioak, itsasoko ugaztunen olio eta koipeak (baleak, katxaloteak, etab.), bai eta olio eta koipe hauen erauzketaren hondakinen lorpena ere.

412.3. epigrafea. Landare eta abereen gorputz koipetsuen birfinketa, hidrogenazio, ontziraketa eta antzeko beste tratamendu batzu.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 18,072434 euro.
- kW bakoitzeko: 10,325388 euro.

OHARRA: Epigrafe honek landare eta abereen olio eta koipeen argitzapen, birfinketa, hidrogenazio, ontziraketa eta antzeko beste tratamendu batzu biltzen ditu, giza kontsumorako izan edo ez.

412.4. epigrafea. Margarina eta elikadurarako antzeko koipeen lorpen eta ontziraketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 18,072434 euro.
- kW bakoitzeko: 10,325388 euro.

OHARRA: Epigrafe honek margarina, gantz artifizial eta beste koipe zehatz batzuren lorpen eta ontziraketa biltzen ditu (sukalderakoak, nahasturakoak, testurizatuak, etab.).

413. TALDEA. GANADU HILKETA, HARAGIAREN PRESTAKETA ETA KONTSERBAK ETA HEGAZTIEN TXITALDIA.

413.1. epigrafea. Ganadu hilketa eta zatiketa, orohar.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,693376 euro.
- kW bakoitzeko: 12,182515 euro.

OHARRA: Epigrafe honek haragi eta hondakin freskoen hilketa eta lorpena, idi, ahuntz, txerri, ardi eta untxi azienden, hegazti, eta ehizien, etab.en hozketak eta izozketak biltzen ditu, beti ere baimendutako hiltegieta egiten denean.

Epigrafe honen barruan, hiltegietan odoletako edo gatzetako larruazal eta larru, zurda, ile eta beste azpiekoizkin batzu (lumak, mokoak, hezurak, tripak, bixikak, zaintxuriak, odola, etab.) lortzea sartzen da; bai eta hiltegien ondoan dauden zatiketa gelak eta hozkelak ere. Bilgorren eta gantzaren lorpen eta birfinketa ere biltzen ditu.

413.2. epigrafea. Mota guztietako haragi-ekoizkinen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,693376 euro.
- kW bakoitzeko: 12,182515 euro.

OHARRA: Epigrafe honek haragi umatu eta gazituen, gatzuneko eta lurgaineko animalien keztatuen prestaketa; hestebete, sakote eta antzeko beste kontserba batzuren fabrikazioa; haragien deshidratazio eta liofilizazioa; ontziraketa hermetiko eta esterilizazio bidezko haragien kontserba (osagai nagusitzat haragia eta beronen eratorriak dituzten plater prestatuak barne) eta aterakin, zuku, gelatina, ore, irin eta haragiaren beste prestaketa eta eratorri batzuren fabrikazioa biltzen ditu.

Epigrafe honen barruan plasmaren fabrikazioa sartzen da.

413.3. epigrafea. Zatiketa gela autonomoak, industri erabileretarako eta abereen elikadurarako haragi-azpiekoizkinen aprobetxamendu eta transformazio industriak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,693376 euro.
- kW bakoitzeko: 12,182515 euro.

413.4. epigrafea. Txita jaioberrien txitaldi eta salmenta, arraultze emankorren erosketaren bitartez.

Kuota:

- Ezarritako txitategietarik 1.000 plaza edo zatiki bakoitzeko: 56,585290 euro.

OHARRA: Txitaldia besteren kontura bakarrik egiten denean, txitatzen den ale bakoitzeko ordainketa finkoaren bitartez, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren ehuneko 50a izango da.

414. TALDEA. ESNE-INDUSTRIAK.

414.1. epigrafea. Esnearen prestaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 19,484812 euro.
- kW bakoitzeko: 21,341940 euro.

OHARRA: Epigrafe honek esne pasteurizatu, esterilizatu, homogeneizatu eta antzekoen prestaketa biltzen du, bai eta beraien ontziraketa ere, beraiek banatzeko.

Epigrafe honen barruan, gain fresko, esne hartzituen eta kaseina gordinaren gertuketa sartzen da.

414.2. epigrafea. Kontserbako esnearen prestaketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko:19,484812 euro.
- kW bakoitzeko: 21,341940 euro.

OHARRA: Epigrafe honek esne tinko, kontzentratu edota lurrunduaren eta hautsetako esnearen prestaketa biltzen du, bai eta laktosa, gerlien eta kontserbako esnez egiten diren bestelako ekoizkinen gertuketa.

414.3. epigrafea. Gazta eta gurinaren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko:19,484812 euro.
- kW bakoitzeko: 21,341940 euro.

OHARRA: Epigrafe honek gurin natural, gozo eta gaziaren fabrikazioa eta mota guztietako gazten fabrikazioa biltzen ditu (gogorrak, erdigogorrak, bigunak, urtuak).

414.4. epigrafea. Izozki eta antzekoen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko:19,484812 euro.
- kW bakoitzeko: 21,341940 euro.

OHARRA: Epigrafe honek izozki, zurrupaki eta esnez izoztuzko beste ekoizkin batzuren gertuketa biltzen du, beti ere esne-ekoizkinak erabiltzen direnean.

415. TALDEA. LANDAREEN ZUKU ETA KONTSERBEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,770137 euro.
- kW bakoitzeko: 6,671234 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ontziraketa hermetiko eta esterilizazio bidezko fruiten eta ortuarien kontserbazioa (oinarrizko osagaitzat ortuariak dituzten plater prestatuak barne); fruiten mami eta oreen fabrikazioa; konfitura, marmelada eta jaleen prestaketa; landareen aterakinen eta zukuen fabrikazioa; oliben paramendu eta beteketa eta ozpineztatu mota guztien fabrikazioa eta deshidratazio, izozketa eta liofilizazio bidezko landare ekoizkinen kontserbazioa biltzen ditu. Ozpin, olio, gatzun, azido azetiko, alkohol, etab.en kontserbazioak biltzen ditu, bai eta fruiten eta landareen beste ekoizkin batzuren garbiketa, sailkapen eta ontziraketa.

Talde honen barruan pasa eta fruita lehorren gertuketa sartzen da.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

415.1. epigrafea. Landareen kontserbak.

415.2. epigrafea. Landareen aterakin, zumo eta prestakinen fabrikazioa.

415.3. epigrafea. Fruita eta landareen beste ekoizkin batzuren garbiketa, sailkapen eta ontziraketa.

416. TALDEA. ARRAIN ETA ITSASOKO BESTE EKOIZKIN BATZUREN KONTSERBEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,297237 euro.
- kW bakoitzeko: 2,313897 euro.

OHARRA: Epigrafe honek arrain, krustazeo, etab.en izozketa arina; ontziraketa eta esterilizazio bidezko kontserbazioa (oliotan, eskabetxetan, naturalean, saltsatan, bai eta osagai nagusitzat arraina duten plater prestatuak ere); arrain-gazitu eta eskabetxeen gertuketa; arrainen lehorketa, keztaketa, zapalketa, etab. biltzen ditu, bai eta itsasoko eta ur gezetako beste ekoizkin batzuren prestaketa, kontserbazio eta ontziraketa ere (kaviarra, gaizkataren arraultzeak, igelak, izokinkideak, algak, etab.)

Talde honen barruan, aldi berean arrantzan ez diharduten lantegi-untzien iharduera sartzen da.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

416.1. epigrafea. Arrain-kontserbak eta itsasoko beste ekoizkin batzu.

416.2. epigrafea. Arrainaren eta itsasoko beste ekoizkin batzuren prestaketa eta kontserbazioaren hondakinak.

417. TALDEA. ERROTAKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

417.1. epigrafea. Irin eta semolen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,286587 euro.
- kW bakoitzeko: 10,451600 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ogi bihur daitezkeen irinen, industriarakoen eta semolen, bai eta erabiltzen diren laboreen ehokinen fabrikazioa biltzen du.

417.2. epigrafea. Errotagintzako beste ekoizkin batzuren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,374419 euro.
- kW bakoitzeko: 12,501052,euro.

OHARRA: Epigrafe honek pureen fabrikazioa, arrozaren azalkabeketa, garbiketa eta satinaketa (arroz-errotak) eta lekadun, sustrai eta beste ekoizkin lehor batzuren azalkabeketa, garbiketa, zuriketa, etab. (kafearen azala kentzeko errotak barne) biltzen ditu.

418. TALDEA. ELIKADUR OREKI ETA ALMIDOIZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

418.1. epigrafea. Elikadur orekien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,242617 euro.

- kW bakoitzeko: 7,951390 euro.

OHARRA: Epigrafe honek makarroi, tailarin, fideoen eta zoparako beste oreki batzuren fabrikazioa biltzen du, bai eta oreki egosi eta betebarruen fabrikazioa ere.

418.2. epigrafea. Almidoizko ekoizkinen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,242617 euro.
- kW bakoitzeko: 7,951390 euro.

OHARRA: Epigrafe honek arto, gari, arroz eta beste labore batzuren almidoi eta fekulen; patata eta beste tuberkulu eta landare batzuren fekulen (maranta, mandioka, etab.); merkatal glukosa, glukosa huts (destrosa) eta destrinaren; almidoi eta fekula disolbagarri edota xigortuen eta glutenaren eta xigortutako nahiz xigortu gabeko gluten-irinaren fabrikazioa biltzen du.

419. TALDEA. OGI, OPIL, GOZOKI ETA GAILETAGINTZAK.

419.1. epigrafea. Ogi-opilgintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,242617 euro.
- kW bakoitzeko: 7,951390 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ogi mota guztien fabrikazioa biltzen du, mokdekoa, xigortua, etab. barne, bai eta opilgintza ere.

419.2. epigrafea. Opil, gozoki eta gailetagintzak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,242617 euro.
- kW bakoitzeko: 7,951390 euro.

OHARRA: Epigrafe honek opil, gaileta, gozoki, tarta, pasta, biskotxo, etab.en gertuketa biltzen du.

419.3. epigrafea. Oreki frijituen gertugintzak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 12,242617 euro.
- kW bakoitzeko: 7,951390 euro.

OHARRA: Epigrafe honek oreki frijituen gertuketa biltzen du (txurro, piporropiloak etab.) eta patata frijituena ere bai.

42. ELKARTZEA. BESTELAKO JANGAI, EDARI ETA TABAKOGINTZAK

420. TALDEA. AZUKREGINTZA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,731336 euro.
- kW bakoitzeko: 6,731336 euro.

OHARRA: Talde honek erremolatxa-azukre eta kanabera-azukrearen fabrikazioa biltzen du; bai eta azukrearen birfinketa (birfindutako azukregintza egoera soliduan, bikorkatua, kortadilloak, hautsetakoa, azukre likidua eta xarabeak, birfindutako azukre-lapak ere), eta kanabera-eztien fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

420.1. epigrafea. Azukrea eta azukre-xarabeak.

420.2. epigrafea. Azukregintzaren hondakinak.

421. TALDEA. KAKAO, TXOKOLATE ETA KONFITE EKOIZKINEN INDUSTRIA.

421.1. epigrafea. Kakao eta txokolategintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,083613 euro.
- kW bakoitzeko: 3,654154 euro.

OHARRA: Epigrafe honek gozagarritu gabeko kakaokinen gertuketa (hautsetako kakaoa, kakaoaren gantza, estalki mingotsa eta kakaoaren axala) eta kakaoaren ekoizkin gozagarrituen gertuketa (estalki gozoa, txokolateak, bonboiak eta espezialitateak) biltzen ditu.

421.2. epigrafea. Konfite ekoizkinen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,528362 euro.
- kW bakoitzeko: 8,913010 euro.

OHARRA: Epigrafe honek turroi eta mazapan, karamelu, almendra zuritu, maxkagoma eta beste konfite batzuren gertuketa biltzen du (konfitedun fruitak eta karameludunak, esentziak, flanak, gorringoak, etab.)

422. TALDEA. ABEL ELIKADURARAKO EKOIZKIEN INDUSTRIAK (ARRAINIRINAK BARNE).

422.1. epigrafea. Zuhainak, deshidratatuak, ezituak, etab., abere elikadurarako.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,929249 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Talde honek alfalfa eta beste zuhain batzuren deshidratazioa biltzen du, bai eta arto eta beste batzuren lehortegiak ere.

422.2. epigrafea. Arrainaren eta animalien azpiekoizkinen irinak eta beste prestakin batzu, pentsuak gertutzeko.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,929249 euro.
- kW bakoitzeko: 1,286166 euro.

OHARRA: Epigrafe honek arrain, hezur eta animalia eta landareen beste substantzia batzuren gertuketa biltzen du, animalientzako jangai gisa erabiltzeko edo janariak prestatzeko.

422.3. epigrafea. Pentsu konposatuen gertuketa, 422.4 epigrafean dauden gertuketa izan ezik.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,182095 euro.
- kW bakoitzeko: 3,846477 euro.

422.4. epigrafea. Txakur, katu eta etxeko beste animalia batzuren zako pentsu konposatuen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,973111 euro.
- kW bakoitzeko: 4,814107 euro.

423. TALDEA. ELIKADUR EKOIZKIN BATZUREN GERTUKETA.

423.1. epigrafea. Kafe, te eta kafe-ordezkoen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 13,078023 euro.
- kW bakoitzeko: 16,407630 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kafearen xigorketa, kafe disolbagarrien, deskafeinatuen, kafe-aterakin eta kafe-ordezkoen (txikoriak, etab.) gertuketa biltzen ditu, bai eta te, mate, kamamila eta infusioetarako beste belar espezie usaingo batzuren gertuketa ere.

423.2. epigrafea. Zopa prestatu, aterakin eta gozagarrien gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,891289 euro.
- kW bakoitzeko: 9,868619 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zopa prestatu, salda trinko eta beste aterakin batzuren gertuketa; mahaiko gatz fin, piperrauts gorri, azafrai, ziape, maionesa saltsaren eta beste saltsa prestatu eta gozagarri batzuren gertuketa biltzen ditu, ardozkoak eta sagardozkoak ez diren mahaiko ozpinak ere.

423.3. epigrafea. Dietetika eta janeurriko ekoizkinen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,891289 euro.
- kW bakoitzeko: 9,868619 euro.

OHARRA: Epigrafe honek dietetikako ekoizkinen, haurtxoen elikagaien eta janeurriko ekoizkinen gertuketa biltzen du, hala nola, haurtxoentzako edo dietetika erabileretarako esne bereziak, izpipeko irinak eta bitaminadunak eta laborez egiten diren haur-elikadura edota dietetikarako beste ekoizkin batzu, irinak, fekulak, almidoiak, etab.

423.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren elikadur ekoizkinen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,891289 euro.
- kW bakoitzeko: 9,868619 euro.

OHARRA: Epigrafe honek bestelako epigrafeetan zehaztu ez diren elikadur ekoizkinen gertuketa biltzen du, hala nola, ogia egiteko legamien fabrikazioa; izadiko izotzaren biltzea; arraultzearen zuringo eta gorringoaren lehorketa eta banaketa; hautsetako arraultzearen prestaketa; esnerik gabeko izozki eta zurrupakien fabrikazioa; plater aurre-kuzinatu prestatuen prestaketa (kontserbatugabeak); patata frijitu, krispeta eta antzekoen gertuketa; flanak, izozkiak, sukaldeko gozokiak, etab. egiteko hautsetako ekoizkinen prestaketa.

424. TALDEA. IRAKARAZTEAREN BIDEZKO ALKOHOL ETILIKOEN INDUSTRIAK.

424.1. epigrafea. Alkoholen destilazio eta zuzenketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 15,962881 euro.
- kW bakoitzeko: 13,462671 euro.

OHARRA: Epigrafe honek nekazal ekoizkinen irakiaraztearen ondoriozko alkohol etiliko gordinaren destilazio eta zuzenketa biltzen ditu (erremolatxa, kanabera, fruitak, laboreak, etab.).

424.2. epigrafea. Pattar naturalen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 15,962881 euro.
- kW bakoitzeko: 13,462671 euro.

OHARRA: Epigrafe honek landareen ekoizkinak, hala nola, erremolatxa, kanabera, fruitak, laboreak, etab., hartitzearen ondoriozko pattar natural izenekoaren destilazioa biltzen du.

424.3. epigrafea. Ardotik ez datozen pattar konposatu, likore eta janaurrekoen lorpena.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 41,139279 euro.
- kW bakoitzeko: 33,452334 euro.

OHARRA: Epigrafe honek brandy, erron, ginebra, vodka, whisky, anis, pontxe, bizkorgarri eta ardotik ez datozen beste pattar konposatu, likore eta janaurreko batzuren lorpena biltzen du, bai eta lorpenarekin batera egiten den ontziraketa ere.

425. TALDEA. ARDOGINTZA.

425.1. epigrafea. Ardoen gertuketa eta hazkuntza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 19,737238 euro.
- kW bakoitzeko: 14,165855 euro.

OHARRAK:

1.a. Epigrafe honek muztioen lorpena (natural, trinko, ilaun eta esterilak), mistelen gertuketa, mahaiko eta hazkuntzako ardoen gertuketa eta aparrik gabeko ardoen artapena biltzen ditu.

Epigrafe honen barruan, ardoen hozketa eta gasifikazioa eta lorpenarekin batera egiten den ontziraketa ere sartzen dira.

2.a. Subjektu pasiboak, banaka eta bakarrik, ardoa bere uztako mahatsekin gertutzen duenean, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren ehuneko 25ekoa izango da.

425.2. epigrafea. Apardun ardoen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 23,006743 euro.
- kW bakoitzeko: 16,467732 euro.

OHARRA: Epigrafe honek xanpaina eta beste apardun ardo natural batzuren gertuketa (sotoan eta ontzi handitan) biltzen du, bai eta lorpenarekin batera egiten den beraien ontziraketa ere.

425.3. epigrafea. Beste ardo berezi batzuren gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 23,006743 euro.
- kW bakoitzeko: 16,467732 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ardo berezien gertuketa biltzen du, hala nola, ardo zolituak, txakolinak, gozoak, nobleak, handiak, likoredunak, kinadunak, lurrinduak, sendabidekoak, bermutak eta ardozko beste janurreko batzu, bai eta lorpenarekin batera egiten den ontziraketa ere.

425.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren ardogintzak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 15,512122 euro.
- kW bakoitzeko: 9,423870 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ardogintzaren beste ekoizkin batzuren lorpena biltzen du, hala nola, ardo-ozpinen fabrikazioa eta ardokinen aprobetxamendua (granila, piketak, batsak, etab.), bai eta lorpenarekin batera egiten den ontziraketa ere.

426. TALDEA. SAGARDOGINTZA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 35,688099 euro.

- kW bakoitzeko: 11,665645 euro.

OHARRA: Epigrafe honek sagardo natural, apardun eta gasdun sagardoen gertuketa; sagardo-ozpinen fabrikazioa eta beste fruita irakiarazi batzuren edarien gertuketa (madari-sagardoa edo madarizkoa, sakia, palmondo ardoa, eztiura, zingiberra, etab.) biltzen ditu, bai eta lorpenarekin batera egiten de ontziraketa ere.

Subjektu pasiboak, banaka eta bakarrik, sagardoa bere uztako sagarrekin gertutzen duenean, kuota epigrafe honetan adierazitakoaren ehuneko 25ekoa izango da.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenarean arabera:

426.1. epigrafea. Sagardoa eta antzeko beste edari irekiarazi batzu.

426.2. epigrafea. Sagardogintzako hondakinak.

427. TALDEA. GARAGARDO ETA GARAGARDO-MALTAREN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,759066 euro.
- kW bakoitzeko: 9,748416 euro.

OHARRA: Talde honek garagardo-maltaren eta maltadun edarien fabrikazio biltzen du, hala nola, garagardo arrunta, hitsa, beltza, gogorra eta beste batzu; garardogintzako azpiekoizkinen lopena (garagardoaren legamia, lupulua, ahetzak, etab.), bai eta garardogintzarekin batera egiten den ontziraketa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

427.1. epigrafea. Garagardo eta garagardo-malta.

427.2. epigrafea. Garardogintzako azpiekoizkin eta hondakinak.

428. TALDEA. METALUR, GASDUN UR ETA BESTE EDARI ANALKOHOLIKO BATZUREN INDUSTRIAK.

428.1. epigrafea. Metalur naturalen prestaketa eta ontziraketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 23,066845 euro.
- kW bakoitzeko: 28,836561 euro.

OHARRA: Epigrafe honek iturri edota urbegietan egiten diren metaluren prestaketa (gasifikazioa, etab.) eta ontziraketa biltzen ditu.

428.2. epigrafea. Gasdun ur eta beste edari analkoholiko batzuren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 29,990504 euro.
- kW bakoitzeko: 24,479223 euro.

OHARRA: Epigrafe honek gaseosa, gasdun ur, soda, seltz, etab.; fruitazumoeekin prestatzen diren edarien eta landareen aterakinezkoen, etab.en fabrikazioa biltzen du; hala nola, limonadak, laranja-dak, kolak, ortxatak, etab., bai eta fabrikazioarekin batera egiten den ontziraketa ere.

Epigrafe honen barruan, hautsetako ekoizkin, xarabeen eta edari hauek fabrikatzeko kontzentrakina eta baseen fabrikazioa sartzen da.

429. TALDEA. TABAKOGINTZA.

429.1. epigrafe. Zigarro, zigarrotxo eta bestelako tabakokinen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 28,836561 euro.
- kW bakoitzeko: 31,270660 euro.

OHARRA: Epigrafe honek bildu eta lehortutako orriekin egiten den tabakoaren transformazioa bildu eta tabakoaren zainen kenketa, pikadura, pipatabako, maxka-tabako, sudurrauts, tabakoaren aterakin eta esentzia, etab.en gertuketa hartzen du bere barruan.

429.2. epigrafe. Tabakoaren lehen transformazioa, zigarro, zigarrotxo, pikadura, etab. gertutu gabe.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,006431 euro.
- kW bakoitzeko: 1,797026 euro.

43. ELKARTZEA. EHUNGINTZA

431. TALDEA. KOTOI ETA BERE NAHASTUREN INDUSTRIA.

431.1. epigrafe. Kotoi-zuntzen prestaketa (hazkamaketa, txarraketa, orrazketa).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,209405 euro.
- kW bakoitzeko: 3,077182 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kotoi-zuntzen prestaketa biltzen du, beti ere hazkamaketa, sailkapen, txarraketa, orrazketa, etab. bezalako eragiketen bidez egiten denean.

431.2. epigrafe. Kotoi eta bere nahasturen iruinketa eta bihurketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,373998 euro.
- kW bakoitzeko: 2,121573 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kotoiaren harien eta beraren nahasturen iruinketa, bihurketa eta erregularizazioa biltzen ditu, beti ere zuntz artifizial eta beste zuntz batzuekin egiten direnean.

431.3. epigrafe. Kotoi eta bere nahasturen ehoketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,929249 euro.
- kW bakoitzeko: 5,709615 euro.

OHARRA: Epigrafe honek kotoi eta bere nahasturen ehoketa biltzen du, beti ere zuntz artifizial eta beste zuntz batzurekin egiten denean.

432. TALDEA. ARTILE ETA BERE NAHASTUREN INDUSTRIA.

432.1. epigrafea. Artile-zuntzen prestaketa (sailkapen, garbiketa, txarraketa eta orrazketa).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,313897 euro.
- kW bakoitzeko: 1,159953 euro.

OHARRA: Epigrafe honek artile-zuntzen prestaketa biltzen du, beti ere sailkapen, zozketa, garbiketa, txarraketa, ikazketa, orrazketa, etab. bezalako eragiketen bidez egiten denean.

432.2. epigrafea. Artile eta bere nahasturen iruinketa eta bihurketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,346688 euro.
- kW bakoitzeko: 3,341627 euro.

OHARRA: Epigrafe honek artilearen eta bere nahasturen iruinketa, bihurketa eta harilkaketa biltzen ditu, beti ere zuntz artifizial eta beste zuntz batzurekin egiten direnean.

432.3. epigrafea. Artile eta bere nahasturen ehoketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 5,962040 euro.
- kW bakoitzeko: 8,011491 euro.

OHARRA: Epigrafe honek artile eta bere nahasturen ehoketa biltzen du, beti ere zuntz artifizial eta beste zuntz batzurekin egiten denean.

433. TALDEA. ZETA NATURAL ETA BERE NAHASTUREN ETA ZUNTZ ARTIFIZIAL ETA SINTETIKOEN INDUSTRIA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 3,017081 euro.
- kW bakoitzeko: 6,412799 euro.

OHARRA: Talde honek zeta naturalaren zuntzen prestaketa (sailkapen, estrikatua, arrantzarako hariaren lorpena, etab.), iruinketa, birbihurketa, ehundura, harien erregularizazio eta zeta natural eta bere nahasturen ehoketa eta zetazuntzekin nahastatuena biltzen ditu.

Talde honetan daude irutea, nahastu gabeko zuntz artifizialen eta sintetikoaren harien erregularizazioa, eta zetaekin nahastutako ehunen erregularizazioa.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

433.1. epigrafea. Zeta natural eta bere nahasturen industriako ekoizkinak.

433.2. epigrafea. Zuntz artifizial eta sintetikoen prestaketa, iruinketa eta ehoketa.

434. TALDEA. ZUNTZ GOGORREN ETA BEREN NAHASTUREN INDUSTRIA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,956980 euro.
- kW bakoitzeko: 3,341627 euro.

OHARRA: Talde honek harien prestaketa (sailkapen, urantura, bargaketa, ezpataketa, arrastelatzea, etab.), iruinketa, bihurketa, erregularizazioa eta liho, kalamu, espartzu, erramio, jute, abaka, sisal, zurda, koko, etab.en zuntzen ehoketa, bai eta berauen nahasturak beste zuntz batzurekin ehotzea ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

434.1. epigrafea. Iruinketarako prestaturiko zuntz gogorrak.

434.2. epigrafea. Zuntz gogorren prestaketako azpiekoizkin eta hondakinak.

434.3. epigrafea. Zuntz gogor eta beren nahasturen iruinketa eta bihurketak.

434.4. epigrafea. Zuntz gogor eta beren nahasturen ehoketak.

435. TALDEA. PUNTU-GENEROEN FABRIKAZIOA.

435.1. epigrafea. Puntu-generoak piezatan fabrikatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,396139 euro.
- kW bakoitzeko: 11,473321 euro.

OHARRA: Epigrafe honek piezatako putu-generoen, kotoi, artile, zeta, zuntz artifizial eta sintetikoen eta beste batzuren fabrikazioa biltzen du, jantzi mota guztietarako.

435.2. epigrafea. Galtzagintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,396139 euro.
- kW bakoitzeko: 11,473321 euro.

OHARRA: Epigrafe honek andrezko, gizonezko eta haurrentzako mota guztietako galtza (ortopedikoak ezik), galtzerdi eta antzeko janzkien fabrikazioa biltzen du.

435.3. epigrafea. Puntuzko barruko janzki eta lo egiteko arropen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,396139 euro.

- kW bakoitzeko: 11,473321 euro.

OHARRA: Epigrafe honek hariz andrezko, gizonezko eta haurrentzako puntuzko barruko janzkiak eta lo egiteko arropak fabrikatzea biltzen du, hala nola, barrengolastikoak, slipak, kortseak, azpiko gonak, txabusinak, pijamak, peieleak, etab.

435.4. epigrafea. Puntuzko kanpoko janzkien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,396139 euro.
- kW bakoitzeko: 11,473321 euro.

OHARRA: Epigrafe honek hariz andrezko, gizonezko eta haurrentzako puntuzko kanpoko janzkiak fabrikatzea biltzen du, hala nola, elastikoak, jakak, soinekoak, jantzi multzoak, prakak, alkondarak, haurren arropa, bainujantzi eta kirol jantziak, eskularruak, gorbatak, txapelak, sonbreiluak, tapakiak, etab.

436. TALDEA. EHUNEN AKABERA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,363348 euro.
- kW bakoitzeko: 5,901939 euro.

OHARRA: Talde honek zuriketa, tindaketa, estanpaketa, prestaketa eta ehunen beste akabera batzu biltzen ditu, beti ere iharduera ehun horien fabrikaziotik landa sailka daitekeenean.

...

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

436.1. epigrafea. Ehun zurituak.

436.2. epigrafea. Ehun tindatuak.

436.3. epigrafea. Ehun estanpatuak.

436.9. epigrafea. Ehun prestatu, mertzeriztatuak edota bestelako akaberokoak.

437. TALDEA. ALFONBRA ETA TAPIZEN ZEIN EHUN LETATUEN FABRIKAZIOA.

437.1. epigrafea. Alfonbra eta tapizen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,528362 euro.
- kW bakoitzeko: 8,143714 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zuntz mota guztizko alfonbra, tapiz, zerria eta antzeko beste gai batzuren fabrikazioa biltzen du.

437.2. epigrafea. Ehun letatuen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,528362 euro.
- kW bakoitzeko: 8,143714 euro.

OHARRA: Epigrafe honek olio lehortzailezko ehun letatuen fabrikazioa (ehun iragazkaiztuak, olioztatuak, berniztatuak, uleak eta ezkoztatuak, etab.); bai eta zelulosa edota erretxina sintetikoen eratorrizko ehun letatuena; liholio eta antzeko sintetikoen eratorrizko ehun letatuena; liholio eta antzeko zoruestalkariena (plastikogaiena ezik); kolaz eta almidoizko gaiez letatzen diren ehunena; pintura, kalko, gomaztatu, etab.ena ere.

439. TALDEA. ZENBAIT EHUNGINTZA.

439.1. epigrafea. Kordelgintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,044811 euro.
- kW bakoitzeko: 4,044811 euro.

OHARRA: Epigrafe honek unama, sirga, soka, kordel, kable, sare, arrantzarako hari eta kordezlezko beste gai batzuren fabrikazioa biltzen du.

439.2. epigrafea. Feldro, tul, farfail eta ipuren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 4,044811 euro.
- kW bakoitzeko: 4,044811 euro.

OHARRA: Epigrafe honek feldroa eta feldro-ehunak gakorratzez edo presioz; tulak, farfailak, brodatu mekanikoak eta antzeko gaiak fabrikatzea biltzen du; bai eta ehundu gabeko oihalen fabrikazioa; ehungaizko tutu, feldro, gerriko eta zingilena; eta zinta, bigizta, dordontze, ipura etab.ena ere.

439.3. epigrafea. Ehunak berreskuratze zuntzez fabrikatzea.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 1,544601 euro.
- kW bakoitzeko: 1,797026 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ehunak berreskuratze zuntzez fabrikatzea biltzen du (birsortuak eta hondakinak) eta zuntzen prestaketa, berreskuratze zuntz horien bidezko zuntzen prestaketa eta hari eta ehungaien fabrikazioa hartzen ditu bere barruan.

439.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren industriak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,286587 euro.
- kW bakoitzeko: 6,286587 euro.

OHARRA: Epigrafe honek beste ehungai batzuren fabrikazioa biltzen du, hala nola, ehun elastikoak, goata, ilupa, miragoanoa, zurda, ehunarteak eta tapizgintza eta beste erabilera batzutarako beste gai batzu; etab.

43. TALDEARENTZAKO OHAR OROKORRA. Subjektu pasiboek Talde honetan jasotako jarduerak, modu eksklusiboan, hirugarrenei begira eta enkarguz, 10 langile baino langile-kopuru txikiagoarekin egiten badituzte, kuota kasuan kasuko izenpekoari atxikitakoaren ehuneko 25ekoa izango da; langile-kopurua 9 eta 25 artean kokatzen bada, kuota kasuan kasuko izenpekoari atxikitakoaren ehuneko 50koa izango da.

44. ELKARTZEA. LARRUGINTZA

441. TALDEA. LARRU ETA LARRUAZALEN ZURRAKETA ETA AKABERAK.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 18,457082 euro.
- kW bakoitzeko: 10,896349 euro.

OHARRA: Talde honek larru eta larruazalen prestaketa biltzen du, zurratzeko denean; larru eta larruazalen zurraketa, ontzea, estanpaketa, txaroleztaketa, tindaketa, koloregabeketa eta akabera, bai eta larruzko eta larru sintetizatzeko aglomeratuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

441.1. epigrafea. Larru eta larruazalen akabatugabeak.

441.2. epigrafea. Larru eta larruazalen akabatuak.

441.3. epigrafea. Larru eta larruazal birsortuak, azpiekoizkinak eta zurraketaren hondakinak.

442. TALDEA. LARRUGAI ETA ANTZEKOEN FABRIKAZIOA.

442.1. epigrafea. Larruki eta bidaiagaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 25,506954 euro.
- kW bakoitzeko: 35,051026 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zorro, zorrotto, gerriko, doxa, diruzorro, kutxatila, maleta, maletatxo, boltsa eta antzeko larruki eta bidaiagaien fabrikazioa biltzen du, beti ere larruz edo beronen ordezkoez egiten direnean.

442.2. epigrafea. Larruazalezko eskularruen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 25,506954 euro.
- kW bakoitzeko: 35,051026 euro.

OHARRA: Epigrafe honek jantzi eta babesteko eskularru eta larruazalezko eskuerdien, baita kiroletarako eskularru berezien fabrikazioa biltzen du.

442.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren gaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 20,380320 euro.

- kW bakoitzeko: 28,073275 euro.

OHARRA: Epigrafe honek bestelako epigrafeetan zehaztu ez diren larrugaien fabrikazioa biltzen du, hala nola, industrian erabiltzeko diren larrugaiak (hedeak, polokak, bolokak, etab.); upalgintzako gaiak (uhalak, pildatzarrak, zelak, zigor eta zartailuak, etab.); zahatogintzako gaiak (zahato eta zaragiak), pildak, tresna militarrek, kirolgaiak, etab.; bai eta larruen ordezkoko gaien fabrikazioa eta kozkadura.

442. Taldearentzako ohar orokorra: Talde honetan matrikulatutako subjektu pasiboek atal honetan jasotako jarduerak gehienez ere hiru langilerekin egiten badituzte, Epigrafeari atxikitako kuotaren 100eko 50 ordainduko dute.

45. ELKARTZEA. ZAPATAGINTZA ETA JANTZIGINTZA ZEIN BESTELAKO EHUN-GERTUKETAK

451. TALDEA. LARRUZKO ZAPATAK SALDOKA FABRIKATZEA (KAUTXUZKOA ETA ZUREZKOA EZIK).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 11,533422 euro.
- kW bakoitzeko: 11,028572 euro.

OHARRA: Talde honek mota guztietako zapaten saldokako fabrikazioa janztekoa, kiroleterakoa, lanerakoa, balleterakoa, etab.), direla larruzkoak edo batez ere larruzkoak, direla ehunezkoak edo ordezkokoak; mota guztietako espartina eta abarketak, botak, hazpantarrak, etab., bai eta zapatetarako larruzko zati eta aldagailuen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, hanako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

451.1. epigrafea. Zapatagintzarako bitarteko ekoizkinak eta akaberako zerbitzuak.

451.2. epigrafea. Saldoka egiten diren kaleko zapatak.

451.3. epigrafea. Saldoka egiten diren etxeko abarketak, zapata bereziak, hazpantar eta antzekoak.

451.4. epigrafea. Jatorri guztietako larruzko txatal eta hondakinak.

452. TALDEA. ARTISAUTZAKO ETA NEURRIKO ZAPATEN FABRIKAZIOA (BAI ETA ZAPATA ORTOPEDIKOAK ERE).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 13,462671 euro.
- kW bakoitzeko: 12,945801 euro.

OHARRA: Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zahatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

452.1. epigrafea. Artisautzako eta neurriko zapatak.

452.2. epigrafea. Zapata ortopedikoak.

453. TALDEA. JANZKI MOTA GUZTI ETA JANTZIEN OSAGARRIEN SALDOKAKO GERTUKETA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,896349 euro.
- kW bakoitzeko: 12,182515 euro.

OHARRAK:

1.a. Talde honek gizonezkoen kanpo janzkien saldokako gertuketa biltzen du, hala nola, berokiak, kapak, zamarrak, txabusinak, jakak, prakak, bainujantziak, ehunezko puntu-jantziak, etab. Bai eta andrezkoen kanpo janzkien saldokako gertuketa, hala nola, berokiak, kapak, zamarrak, txabusinak, brusak, gonak, prakak, janzkiak, bainujantziak, soinekoak, ehunezko puntu-jantziak. Eta haurrentzako mota guztietako janzkien gertuketa ere.

Alkondara, galtzontzilo eta antzeko, pijama, azpikogona, ator luzeak, pantaloiak, bularretakoak eta bestelako mihisegaiak, ehunezko puntu-jantziak barne, etab.

Laneko janzki, uniforme, larruzko janzki eta antzekoen, euritarako janzki berezi josien edo plastiko soldatuzkoen saldokako gertuketa, bai eta militarren janzki eta kiroletarakoena, abadeena eta erlijio, antzerkirako, etab.ena ere.

Kasko eta sonbreiluetarako banden, sonbreilu, txano, zoronga eta antzekoen gertuketa.

Euritako, makila eta eguzkitarakoen; gorbata, txal, lepoiha, belo, mantutxo eta zapien; ehunezko gerriko, zorro eta eskularruen; modako lore eta lumen; bularretakoen tiranteen; haizekari, etab.en saldokako fabrikazioa.

Modelo eta moldeen diseinua, makinazko jostaketa, alozfilusa, artuketak egiteko lanak eta epigrafe hauetan zehaztu ez diren jantzizigintzaren ondoko bestelako iharduerak burutzea ere sartuta dago.

Halaber, talde honek enbalatzeko zaku, feldrozko ehun eta boltsa zentrifugoen saldokako gertuketa biltzen du.

2.a. Subjektu pasiboek talde honen barruko iharduerak gainontzekoentzat eta berauek aginduta bakarrik egiten dituztenean, hamar langile baino gutxiago badituzte, kuota taldeari esleitutakoaren ehuneko 25ekoa izango da; langileak 9 baino gehiago eta 25 baino gutxiago badira, kuota taldeari esleitutakoaren ehuneko 50ekoa izango da.

454. TALDEA. JANZKIEN ETA BERAUEN OSAGARRIAK NEURRIRA GERTUTZEA. Kuota: Langile bakoitzeko: 18.3,209405 euro.

OHARRA: Talde honek andrezko, gizonezko eta haurrentzako kanpo eta barruko janzkien neurrirako gertuketa biltzen du (neurrirako jostaketa, goimailako jostaketen lantegiak, neurrirako jostunak, etab.), bai eta sonbreiluen eta jantzien bestelako aldagailuen neurrirako gertuketa ere.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

454.1. epigrafea. Neurrira egiten diren janzkiak.

454.2. epigrafea. Neurrira egiten diren sonbreiluak eta jantzietarako aldagailuak.

455. TALDEA. BESTE GAI BATZU EHUNGAIEZ GERTUTZEA.

455.1. epigrafea. Etxerako ehungai eta tapizen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 14,099744 euro.
- kW bakoitzeko: 15,512122 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ohe, mahai, garbiketako ehungai eta antzekoen gertuketa, artile, kortxo, etab.ezko koltxoiena; gortina, errezel, etab.en tapizketa eta gertuketa.

455.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren ehungaizko gauzen gertuketa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,896349 euro.
- kW bakoitzeko: 12,182515 euro.

OHARRA: Epigrafe honek bestelako epigrafeetan zehaztu ez diren ehungaizko gaien gertuketa biltzen du (zaku, denda, olana, kandelak, etab.), zutoihal, ikurrinak, eliz jantziak, intsignia, brodatuak eta bestelako apaindurak, jausgailuak, kotoi hidrofiloa, esterilizatu gabeko bendak, etab.

455. TALDE OSORAKO OHARRA:

Subjektu pasiboek talde honen barruko iharduerak gainontzekoentzat eta berauek aginduta bakarrik egiten dituztenean, hamar langile baino gutxiago badituzte, kuota taldeari esleitutakoaren ehuneko 25ekoa izango da. Langileak 9 baino gehiago eta 25 baino gutxiago badira, kuota taldeari esleitutakoaren ehuneko 50ekoa izango da.

456. TALDEA. LARRUKIGINTZA.

456.1. epigrafea. Larrukigintza naturala.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 68,881997 euro.
- kW bakoitzeko: 96,306180 euro.

456.2. epigrafea. Larrukigintza artifiziala.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 51,650980 euro.
- kW bakoitzeko: 72,211604 euro.

OHARRA: Subjektu pasiboek Talde honetan jasotako jarduerak, modu eskusiboan, hirugarrenei begira eta enkarguz, 10 langile baino langile-kopuru txikiagoarekin egiten badituzte, kuota kasuan kasuko izenpekoari atxikitakoaren ehuneko 25ekoa izango da; langile-kopurua 9 eta 25 artean kokatzen bada, kuota kasuan kasuko izenpekoari atxikitakoaren ehuneko 50koa izango da.

456.TALDE OSORAKO OHARRA: Talde honek janzki, sonbreilu, estola eta jantzien bestelako aldagailu, alfonbra, burusi eta beste gai batzuren gertuketa biltzen du, beti ere larruazal fin arrunt eta ordezkoez edota larruazalantzekoez egiten direnean (itxurazko larrukigintza), larruazalen hondarren transformazio espezializatua ere.

46. ELKARTZEA. ZURGINTZA, KORTXOGINTZA ETA ZUREZKO ALTZARIGINTZA

461. TALDEA. ZURAREN ZERRAKETA ETA INDUSTRI PRESTAKETA (ZERRAKETA, MARRUSKETA, LEUNKETA, GARBIKETA, ETAB.).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 11,924080 euro.
- kW bakoitzeko: 4,171024 euro.

OHARRA: Talde honek plantxa, oholtzar, ohol, estrabe, langartz, etab. egiteko zuraren zerraketa mekanikoa biltzen du, bai eta zuraren marrusketa, garbiketa, leunketa, lehorketa, beroketa, kreosotaztapen eta bestelako tratamenduak ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

461.1. epigrafea. Zerraketaren ekoizkinak eta zuraren industri prestaketa.

461.2. epigrafea. Zerraketaren hondakinak eta zuraren industri prestaketa.

OHARRA: Subjektu pasiboek talde honetan jasotako jardunak burutzeko 10 langile baino gutxiago dituztenean, hirugarrenentzako eta enkargu bidez bakarrik, kuota berez dagokion % 25 izango da. Langile kopurua 9 baino gehiago baina 25 baino gutxiago bada, kuota % 50 izango da.

462. TALDEA. ZUREZKO EKOIZKIN ERDIGERTUTUEN FABRIKAZIOA (TXAPAK, OHOLTZAK, ZUR HOBETUAK).

462.1. epigrafea. Zurezko txapak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 5,517291 euro.

462.2. epigrafea. Zur txapatu, kontratxapatuak eta oholtza zelularrak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.
- kW bakoitzeko: 5,517291 euro.

462.3. epigrafea. Zuntz eta partikulazko oholtza eta panelak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 2,440109 euro.
- kW bakoitzeko: 4,237135 euro.

462.4. epigrafea. Zur hobetuak.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 6,412799 euro.

- kW bakoitzeko: 5,517291 euro.

463. TALDEA. AROZGINTZAKO PIEZA, PARKET ETA ERAIKINTZARAKO ZUREZKO EGITUREN SALDOKAKO FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 14,742827 euro.
- kW bakoitzeko: 4,681884 euros.

OHARRA: Talde honek ate, leiho, ingurakin, marko, egitura aurrefabrikatu eta eraikintzarako zurezko bestelako piezen fabrikazioa edo fabrikazio eta ezarpena (lantegiko arozgintza) biltzen ditu, parket, dornadura, moldura, etab.ena, (arozgintza mekanikoa), bai eta zurezko pertsiana, manpara, etab.en fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

463.1. epigrafea. Zurezko ate eta leihoak.

463.2. epigrafea. Zurezko parket, dornadura eta lauxak.

463.3. epigrafea. Eraikintzarako arozgintzako bestelako piezak.

463.4. epigrafea. Zurezko egitur elementuak eta eraikuntza aurrefabrikatuak.

464. TALDEA. ZUREZKO ONTZI ETA ENBALAKETEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 14,742827 euro.
- kW bakoitzeko: 4,681884 euros.

OHARRA: Talde honek mota guztietako zurezko kaxa, kaiola, zilindro, enbalaje, kutxa, maleta, kaxa-erretilu, erretilu eta bestelako aldagailuen edo zuntz edota partikulazko panelen fabrikazioa biltzen du, bai eta barrika eta upelgintzako bestelako ontzi eta piezen fabrikazioa ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

464.1. epigrafea. Zurezko ontzi eta enbalaje industrialak (upelgintza ezik).

464.2. epigrafea. Upelgintza.

464.3. epigrafea. Zurezko estalki, kutxa, maletak eta bestelako ontziak.

465. TALDEA. ZUREZKO ZENBAIT OBJEKTUREN FABRIKAZIOA (ALTZARIAK EZIK).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 14,742827 euro.
- kW bakoitzeko: 4,681884 euros.

OHARRA: Talde honek moldura eta ihitxo; koadro eta ispiluetarako marko, barra biribil eta torneatu, erreminta, isats eta pintzeletarako girtenen; zurezko erreminta, zurez guztiz egindako zapata (eskalapoi, kloskak, etab.), orkoi, takoi, kako, etxeko lanabes, zotz, apaingai, ehungintzarako zurgai (txirrika, ardatzak, etab.) eta zurezko bestelako piezen fabrikazioa biltzen du, bai eta zurezko irin, artile edota zuntzaren ekoizpena ere.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

465.1. epigrafea. Etxerako eta apainketarako erabiltzen diren zurgaiak.

465.2. epigrafea. Erreminta, girten, zelak eta zurezko antzeko gaiak.

465.3. epigrafea. Zapatak egin eta artatzeko zurgaiak.

465.4. epigrafea. Ehungintzarako zurgaiak.

465.5. epigrafea. Zurezko zapatak.

465.6. epigrafea. Zurezko irin eta artilea.

465.9. epigrafea. Bestelako ataletan bildu ez diren zurgaiak.

466. TALDEA. KORTXOZKO EKOIZKINEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,253267 euro.
- kW bakoitzeko: 7,891289 euro.

OHARRA: Talde honek kortxozko ekoizkinen fabrikazioa biltzen du, hala nola, laukitxo, plantxa, disko, bikor, zerrauts eta izadiko kortxozko bestelako hondakinen fabrikazioa biltzen du; bai eta isolamendu eta beste erabileretarako kortxozko aglomeratuen fabrikazioa; eta zipotz, lauxa, kurtxoi, gerrontze eta bizisalbagailu-gerriko, zola, flotagailu, fantasiagai eta kortxozko beste zenbait gairena ere. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

466.1. epigrafea. Kortxozko ekoizkinak.

466.2. epigrafea. Kortxogaigintzako hondakinak.

467. TALDEA. IHI, KANABERA, SASKI, BROTXA, ESKUBILA ETA ANTZEKOEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,000841 euro.
- kW bakoitzeko: 5,258856 euro.

OHARRA: Talde honek ihi, zume, kanabera, palmondo, etab.ezko gaien fabrikazioa biltzen du; bai eta saskiak eta bestelako gai kordonduen; isats, mustuka, mota guztietako eskubila, brotxa, pintzel, etab.ena ere.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

467.1. epigrafea. Kordondu ahal diren materien gaiak.

467.2. epigrafea. Eskubila, brotxa, isatsak eta antzeko gaiak.

468. TALDEA. ZUREZKO ALTZARIGINTZA.

468.1. epigrafea. Etxerako zurezko altzarigintza.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,846898 euro.
- kW bakoitzeko: 5,258856 euro.

OHARRA: Epigrafe honek batez ere zurezkoak izan eta logela, jangela, sukalderako erabiltzen diren altzarien fabrikazioa, objektuen osagaikako altzari eta transformagarrien, egongela, liburutegi eta atalondorakoen ezarpena biltzen ditu; bai eta aulki, besaulki, sofa tapiztuak, etab., eta etxean erabiltzen diren bestelako altzariak ere.

468.2. epigrafea. Eskola eta bulegoko altzarien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,846898 euro.
- kW bakoitzeko: 5,258856 euro.

OHARRA: Epigrafe honek batez ere zurezkoak izan eta eskola eta bulegoetan erabiltzen diren altzarien fabrikazioa biltzen du, hala nola, idazguak, bulegoko aulkiak, idazmahaiak, mahaiak, armairuak, artxibategiak, liburutegiak, etab.

468.3. epigrafea. Zur, ihi, zume eta kanaberazko zenbait altzariren fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,846898 euro.
- kW bakoitzeko: 5,258856 euro.

OHARRA: Epigrafe honek zur, ihi, zume eta kanaberazko zenbait altzariren fabrikazioa biltzen du, hala nola, lorategiko altzariak, hitzaldi eta ikuskizun aretoetarako jarlekuak, elizarako altzariak, taulatuak, merkataltegi eta jantokietarako altzari eta aldagailuak, etab.

468.4. epigrafea. Hilkutxen fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 8,846898 euro.
- kW bakoitzeko: 5,258856 euro.

OHARRA: Epigrafe honek batez ere zurezkoak diren hilkutxa eta errauts-kutxatilen fabrikazioa biltzen du.

468.5. epigrafea. Altzarigintzaren ondoko iharduerak (akabera, bernizketa, tapizketa, urreztaketa, etab.).

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 7,055882 euro.
- kW bakoitzeko: 4,237135 euro.

OHARRA: Epigrafe honek akabera, bernizketa, pintaketa, lakadura, urreztaketa, tapizketa, janzketa eta zurezko altzarigintzaren bestelako eragiketa osagarriak biltzen ditu.

47. ELKARTZEA. PAPERGINTZA ETA PAPERGAIEEN FABRIKAZIOA: ARTE GRAFIKOAK ETA EDIZIOA

471. TALDEA. PAPER-OREAREN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,709194 euro.
- kW bakoitzeko: 1,544601 euro.

OHARRA: Talde honek barruan hartzen du papera eta kartoia egiteko orearen fabrikazioa, berdin da zein den fabrikaziorako prozedura (mekanikoa, kimikoa edo erdi-kimikoa) eta lehengaia (egurra, zapiak, paper zaharrak, lastoa etab.). Halaber, barruan hartzen ditu orez egindako eta lehortutako ekoizkinak, fabrikaziorako makinatik bertatik ateratzen badira, ondoren inolako manipulaziorik egin gabe.

Geroagoko prozesuan ekoizkinok eskuztatu edo eraldatzen badira, 473.2. epigrafeari dagokion zerga ordaindu behar da.

Informazioa emateko soilik, subjektu pasiboak zehatz azalduko du zeintzuk jarduera egiten dituen, hurrengo epigrafeetan dagoen sailkapenaren arabera:

471.1. epigrafea. Paper ore.

471.2. epigrafea. Paper orearen fabrikaziotik sortzen diren azpiekoizkinak eta hondar ekoizkinak.

472. TALDEA. PAPER ETA KARTOIEN FABRIKAZIOA.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 0,709194 euro.
- kW bakoitzeko: 1,544601 euro.

OHARRA: Talde honek barruan hartzen du ondoren adieraziko diren paper-moten fabrikazioa: egunkari eta liburuetarako papera, zelofana, moldiztegiko eta kopiagintzako beste lan batzuetarako papera, idazteko papera, kartoi mehea, Kraft papera eta kartoia, zeta papera, komuneko papera, zigarroen papera, ontziak eta kaxak egiteko papera eta abar, baita paper ezkoztatua, satinatua, gomaztatua, iztukatua, ijetzia eta makinan akabera ematen zaien beste paper-mota batzuk ere, 471. epigrafean adierazitako eran egindako paper-orea lehortuz ateratzen den zelulosa modelatuzko albeoloak barne direla.

Informazioa emateko soilik, subjektu pasiboak zehatz azalduko du zeintzuk jarduera egiten dituen, hurrengo epigrafeetan dagoen sailkapenaren arabera:

472.1. epigrafea. Papera eta kartoia.

472.2. epigrafea. Paperaren eta kartoiaren fabrikazioan eta eraldakuntzan sortzen diren hondar-ekoizkinak.

473. TALDEA. PAPER ETA KARTOIAREN TRANSFORMAZIOA.

473.1. epigrafea. Kartoi uhindu eta kartoi uhinduzko gaien fabrikazioa.

Kuota:

- Langile bakoitzeko: 10,193165 euro.

- kW bakoitzeko: 11,473321 euro.

753.3. epigrafea. Hangare eta aireuntzien estazionamendu zerbitzuak.

Kuota:

- 100.000 biztanletik gorako udalerrietan: 384,43 euro.
- Gainerako udalerrietan: 256,28 euro.

753.4. epigrafea. Aireuntzien atoketa, garbiketa eta mantenimendu zerbitzuak.

Kuota:

- 100.000 biztanletik gorako udalerrietan: 384,43 euro.
- Gainerako udalerrietan: 256,28 euro.

753.5. epigrafea. Airportuen ustiapen osoa.

Kuota:

Udalaren gutxienezko kuota:

- Gehienez 2.000 m²: 0,967629 euro m²-ko.
- 2.001-4.000 m² 0,516870 euro m²-ko.
- 4.001-10.000 m²: 0,342577 euro m²-ko.
- 10.001-25.000 m²: 0,336567 euro m²-ko.
- 25.001-100.000 m²: 0,324547 euro m²-ko.
- 100.001-400.000 m²: 0,318536 euro m²-ko.
- 400.00 m² sobera: 0,312526 euro m²-ko.

OHARRAK:

- 1.a.** Epigrafe honetan matrikulatutako subjektu pasiboek kuota gehigarriak ordaindu gabe egin ahal izango dituzte talde honetako epigrafeetan sailkatutako zerbitzuak, 753.2. epigrafekoa izan ezik, eta bai honakoak ere: erregai eta labangaien hornikuntza, lurreko ibilgailuak erretiratzea, bide saneamendua, eraikin eta lokalen garbiketa, sute eta istripu kontrako gordailatze eta biltegiatzea, telekomunikazioak etab. Gainera, lokal barruko gune eta instalazioak gainontzekoei laga ahal dizkiete bertan iharduera ekonomikoak egiteko, edozein titulu dela bide eta kontraprestazioarekin.
- 2.a.** Epigrafe honetako kuotak kalkulatzeko, establezimenduen (aireportua) azalera osoa zenbatuko da, bulegoak, aparkaleku estalia, biltegiak etab. barne direla. Erabileraren lagapena edo beste tituluren bat dela bide gainontzekoek atzemandako aldeak ere zenbatu egingo dira. Ez dira zenbatuko, ostera, estali gabeko guneak, edozertarako erabiltzen direla ere, ezta hangareetako azalera ere.
- 3.a.** Erabileraren lagapena edo beste edozein titulu dela bide goian aipatutako establezimenduetako guneak iharduera ekonomikoak egiteko atzematen dituztenek iharduerari dagokion kuotaren arabera ordainduko dute zerga. Gune horiek, zergaren ondoretarako, ez dira lokaltzat joko, salbu eta ibilgailuak gorde eta jagoteko erabiltzen diren gune estaliak eta estaligabeak.
- 4.a.** Ez dira epigrafe honetan sartzen ostatu eta jatetxe zerbitzuak, ezta aparkalekuen ustiapena ere.

753.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren eta airezko garraioaren ondokoak diren beste zerbitzu batzu.

Kuota:

- 100.000 biztanletik gorako udalerrietan: 256,28 euro.
- Gainerako udalerrietan: 128,14 euro.

754. TALDEA. MERKATALGAIEN GORDAILUAK ETA BILTEGIRAKETA.

754.1. epigrafea. Gordailuak eta biltegi orokorrak.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 448,499272 euro.

754.2. epigrafea. Ibilgailuen gordailu eta biltegiak.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 288,323537 euro.

754.3. epigrafea. Zilo eta bikorretarako beste biltegi batzu.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 288,323537 euro.

754.4. epigrafea. Hozkelak.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 320,357482 euro.

754.5. epigrafea. Likidoen biltegi eta gordailuak.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 288,323537 euro.

754.6. epigrafea. Altzari gordailuak.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 140,961379 euro.

754.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren beste gordailu eta biltegi berezi batzu.

Kuota:

- Biltegi edo gordailu bakoitzeko: 288,323537 euro.

754. TALDE OSORAKO OHARRA: Talde honek besteren edonolako merkatalgaien gordailaketa eta biltegiraketa, zerbitzu independente legez, biltzen du (hozkelak, altzari gordailuak, ziloa, likidoetarako gordailuak eta merkatalgaietarako bestelako biltegiak orokorrean, automobiletarako gordailu ihardueragabea barne).

755. TALDEA. BIDAI AGENTZIAK.

Kuota:

- 160,18 euro.

OHARRA: Talde honek bidaiarien garraio, ostatu edota elikapenerako kudeaketa biltzen du. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

755.1. epigrafea. Beste bidai agentzia batzuei emandako zerbitzuak.

755.2. epigrafea. Bidai agentziek publikoari emandako zerbitzuak.

756. TALDEA. GARRAIOAREN IHARDUERA LAGUNGARRI ETA OSAGARRIAK (GARRAIOKO BITARTEKOAK).

Kuota:

- 100.000 biztanle baino gehiago duten herrietan: 226,18 euro.
- Gainerako herrietan: 151,21 euro.

756. TALDERAKO OHARRA: Talde honek garraioaren iharduera lagungarri eta osagarriak biltzen ditu, hala nola garraio agentziak, igaroleak, etab., aduana agenteak izan ezik, berauek Tarifa hauetako bigarren Sailatalean sailkatu behar baitira. Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

756.1. epigrafea. Garraio agentziak, igaroleak.

756.2. epigrafea. Untzien kontsignatariak.

756.9. epigrafea. Garraioen beste bitartekaritza-zerbitzuak.

757. TALDEA. ETXEALDAKETA ZERBITZUAK.

Kuota:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 100.000 biztanletik gorako udalerrietan: 140,96 euro.
- Gainerako udalerrietan: 96,11 euro.

Probintziaren kuota:

- 339,58 euro.

Estatuaren kuota:

- 474,13 euro.

76. ELKARTZEA. TELEKOMUNIKABIDEAK

761. TALDEA. TELEFONO ZERBITZUAK.

761.1. epigrafea. Telefonía finkoaren zerbitzua.

Kuota:

Gutxieneko udal kuota:

- 1.000 abonatu edo zatikiko: 62,20 euro.

Probintziaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

Estatuaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

761.2. epigrafea. Telefonía mugikorreko zerbitzua.

Estatuaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatikiko: 137,48 euro.

761. talde osorako oharra: Abonatuak kalkulatzeko, telefonía finkoko edo mugikorreko operadoreetako bakoitzaren bezero guztiak hartuko dira kontuan.

769. TALDEA. TELEKOMUNIKAZIOKO BESTE ZERBITZU BATZU.

Estatuaren kuota:

- 1.000 abonatu edo zatikiko: 219,447.550 euro.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

769.1. epigrafea. Ibilgailu higikorrez, untzi edo airezko nabigaziorako aparatuez eta haien artean emandako telekomunikazioko zerbitzuak.

769.2. epigrafea. Datuen teleigorpeneko zerbitzuak.

769.3. epigrafea. Satelite artifizialen bidezko telekomunikazioko zerbitzuak.

769.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren telekomunikazioko zerbitzu pribatu batzuek.

8. ZATIKETA. FINANTZ ERAKUNDEAK, ASEGURUAK, ENPRESEI EMANDAKO ZERBITZUAK ETA ALOGERAK

81. ELKARTZEA. FINANTZ ERAKUNDEAK

811. TALDEA. BANKA.

Kuota:

- Eragiketa horietakoren bat edo denak egiten duten/dituzten establezimendu edo lokal bakoitzeko:
- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 2.152,77 euro.
- 100.000 biztanletik 500.000ra bitarteko herrietan: 1.668,84 euro.
- 40.000 biztanletik 100.000ra bitarteko herrietan: 1.184,14 euro.
- 10.000 biztanletik 40.000ra bitarteko herrietan: 460,16 euro.
- Gainerako herrietan: 322,12 euro.

812. TALDEA. AURREZKI KUTXAK.

Kuota:

Eragiketa horietakoren bat edo denak egiten duten/dituzten establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 2.152,77 euro.
- 100.000 biztanletik 500.000ra bitarteko herrietan: 1.668,84 euro.
- 40.000 biztanletik 100.000ra bitarteko herrietan: 1.184,14 euro.
- 10.000 biztanletik 40.000ra bitarteko herrietan: 460,16 euro.
- Gainerako herrietan: 322,12 euro.

OHARRA: Talde honek aurrezki erakundeak biltzen ditu, hala nola Aurrezki Kutxen Espainiar Konfederakundea, aurrezki kutzak, baserritarren kutzak, kreditu kooperatibak, banku-fundazioak eta antzeko gainerako entitateak.

811 ETA 812. TALDEETARAKO BATERAKO OHARRA: Talde hauetan sailkatutako subjektu pasiboek jarduera hauek egin ahal izango dituzte:

- gordailuen edo berriro itzultzeko bestelako fondoen erakarketari doazkionak;
- mailegu eta kredituari doazkienak, kontsumorako kredituak, hipoteka kredituak eta merkataritzako transakzioen finantzaketakoak barne;
- baliabidedun nahiz baliabide gabeko "factoring"ari doazkionak;
- finantza errentamenduari doazkionak;
- ordainketa eragiketak, horien artean, besteak beste, ordainketa eta transferentzia zerbitzukoak;
- ordainketa bideen jaulkipena eta kudeaketa, hala nola kreditu txartelak, bidaia-txekeak edo kreditu txartelenak;
- abal eta bermeen emakida eta antzeko konpromisoen harpidetza;
- banketxeen arteko merkatuetako bitartekaritza,
- norberaren kontura edo bezeroen konturako xede hauetako eragiketak: negoziagai diren baloreak, moneta edo truke merkatuetako tresnak, eperako finantza tresnak, finantza aukerak eta etorkizuneko finantzak eta finantza trukaketak;
- jaulkitzailearen, zuzenean edo zeharka, konturako baloreen jaulkipenetan eta bitartekaritza partehartzea, haiek jarri eta jaulkipenen harpidetza bermatzean;
- enpresei hurrengo gaietako aholkularitza eta prestazioa eskaintzea: kapitalaren egitura, enpresaren estrategia, eskuraketak, bategiteak eta antzeko gaiak;
- ondareen kudeaketa eta ondare horien titularrei aholkularitza eskaintzea;
- tituluen bidezko ordezkartzako baloreen gordailuzain legez edo kontuko idaztoharren bidezko ordezkartzako baloreen administratzaile legez jardutea, balore horien titularren kontura;
- merkataritzako txostenak egitea;
- diru-kutxen alogera.
- finantza zerbitzuen bitartekaritza, hala nola aseguru eta pentsio fondoena;

- Administrazio Publikoekiko lankidetzaz zerbitzuak;
- aurrekoen osagarri edo lagungarri diren finantza zerbitzuak.

Aldi berean, eta aurrezki kutxei eta 812. taldean sailkatutako gainerako entitateei dagokienez, epigrafe honetako zergaren ordainketak kutxa eta entitate horiek ongintza-gizarte lanei berez dagozkien jarduerak ere biltzen ditu, inolako gainerako kuota ordaindu gabe.

819. TALDEA. BESTE FINANTZA-ERAKUNDE BATZUK.

819.1. epigrafea. Kreditu-etxeak.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 1.798,47 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 1.394,19 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 989,26euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 384,43 euro.
- Gainerako herrietan: 269,10 euro.

Oharra: Epigrafe horren barruan sartuta daude Kreditu Ofizialeko Etxea eta nekazaritzako industriako kooperatiben eta gordailuen kredituko atalak.

819.2. epigrafea. Kreditu-establezimendu finantzazkoak.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 1.281,42 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 1.003,35 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 710,19 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 277,90 euro.
- Gainerako herrietan: 200,71 euro.

Oharra: Epigrafe horren barruan sartuta daude honako jarduerok dituzten kreditu-etxeak:

- Mailegu eta kredituak ahalbidetzea, kontsumorako kreditua, hipoteka-kreditua eta merkataritzako salerosketen finantzaketa barne.
- Baliabidedun edo baliabiderik gabeko "factoring"a eta beraren jarduerak osagarri guztiak, hurrengo 819.4. epigrafera bilduak.
- Finantza-errentamendua eta beraren jarduerak osagarri guztiak, hurrengo 819.5. epigrafera bilduak.

- Kreditu-txartelen emisioa eta kudeaketa.
- Abalak eta bermeak ematea eta antzeko konpromezuen harpidetza.

819.3. epigrafea. Maileguen eta kredituaren jardura egiten duten finantzazko kreditu-establezimenduak.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 531,79 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 416,47 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 294,73 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 115,33 euro.
- Gainerako herrietan: 83,29 euro.

Oharra: Epigrafe horren barruan sartuta daude honako jarduerok dituzten kreditu-etxeak:

- Mailegu eta kredituak ahalbidetzea, kontsumorako kreditua, hipoteka-kreditua eta merkataritzako salerosketen finantzaketa barne.
- Kreditu-txartelen emisioa eta kudeaketa.
- Abalak eta bermeak ematea eta antzeko konpromezuen harpidetza.

819.4. epigrafea. "Factoring" jardura baliabideaz edo gabe egiten duten finantzazko kreditu-establezimenduak.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 531,79 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 416,47 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 294,73 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 115,33 euro.
- Gainerako herrietan: 83,29 euro.

Oharra: Epigrafe horren barruan sartuta daude honako jarduerok dituzten kreditu-etxeak:

- "Factoring"a baliabideaz edo gabe egitea eta beraren jardura osagarriak burutzea, hala nola, bezeroak ikertzea eta sailkatzea, zordunak kontabilizatzea eta, orokorrean, emanak zaizkien eta nazioko edo nazioarteko merkataritzako salerosketan sortutako kredituen administrazioa, ebaluazioa, segurtasuna eta finantzaketa ahalbidetzeko lagungarri den beste edozein jardura.
- Kreditu-txartelen emisioa eta kudeaketa.

- Abalak eta bermeak ematea eta antzeko konpromezuen harpidetza.

819.5. epigrafea. Finantza-errentamenduko jarduera egiten duten finantza-establezimenduak.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 531,79 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 416,47 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 294,73 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 115,33 euro.
- Gainerako herrietan: 83,29 euro.

Oharra: Epigrafe horren barruan sartuta daude honako jarduerok dituzten kreditu-etxeak:

- Finantza-errentamendua eta honako jarduera osagarriak egitea:
 - 1.a. Lagatako ondasunak artatu eta gordetzeko jarduerak.
 - 2.a. Egungo edo etorkizuneko finantza-errentamenduko eragiketa bati lotutako finantzaketa ematea.
 - 3.a. Finantza-errentamenduko eragiketen bitartekotza eta kudeaketa.
 - 4.a. Erostea aukerarekin edo gabe osagarri izan daitezkeen ez-finantzazko errentamenduko jarduerak.
 - 5.a. Aholkularitza eta txostena, merkataritzakoak.
- Kreditu-txartelen emisioa eta kudeaketa.
- Abalak eta bermeak ematea eta antzeko konpromezuen harpidetza.

819.6. epigrafea. Moneta-trukerako erakundeak.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 390,84 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 30,14 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 211,44 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 83,29 euro.
- Gainerako herrietan: 64,07 euro.

819.9. epigrafea. Beste n.c.o.p. finantza-erakunde batzuk.

Kuota:

Eragiketaren bat edo eragiketa guztiak egiten den edo diren establezimendu edo lokal bakoitzeko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 390,84 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 301,14 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 211,44 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 83,29 euro.
- Gainerako herrietan: 64,07 euro.

Oharra: Epigrafe horren barruan sartuta daude «Beste finantza-erakunde batzuk» izeneko 819. taldearen aurreko epigrafeetan espezifikatuta ez dauden finantza-erakundeak, hala nola, salmentak epeka finantzatzeko sozietateak, inbertsio higikorrekiko sozietateak eta fondoak eta abar.

82. ELKARTZEA. ASEGURUAK

821. TALDEA. BIZITZA ETA KAPITALIZAZIOAREN ENTITATE ASEGURATZAILEAK.

Kuota:

Eragiketarik baten bat edo guztiak burutzen direneko establezimendu edo lokaleko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 704,78 euro.
- 100.000 biztanletik 500.000ra bitarteko herrietan: 544,61 euro.
- 40.000 biztanletik 100.000ra bitarteko herrietan: 320,36 euro.
- 10.000 biztanletik 40.000ra bitarteko herrietan: 198,62 euro.
- Gainerako herrietan: 108,92 euro.

OHARRA: Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

821.1. epigrafea. Bizitza aseguruak.

821.2. epigrafea. Kapitalizazio aseguruak.

821.3. epigrafea. Bizitza eta kapitalizazioaren aseguru mistoak.

822. TALDEA. ERITASUN ETA ZENBAIT ARRISKUREN ENTITATE ASEGURATZAILEAK.

Kuota:

Eragiketarik baten bat edo guztiak burutzen direneko establezimendu edo lokaleko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 704,78 euro.
- 100.000 biztanletik 500.000ra bitarteko herrietan: 544,61 euro.
- 40.000 biztanletik 100.000ra bitarteko herrietan: 320,36 euro.

- 10.000 biztanletik 40.000ra bitarteko herrietan: 198,62 euro.
- Gainerako herrietan: 108,92 euro.

OHARRA: Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboak egiten dituen iharduera zehatzak aitortuko ditu, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

822.1. epigrafea. Sanitate urgazpen, eritasun eta istripu aseguruak (askeak).

822.2. epigrafea. Lurpeketa aseguruak.

822.3. epigrafea. Kalte materialen aseguruak.

822.4. epigrafea. Garraio aseguruak.

822.9. epigrafea. Bestelako aseguruak.

823. TALDEA. BESTELAKO ENTITATE ASEURATZAILEAK (MONTEPIOAK, PENSIO KUTXAK, ETAB.).

Kuota:

Eragiketetarik baten bat edo guztiak burutzen direneko establezimendu edo lokaleko:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 352,39 euro.
- 100.000 biztanletik 500.000ra bitarteko herrietan: 269,10 euro.
- 40.000 biztanletik 100.000ra bitarteko herrietan: 160,18 euro.
- 10.000 biztanletik 40.000ra bitarteko herrietan: 96,11 euro.
- Gainerako herrietan: 51,26 euro.

OHARRA: Talde honek Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziari lotu gabeko korporazioen entitate aseguratzaileak biltzen ditu, hala nola Lan Montepioak, Pentsio Kutxak, Mutualitateak, Montepioak eta funtzionarien, lanbide elkargoen eta bestelako elkarte edo korporazioen aurikuspen entitateak, pentsio fondoak merkataitzen dituzten entitatek, eta gainerako antzeko entitateak.

83. ELKARTZEA. FINANTZA ETA ASEURUETAKO LAGUNTZAILEAK. HIGIEZINETAKO IHARDUERAK

831. TALDEA. FINANTZ LAGUNTZAILEAK.

831.1. epigrafea. Balore higiezinaren erosketak, salmenta eta kontratazio zerbitzuak.

Kuota:

- 4.068,50 euro.

831.2. epigrafea. Produktuen kontratazioaren finantz zerbitzuak.

Kuota:

- 847,66 euro.

831.3. epigrafea. Banka-konpentsazio zerbitzuak.

Kuota:

- 847,66 euro.

831.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren finantz zerbitzuak.

Kuota:

- 847,66 euro.

832. TALDEA. ASEGURUETAKO LAGUNTZAILEAK.

832.1. epigrafea. Aseguru agentziak eta aseguru artekaritzak.

Kuota:

- 317,80 euro.

832.2. epigrafea. Aseguruetako tasezio eta tarifak egiteko zerbitzuak.

Kuota:

- 257,57 euro.

832.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren aseguruetako zerbitzu laguntzaileak.

Kuota:

- 100,60 euro.

833. TALDEA. Higiezinaren sustapena.

833.1. epigrafea. Lurren sustapena.

833.11. azpiepigrafea.

Salgai jarritako lurren kopurua eta azalera dena dela, kuota finkoa ordainduko du:

- 256,28 eurokoa.

833.12. azpiepigrafea.

Gainera, saldua den urbanizatu edo zatituriko metro koadro lur bakoitzeko:

- 0,162273 euro.

Oharra: Epigrafe honek norberaren izenean eta konturako lurren erosketa edo salmenta biltzen du, baita urbanizazioa, zatiketa, etab. ere, guzti hori lurak saltzeko edo adjudikatzeko xedez.

833.2. epigrafea. Eraikuntzen sustapena.

833.21. azpiepigrafea.

Salgai jarritako eraikuntzen kopurua eta azalera dena dela, kuota finkoa ordainduko du:

- 192,22 eurokoa.

833.22. azpiepigrafea.

Gainera, saldua den eraikitako edo eraikitzeke metro koadro bakoitzeko:

- 100.000 biztanle edo gehiagoko herrietan: 1,929249 euro.
- Gainerakoetan: 0,841417 euro.

Oharra: Epigrafe honek norberaren izenean eta konturako eraikuntza osoen edo partzialen erosketa edo salmenta biltzen du, zuzenean edo hirugarrenen bitartez eraikiak, guzti hori eraikuntzak saltzeko edo adjudikatzeko xedez.

833. talde osorako oharra:

1.a. Bi epigrafeotako kuotaren zati finkoa eskatuko da, beti ere, lurren edo eraikuntzen salmenta egiten bada zein ez, eta, higiezinaren sustapena egiteko xedez, jendeari irekitako lokal bakoitzean egindakotzat joko da, higiezinaren sustapen horren gai diren higiezinetan instalaturiko informazio eta salmenta bulegoetan barne.

2.a. Metro koadroen araberako kuotaren zatia besterenganaketak formalizatzerakoan eskatuko da, kontratu mota eta hitzartutako ordainkera dena dela. Subjektu pasiboak, aurre-aurreko urtean besterenganatu diren eraikitako edo eraikitzeke, urbanizatutako edo urbanizatzeko metro koadroen alta aitortzea aurkeztu beharko du eskudun zerga-Administrazioan egutegiko urte bakoitzeko lehen hilabetearen salmentarik egin ez denean alta aitortzen aurkeztu beharrik ez dagoela. Kasu honetan, jardueraren salmentaren gai diren ondasunak daudeneko udalerrian burutua dela ulertuko da.

Jarduerari urtarilaren lehenaz aurretik uzten bazaio, uztea gertatzen den urtean besterenganatu diren eraikitako edo eraikitzeke, urbanizatutako edo urbanizatzeko metro koadroen aitortzea baxa aitortzenarekin batera aurkeztu beharko da.

3.a. Talde honetan sailkaturiko jarduerak babes publikoko etxebizitzetarako legeriaren menpeko higiezinari dagozkienean, saltzen den eraikitako edo eraikitzeke metro koadro bakoitzeko kuota-zatia dagokionaren %50 izango da.

4.a. Talde honetako kuotak eraikitzeke jarduerari dagozkiekeenez bestekoak dira.

834. TALDEA. HIGIEZINEN JABETZA ETA INDUSTRI JABETZAREN INGURUKO ZERBITZUAK.

Kuota:

- 320,36 euro.

OHARRA: Talde honek lurren erosketa, salmenta edo errentamenduko bitartekoak biltzen ditu, hala nola, norberaren arriskuak gain hartu gabe eta gainontzekoen kontura ihardun gabe, higiezin eta higiezinaren zatien erosketa, salmenta, eraikuntza edo errentamendukoak ere. Hemen, besteak beste, higiezinaren jabetzaren inguruko zerbitzuak, higiezinaren tasazioa barne, industri jabetzaren ingurukoak, finkoen errentamendu agentziak, finkoen administratzaileen inguruko zerbitzuak, etab., sailkatzen dira, beti ere Tarifa hauetako Bigarren Sailatalean sailkatu behar ez direnean.

84. ELKARTZEA. ENPRESEI EMANDAKO ZERBITZUAK

841. TALDEA. ZERBITZU JURIDIKOAK.

Kuota:

- 549,73 euro.

842. TALDEA. FINANTZ ETA KONTABILITATE ZERBITZUAK.

Kuota:

- 532,44 euro.

OHARRA: Talde honek hasiera batetan enpresa eta kontabilitate erakundeei emandako honako zerbitzu hauek biltzen ditu: liburuen kontularitza, kontuen azterlaritza, auditoria, fisko, ekonomi eta finantz gaia, eta fisko eta kontabilitate aholkularitzako beste zenbait zerbitzu independente.

843. TALDEA. ZERBITZU TEKNIKOAK (INGENIARITZA, ARKITEKTURA, HIRIGINTZA, ETAB.).

843.1. epigrafea. Ingeniaritzako zerbitzu teknikoak.

Kuota:

- 467,72 euro.

843.2. epigrafea. Arkitektura eta hirigintzako zerbitzu teknikoak.

Kuota:

- 743,22 euro.

843.3. epigrafea. Geologi azterlan eta ikerlanetako zerbitzu teknikoak.

Kuota:

- 299,22 euro.

843.4. epigrafea. Topografiako zerbitzu teknikoak.

Kuota:

- 265,90 euro.

843.5. epigrafea. Delineaketako zerbitzu teknikoak.

Kuota:

- 265,90 euro.

843.6. epigrafea. Ibilgailuen azterketa teknikoa.

Kuota:

- 290,40 euro.

Oharra: Epigrafe honek barruan hartzen ditu ibilgailuen azterketa teknikoak egiteko zerbitzu publikoari buruzko arautegian adierazitako jarduera guztiak, emakida-eremuan aztergune mugikorrek erabiliz egiten diren azterketak barne direla.

843.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren zerbitzu teknikoak.

Kuota:

- 273,59 euro.

844. TALDEA. PUBLIZITATE, HARREMAN PUBLIKO ETA ANTZERAKO ZERBITZUAK.

Kuota:

- 10 langilerainoko enpresak: 185,81 euro.
- 11 langiletik 30era bitarteko enpresak: 378,02 euro.
- 31 langiletik 50era bitarteko enpresak: 672,75 euro.
- 51 langiletik 100era bitarteko enpresak: 1.371,12 euro.
- 100 langiletik gorako enpresak: 1.838,84 euro.

OHARRA: Talde honek publizitateko zerbitzugintza biltzen du, iragarki, kartel, liburuska, publizitate filme eta abarren bidez, prentsa, irrati, telebista, aietiko publizitate eta bestelako bideen bitartez. Hemen, iragarki edo publizitate eta informazioko kanpainen sorkuntza eta hedapenean, hauteskunde progagandan, erakundezko edo jendearentzako komunikazioan eta korporazio irudigintzan diharduten publizitate agentzia edo enpresak sailkatzen dira, bai eta modalitate ezberdinetako gainerako publizitate enpresak ere, hala nola publizitate-bideetako eskusibistak, kanpo publizitatea, zuzeneko publizitatea eta zuzeneko marketingna, banatzaileak eta erosketa-zentralak, publizitate azterlanak, etab. Halaber, talde honetan sailkatzen dira harreman publikoetan, publizitate salmenten sustapenean, publizitate opari eta erakargarrietan diharduten enpresak eta, oro har, publizitateko edozein zerbitzu independente.

845. TALDEA. GAINONTZEKOEN KONTURAKO USTIAPEN ELEKTRONIKOA.

Kuota:

- 208,24 euro.

OHARRA: Talde honek honako zerbitzu hauek biltzen ditu: prozesuen azterketa eta analisiak tratamendu mekanikorako, ekipo elektronikoetarako programazioa, ordenagailuentzako sarrera-euskarrietako datu erregistroa, programen salmenta, gainontzekoen konturako datu prozesua eta datu gertuketa eta taulagintzako beste zenbait zerbitzu independente.

846. TALDEA. MERKATUARI BURUZKO AZTERLANETAKO ENPRESAK.

Kuota:

- 208,24 euro.

OHARRA: Talde honek merkatuari buruzko azterlanak, eritzi azterlanak, erosketa ohiturei buruzkoak, eta merkatal informazio eta ikerkuntzako beste zenbait zerbitzu independente biltzen ditu.

847. TALDEA. ITAUN ENPRESAK.

Kuota:

- 1.000,15 euro.

OHARRA: Talde honek industri eta ekonomi iharduera orokorreko buruzkohlularitza, informazioa eta kontsultentzako erantzuna biltzen ditu.

848. TALDEA. Zerbitzu integralak.

848.1. epigrafea. Postako eta telekomunikazioetako zerbitzu integralak

Estatuaren kuota: 12.020,24 euro.

Oharrak:

1. Talde honek bere barruan honako hauek hartzen ditu: posta zerbitzuak, hau da, mota guztietako korrespondentzia bidalketak eta posta bidalketak bildu, jaso, sailkatu, tratatu, bideratu, garraiatu, banatu eta ematea; telegrama, telex, posta eta telegrafo igorpen zerbitzuak eta horien antzeko beste guztiak.
2. Kuota gehigarriak ordaindu gabe, posta zigiluen eta frankeoko gainerako zeinuen jaulkipenari eta banaketari buruzko jarduketak egin ahal izango dira.

848.2. epigrafea. Bulego-zerbitzu malguak, coworking-a, eta negozio-zentroak.

- Gutxieneko udal kuota: 202 euro.
- Probintziaren kuota: 20.000 euro.
- Estatuaren kuota: 35.000 euro.

Oharra: Epigrafe honek barne hartzen ditu bulego malguak —coworking-a— eta negozio-zentroek emandako zerbitzuak, zeinek bezeroei (enpresak zein profesionalak) eskaintzen baitiete jarduera garatzeko behar duten azpiegitura: lan-espazioak, bulegoak eta bilera-, prestakuntza- edo hitzaldi-aretoak (ekipamendu osoarekin), ekitaldietarako aretoak, lanpostu malguak edo finkoak, komunikazio- zerbitzua, bideokonferentzia eta Internetarako sarbidea, bulego birtualak, dokumentuen gestioa eta korrespondentzia, idazkaritza-zerbitzuak, catering-a, ofimatika eta abar.

849. TALDEA. BESTE ATALETAN BILDU EZ ETA ENPRESEI ESKAINITAKO ZERBITZUAK.

849.1. epigrafea. Zorren kobrantza eta fakturen gertuketa.

Kuota:

- 215,28 euro.

849.2. epigrafea. Idazki, plano eta agirien berregintzako mekanografi, takigrafi zerbitzuak.

Kuota:

- 177,61 euro.

849.3. epigrafea. Itzulpen zerbitzuak eta antzekoak.

Kuota:

- 187,73 euro.

849.4. epigrafea. Zaintza, segurtasun eta babes zerbitzuak.

Kuota:

- 266,54 euro.

849.5. epigrafea. Mezularitza, matalgo eta banaketa zerbitzuak eta gutunen manipulazio zerbitzua.

Kuota:

- 208,24 euro.

849.6. epigrafea. Pertsonalaren enplegaketa eta hornidura zerbitzuak.

Kuota:

- 344,70 euro.

849.7. epigrafea. Administrazio kudeaketako zerbitzuak.

Kuota:

- 488,23 euro.

849.8. epigrafea. Arlo anitzeko zerbitzu trinkoak langileria arloan.

Kuota:

Udalaren gutxieneko kuota:

- 6.407,09 euro.

Probintziaren kuota:

- 32.035,45 euro.

Estatuaren kuota:

- 96.106,34 euro.

OHARRA: Epigrafe honetan sartzen da subjektu pasibo batek hainbat zerbitzu eskaintzea, eta bereziki langile egokiak jartzea, baldin eta zerbitzuok 84, 91 eta 92. elkartzeetan eta 973, 974, 979, 983 eta 989. taldeetan sailkatuta badaude (horiek guztiak Tarifetako 1. sailatalean daude). Ez da epigrafe honetan sartzen, aldiz, higiezinak edo trakzio mekanikoko ibilgailuak, tren, itsasontzi, aireontzi, jolas-makina eta abarreko elementu materialak erabiliz zerbitzuak zuzenean ustiatzea.

849.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren zerbitzu independenteak.

Kuota:

- 208,24 euro.

85. ELKARTZEA. ONDASUN HIGIGARRIEN ALOGERA

851. TALDEA. NEKAZAL MAKINERIA ETA EKIPOAREN ALOGERA.

Kuota:

- 169,15 euro.

OHARRA: Talde honek nekazaritza eta abeltzantzarako makineria eta ekipoen alogera biltzen du.

852. TALDEA. ERAIKINTZARAKO MAKINERIA ETA EKIPOAREN ALOGERA.

Kuota:

- 192,22 euro.

OHARRA: Talde honek eraikintza eta obra zibiletarako makineria eta ekipoen alogera biltzen du.

853. TALDEA. KONTABILITATE, BULEGO ETA KALKULU ELEKTRONIKORAKO MAKINERIA ETA EKIPOAREN ALOGERA.

Kuota:

- 179,40 euro.

OHARRA: Talde honek kontabilitate, bulego eta kalkulu elektronikorako makineria eta ekipoen alogera biltzen du (erosteko aukerarekin edo gabe eta zerbitzu espezializatu lege), alogera honek aipatu makineria eta ekipoa erabiltzen dituen pertsonalaren zerbitzuak barnesartzen ez dituelarik.

854. TALDEA. GIDARIRIK GABEKO AUTOAK ALOKATZEA.

854.1. epigrafea. Gidaririk gabeko autoak alokatzea.

Auto bakoitzeko:

Udaleko gutxienerako kuota:

- 7,410479 euro.

Herrialdeko kuota:

- 25,753369 euro.

Estatuko kuota:

- 32,196218 euro.

Oharra: Epigrafe horretan ez dago jasota gidaririk gabeko autoen alokairua, «renting» araubidean.

854.2. epigrafea. Gidaririk gabeko autoak alokatzea, «renting» araubidean.

Auto bakoitzeko:

Udaleko gutxienerako kuota:

- 7,410479 euro.

Herrialdeko kuota:

- 25,753369 euro.

Estatuko kuota:

- 32,196218 euro.

855. TALDEA. BESTE GARRAIOBIDE BATZUREN ALOGERA.

855.1. epigrafea. Mota guztietako aireuntzien alogera. Aireuntzi bakoitzeko.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 51,260322 euro.

Probintziaren kuota:

- 128,141791 euro.

Estatuaren kuota:

- 192,215691 euro.

855.2. epigrafea. Untzien alogera.

Untzi bakoitzeko:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 28,836561 euro.

Probintziaren kuota:

- 76,887479 euro.

Estatuaren kuota:

- 115,328213 euro.

855.3. epigrafea. Bizikleten alogera.

Kuota:

- 2,151623 euro bizikleta bakoitzeko.

855.9. epigrafea. Beste ataletan bildu ez diren garraiobideen alogera.

Garraiobide bakoitzeko:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 25,633166 euro.

Probintziaren kuota:

- 64,073900 euro.

Estatuaren kuota:

- 96,107846 euro.

851, 852, 854 eta 855 TALDEETARAKO OHARRA: Talde horietan sailkatutako ondasun higikorren alogera langile iraunkorrekin egiten denean, talde horietako kuotak ehuneko 50 gehituko dira.

856. TALDEA. KONTSUMOKO ONDASUNEN ALOGERA.

856.1. epigrafea. Kontsumoko ondasunen alogera.

Kuota:

- 94,19 euro.

OHARRA: Epigrafe honek honako hauen alogera biltzen du, zerbitzu espezializatu legez: jantziak; etxerako gai eta aparatuak; arropa zuria, ohekoa, mahaikoa, etab.; kirol gaien alogera (alak, kanoak, bizikletak, irristailuak, etab.), iharduera hau kirol instalazio baten ustiapenari lotuta egon ezik: eta kontsumoko beste ondasun batzuren alogera, bideoke filmak izan ezik.

856.2. epigrafea. Bideoke filmeen alogera.

Kuota:

- 220,41 euro.

OHARRA: Epigrafe honek bideoke filmeen txikizkako salmentarako ahalmena emango du.

857. TALDEA. NEURGAILUEN ALOGERA.

857.1. epigrafea. Baskula, balantza eta pisatu eta neurtzeko gainerako aparatuen alogera, neurri zenbakailu izenekoak izan ezik.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 38,45 euro.

Probintziaren kuota:

- 96,11 euro.

Estatuaren kuota:

- 134,55 euro.

857.2. epigrafea. Neurritako pisaketa zerbitzua aparatuen alogerarik gabe.

Udalaren gutxienezko kuota:

- 38,45 euro.

Probintziaren kuota:

- 96,11 euro.

Estatuaren kuota:

- 134,55 euro.

857.3. epigrafea. Automobiletarako zenbakailuen alogera.

25 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Estatuaren kuota:

- 12,819588 euro.

857.4. epigrafea. Elektraenergiaren zenbakailuen alogera, irakurketa eta artapena.

1.000 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 70,480689 euro.

Probintziaren kuota:

- 70,480689 euro.

Estatuaren kuota:

- 70,480689 euro.

857.5. epigrafea. Elektraenergiaren zenbakailuen goren mugako irakurketa eta artapena.

1.000 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 51,260322 euro.

Probintziaren kuota:

- 51,260322 euro.

Estatuaren kuota:

- 51,260322 euro.

857.6. epigrafea. Gas zenbakailuen alogera, irakurketa eta artapena.

1.000 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Udalaren gutxieneko kuota:

- 70,480689 euro.

Probintziaren kuota:

- 70,480689 euro.

Estatuaren kuota:

- 70,480689 euro.

857.7. epigrafea. Gas zenbakailuen goren mugako irakurketa eta artapena.

1.000 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Udalaren gutxieneko kuota:

- 51,260322 euro.

Probintziaren kuota:

- 51,260322 euro.

Estatuaren kuota:

- 51,260322 euro.

857.8. epigrafea. Ur zenbakailuen alogera, irakurketa eta artapena.

1.000 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Udalaren gutxieneko kuota:

- 4,489560 euro.

Probintziaren kuota:

- 4,489560 euro.

Estatuaren kuota:

- 4,489560 euro.

857.9. epigrafea. Ur zenbakailuen goren mugako irakurketa eta artapena.

1.000 aparatuko edo horretarako destinatutako zatikiko:

Udalaren gutxieneko kuota:

- 3,209404 euro.

Probintziaren kuota:

- 3,209404 euro.

Estatuaren kuota:

- 3,209404 euro.

857.4 eta 857.9 bitarteko epigrafeetarako oharra: lharduera egiten duen enpresa elektraenergia, gas edo uraren banatzailea bada, kuota kasuan kasuko epigrafean adierazitakoaren erdia izango da.

859. TALDEA. BESTE ATALETAN BILDU EZ DIREN ONDASUN HIGIGARRIEN ALOGERA (PERTSONAL IRAUNKORRIK GABE).

Kuota:

- 205,03 euro.

OHARRA: Talde honek «Ondasun higigarrien alogera», (85) elkartzeko aurreko taldeetan zehaztu ez diren ondasun higigarrien alogera biltzen du (erosteko aukerarekin edo gabe eta zerbitzu espezializatu legez), hala nola meatzaritza eta petroliorako makineria eta ekipoak, transformazio industriarakoa, artikulak saltzeko makinak eta ekipoak, etab.; alogera honek aipatu makineria eta ekipo erabiltzen dituen pertsonalaren zerbitzuak barnesartzen ez dituelarik.

86. ELKARTZEA. ONDASUN HIGIEZINEN ALOGERA

861. TALDEA. HIRI-ONDASUN HIGIEZINEN ALOGERA.

861.1. epigrafea. Etxebizitzen alogera.

Kuota:

- Ondasun Higiezin gaineke Zergaren ondorioetarako etxebizitzetako katastroko balioaren 100eko 0,10a.

OHARRAK:

1.a. Honako epigrafe honek etxebizitzara destinatutako era guztietako higiezin alogera biltzen du, erosteko aukerarekin edo gabe.

2.a. Iharduera honen zioz 640,708954 euro baino gutxiagoko kuotak dituzten subjektu pasiboek zero kuotaren araberako zerga ordainduko dute.

861.2. epigrafea. Industri lokalen alogera eta beste ataletan bildu ez diren beste zenbait alogera.

Kuota:

- Higiezin gainerako Zergaren ondorioetarako industri lokalei eta epigrafe honen barruko gainerako ondasunei esleitutako katastroko balioaren 100eko 0,10a.

OHARRAK:

1.a. Honako epigrafe honek lurren, industri eta negozioetarako lokalen, eta aurreko epigrafean sailkatu ez diren gainerako hiri ondasun higiezin errentamendua biltzen du.

2.a. Iharduera honen zioz 640,708954 euro baino gutxiagoko kuotak dituzten subjektu pasiboek zero kuotaren araberako zerga ordainduko dute.

862. TALDEA. LANDA-ONDASUN HIGIEZINEN ALOGERA. Kuota: Ondasun Higiezin gainerako Zergaren ondorioetarako landa-ondasunei esleitutako katastroko balioaren 100eko 0,10a.

Oharrak:

1.a. Honako talde honek mota guztietako landa-ondasun higiezin alogera biltzen du, erosteko aukerarekin edo gabe.

2.a. Iharduera honen zioz 640,708954 euro baino gutxiagoko kuotak dituzten subjektu pasiboek zero kuotaren araberako zerga ordainduko dute.

86. Elkartze osorako Oharra. Elkartze honetako epigrafeetan matrikulaturiko subjektu pasiboek estatuaren kuotaren araberako zerga ordainduko dute.

9. ZATIKETA. BESTE ZERBITZU BATZU

91. ELKARTZEA. NEKAZARITZA, ABELTZANTZA, OIHANGINTZA ETA ARRANTZA ZERBITZUAK

911. TALDEA. NEKAZAL ETA ABELTZANTZAZKO ZERBITZUAK.

Kuota:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 56,39 euro.

Probintziaren kuota:

- 169,79 euro.

Estatuaren kuota:

- 224,25 euro.

OHARRA: Talde honek ustiapenen titularrak ez bestelako pertsonen nahiz Entitateek, tresneriarekin nahiz tresneriarik gabe, nekazaritza eta abeltzantzarekiko zerbitzuak ematea biltzen du, haien kontura, eta ustiapenean bertan burutu izaten direnak, hala nola, lugintza eta ganadu ustiapeneko zerbitzuak, lurraren prestaketa, inausketa, garastada, sanitate ekoizkinen aplikazioa, ereinketa, etabar, alegia; bilketa zerbitzuak eta uzten prestaketa; lorategi eta parkeetako landaketa eta mantenu zerbitzuak eta nekazal eta abeltzantza bestelako zerbitzuak. Talde honek ez du biltzen ganaduaren integrazioa.

912. TALDEA. Basozaintzako zerbitzuak eta arrantzari eta akuikulturari loturiko zerbitzuak.

Kuota:

Udalaren gutxienezko kuota:

- 56,39 euro.

Probintziaren kuota:

- 169,79 euro.

Estatuaren kuota:

- 224,25 euro.

OHARRAK:

1.a. Talde honetan ustiapenen titularrak ez beste pertsona batzuek edo erakundeek egindako basozaintzako zerbitzuak daude, normalean ustiatzean bertan egiten direnak, hala nola, izurriteen aurkako borroka, suteen aurkako defentsa, etabar., bai eta arrantzari eta akuikulturari lotuta dauden zerbitzuak ere, ustiapenen titularrak ez beste pertsona batzuek edo erakundeek emanikoak.

2.a. Sare-konponketa, arrain-zamaketa, hustuketa eta lotura zerbi-tzuek, neskatilek edo arrain lotzaileek eurek zuzenean eginak izanez gero, zero kuotaren zioz ordainduko dute zerga.

913. TALDEA. ARRANTZA ETA URZANTZAREKIN ZERIKUSIRIK DUTEN ZERBITZUAK.

92. ELKARTZEA. SANEAMENDU, GARBIKETA ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK. SUTEEN AURKAKO ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK

921. TALDEA. BIDE PUBLIKOEN SANEAMENDU ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK.

921.1. epigrafea. Kale, bide publiko eta lorategien garbiketa zerbitzuak.

Kuota:

- 224,25 euro.

921.2. epigrafea. Zarama eta hondakinen bilketa zerbitzuak.

Kuota:

- 194,14 euro.

921.3. epigrafea. Zizaien desagertarazpena eta edozein motatako desinfektaketa.

Kuota:

- 39,09 euro.

921.4. epigrafea. Estolderia, hondakin uren ebaluaketa eta arazketa zerbitzua.

Kuota:

- 224,25 euro.

921.5. epigrafea. Zarama eta hondakinen errausketa eta desagertarazpen zerbitzuak.

Kuota:

- 48,69 euro.

921.6. epigrafea. Ingurugiro babes eta giroketa zerbitzuak; hots, dardarako, kutsadura eta abarren aurka.

Kuota:

- 64,07 euro.

921.7. epigrafea. Suteen aurkako eta istripuekiko babes zerbitzuak.

Kuota:

- 194,14 euro.

921.8. epigrafea. Kanposantuen administrazio zerbitzuak.

Kuota:

- 76,89 euro.

921.9. epigrafea. Bestelako ataletan ez bildutako saneamendu zerbitzuak eta antzekoak.

Kuota:

- 76,89 euro.

922. TALDEA. GARBIKETA ZERBITZUAK.

Kuota:

- 184,53 euro.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboek egiten dituzten iharduera zehatzak aitortuko dituzte, hurrengo epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

922.1. epigrafea. Barrualdeetako garbiketa zerbitzuak (eraikinak, bulegoak, merkatal establezimenduak, egoitzak, sanitate egoitzak eta industria establezimenduak).

922.2. epigrafea. Garbiketa zerbitzu espezializatuak (kristalak, tximiniak, etabar).

93. ELKARTZEA. HEZKUNTZA ETA IKERKUNTZA

931. TALDEA. IRAKASKUNTZA ARAUTUA.

931.1. epigrafea. Eskolaurreko heziketako irakaskuntza, soil-soilik.

Kuota:

- 191,58 euro.

931.2. epigrafea. Oinarrizko Hezkuntzako Irakaskuntza: Lehen mailako Hezkuntza edo/eta Derrigorrezko Bigarren mailako Hezkuntza soil-soilik.

Kuota:

- 208,24 euro.

931.3. epigrafea. Batxilergoko Hezkuntza, Unibertsitaterako Sarbidea, Lanbide Hezkuntza eta Maila Ertaineko eta Goi Mailako Lanbide Hezkuntza Zehatzeko Trebakuntzako Zikloak, soil-soilik.

Kuota:

- 223,49 euro.

Oharra: Epigrafe honek Gizarte Segurantzarekiko Egitarauak irakasteko ahalmena ematen du.

931.4. epigrafea. Aurreko epigrafeetan bildutako modalitateetarikoa bat baino gehiagoko irakaskuntza.

Kuota:

- 415,19 euro.

931.5. epigrafea. Goimailako hezkuntzako irakaskuntza.

Kuota:

- 247,12 euro.

931. talde osorako oharrak:

- 1.a.** Talde honetan sailkatutako ihardueretan ikasleei liburuak edota idazmahaiko gaiak eskuratzen bazaizkie, kasuan kasuko epigrafean adierazitako kuota ehuneko 25 gehituko da.
- 2.a.** Talde honetan sailkatutako ihardueretan mantenu erdiko zerbitzua egiten bada, kasuan kasuko epigrafean adierazitako kuota ehuneko 25 gehituko da.
- 3.a.** Talde honetan sailkatutako ihardueretan barnetegiko zerbitzua egiten bada, kasuan kasuko epigrafean adierazitako kuota ehuneko 50 gehituko da. Horrelakoetan ez da aplikatuko aurreko 2. atalean adierazitako gehikuntza.

932. TALDEA. LANBIDE HEZIKETA ETA TREBAKUNTZA ETA GOIMAILAKO HEZIKETAKO IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA.

932.1. epigrafea. Lanbide heziketa eta trebakuntzako, ez goimailakoa, irakaskuntza.

Kuota:

- 191,58 euro.

932.2. epigrafea. Goimailako lanbide heziketa eta trebakuntzako irakaskuntza.

Kuota:

- 281,92 euro.

932. TALDERAKO OHARRA: zereginetako prestakuntzan eta prestakuntza etengabea egiten diren iharduerak ez dira irakaskuntzako ihardueratzat joko, eta ez dira zerga honetan inongo kuotaren sortzaile izango, baldin eta soil-soilik Enplegurako Nazio Erakundeak edo Europako Gizarte Fondoak edo erakunde biok batera finantzatzen badituzte.

933. TALDEA. IRAKASKUNTZAKO BESTE IHARDUERA BATZU.

933.1. epigrafea. Lurgaineko eta urgaineko ibilgailuak, nahiz aeronautikoak, etabar gidatzeko irakaskuntza.

Kuota:

- 199,90 euro.

933.2. epigrafea. Atzerrian egiteko ikastaroen eta ikasketen sustapena.

Kuota:

- 224,25 euro.

OHARRA: Eskaintza honetan atzerrian egin daitezkeen ikastaro eta ikasketen eskaintza, informazioa eta aholkularitza jasotzen da, baina erakundeek ez dute baimenik ikasleen joan-etorrien inguruan.

Gisa berean, epigrafe honetan informazioa eta aholkularitza jasotzen da, batik bat, Espainian atzerrian egindako ikastaroak aintzat hartzeko, bai eta Administrazioaren organo eskudunetan atzerrian egindako ikasketak homologatu edo baliozkotzeko aurkezpena egiteko ere, baldin eta horiek subjektu pasiboak sustatu baditu, baina tituluak homologatu edo baliozkotzeko izapidetza orokorra egiteko baimenik eman gabe.

933.9. epigrafea. Irakaskuntzako beste iharduera batzu, bestelako ataletan bildu ez direnak, hala nola, hizkuntzak, mozketak eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposaketa eta antzekoen prestakuntza.

Kuota:

- 224,25 euro.

934. TALDEA. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRETIK KANPOKO IRAKASKUNTZA.

Estatuaren kuota:

- 192,22 euro.

935. TALDEA. IKASTETXE NAGUSIAK ETA IKASLE EGOITZAK.

935.1. epigrafea. Ikastetxe nagusiak.

Kuota:

- 193,50 euro.

935.2. epigrafea. Ikasle Egoitzak.

Kuota:

- 155,06 euro.

936. TALDEA. IKERKUNTZA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOA.

Kuota:

- 384,43 euro.

Jakiteko bakarrik, subjektu pasiboek egiten dituzten iharduera zehatzak aitortuko dituzte, honako epigrafe hauetan dagoen sailkapenaren arabera:

936.1. epigrafea. Zientzia zehatzetako eta natur zientzietako ikerkuntza.

936.2. epigrafea. Medikuntza zientzietako ikerkuntza.

936.3. epigrafea. Nekazal ikerkuntza.

936.4. epigrafea. Gizarte zientzia, giza zientzia eta zientzia juridikoetako ikerkuntza.

936.5. epigrafea. Industria teknikako ikerkuntza.

936.9. epigrafea. Zientzia eta teknika arloko beste ikerkuntza batzu, bestelako ataletan bildu ez direnak.

94. ELKARTZEA. SANITATEA ETA ALBAITARITZA ZERBITZUAK

941. TALDEA. GIZA MEDIKUNTZAKO OSPITALAK, KLINIKAK ETA SENDATEGIAK.

941.1. epigrafea. Ospital orokorrak.

Kuota:

- Gaiso batentzako ohe edo instalakuntza bakoitzeko: 6,863558 euro.

941.2. epigrafea. Ospital espezializatuak (kirurgiazkoak, eritetxeak, haurrentzakoak, psikiatrikoak, etabar).

Kuota:

- Gaiso batentzako ohe edo instalakuntza bakoitzeko: 9,171445 euro.

942. TALDEA. BESTELAKO SANITATE ESTABLEZIMENDUAK, BAINUETXEAK ETA URGEZA ETA URGAZIETAKO BAINUETXEAK.

942.1. epigrafea. Itaundegi medikoak, sorostetxeak, sanitetegiak eta premiazko zentru klinikoak.

Kuota:

- 551,01 euro.

942.2. epigrafea. Bainuetxeak eta bainutegiak.

Kuota:

- 282,56 euro.

OHARRA: Epigrafe honek metalurak edo osasun urak hornitzen dituzten establezimenduak, urmahelak edo igerilekuak biltzen ditu, baita ere errusiar bainuak, lurren bainuak, etabar.

942.9. epigrafea. Internadurik gabeko bestelako sanitate zerbitzuak, talde honetan ez sailkatutakoak.

Kuota:

- 220,41 euro.

943. TALDEA. ESTOMATOLOGIA ETA ODONTOLOGIA ITAUNDEGIAK ETA KLINIKAK.

Kuota:

- 631,24 euro.

944. TALDEA. NATUROPATIA ZERBITZUAK, AKUPUNTURA ETA BESTE ZERBITZU PARASANITARIO BATZU.

Kuota:

- 531,79 euro.

945. TALDEA. ABEL ITAUNDEGI ETA KLINIKAK.

Kuota:

- 432,10 euro.

95. ELKARTZEA. URGAZPENA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

951. TALDEA. HAUR, GAZTE, MINUSBALIODUN FISIKO ETA ADINEKOENTZAKO EGOITZETAKO URGAZPENA ETA GIZARTE ZERBITZUAK.

Kuota:

- 94,19 euro.

OHARRA: Establezimendu hauek erabiltzaile bakoitzari emandako zerbitzuengatik urteko 601,012104 euro baino gutxiago kobratzen dutenean, zero kuotaren arabera ordainduko dute zerga.

952. TALDEA. HAUR, GAZTE, MINUSBALIODUN FISIKO ETA ADINEKOENTZAKO EGOITZETAKO URGAZPENA ETA GIZARTE ZERBITZUAK.

Kuota:

- 58,31euro.

96. ELKARTZEA. JOLAS ETA KULTUR ZERBITZUAK

961. TALDEA. ZINE FILMEEN EKOIZPENA ETA ZINE FILMEEKIN (BIDEOA BARNE) ZERIKUSIRIK DUTEN ZERBITZUAK.

961.1. epigrafea. Zine filmeen (bideoa barne) ekoizpena.

Kuota:

- 281,91 euro.

OHARRA: Epigrafe honek ekoiztutako filmeak (bideoak barne) saldu, berregin eta alokatzeko ahalmena ematen du, ekoizpenarekin zerikusirik duten iharduera guztiak barruan hartzen dituelarik.

961.2. epigrafea. Zine filme nahiz zinten (bideoenak barne) bikoizketa, sinkronizazioa eta muntaia, beti ere enpresa ekoizleak berak eginak ez badira.

Kuota:

- 176,20 euro.

961.3. epigrafea. Zine filme nahiz zintetarako eszenako dekorazioak, beti ere enpresa ekoizleak berak eginak ez badira.

Kuota:

- 94,19 euro.

962. TALDEA. ZINE ETA BIDEO FILMEEN BANAKETA.

962.1. epigrafea. Zine filmeen banaketa eta salmenta, zinta magnetoskopikoaren euskarriko filmeak izan ezik.

Kuota:

- 140,96 euro.

OHARRA: Epigrafe honek filmeak alokatzeko ahalmena ematen du.

962.2. epigrafea. Zine magnetoskopikoaren euskarriko zine filmeen handizkako banaketa eta salmenta.

Kuota:

- 196,06 euro.

963. TALDEA. ZINE ETA BIDEO FILMEEN ERAKUSKETA.

963.1. epigrafea. Filme zinematografikoen eta bideoen erakusketa.

Kuota:

- 500.000 biztanletik gorako herrietan: 1.418,86 euro.
- 100.000 eta 500.000 biztanle bitarteko herrietan: 1.103,30 euro.
- 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko herrietan: 959,15 euro.
- 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko herrietan: 735,54 euro.
- Gainerako herrietan: 354,96 euro.

963.2. epigrafea. Zine eta bideo filmeen aire zabaleko erakusketak.

Kuota:

 - c) Probintzia batean baino gehiagotan jarduteko ahalmena ematen duten kuotak direnean, subjektu pasiboak ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaian baldin badu. Kuota horren ordainketak jarduerak lurralde erkidean edo foru lurraldean burutzeko ahalmenak ematen ditu.
2. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Tarifek bere gain ondokoa hartzen dute:
 - a) Ekonomia jardueren edukia eta deskribapena, era honetan sailkatuak: enpresa-, lanbide jarduerak eta jarduerak artistikoak.
 - b) Jarduerak bakoitzari dagozkion kuotak; berauek zehazten direnak tarifa eta honako jarraibidean erregulatutako zerga-elementuak aplikatuz.

II. KAPITULUA IHARDUEREN ERREGIMENA

2. Erregela: Kargatutako ihardueren burutzapena.

Tarifen zehaztutako edozein ekonomia ihardueraren burutzapen soilak, edota haietan zehaztu gabeko enpresazko, lanbidezko edo arte izaerako beste edozein ihardueraren burutzapen soilak, alta adierazpen egokia aurkeztu eta zerga honen zioz ordaindu beharra ekarriko du, Jarraipide hauetan bestelakorik xedatu ezean.

3. Erregela: Ekonomi ihardueren kontzeptua.

1. Enpresazko, lanbidezko edo arte izaerako edozein iharduera hartuko da ekonomi ihardueratzat. Honi dagokionez, ondoko kasu hauetan ulertuko da iharduera bat enpresazko, lanbidezko edo arte izaeraz burutzen dela: ekoizpen eskuarte eta giza baliabideen, edo haietariko baten norberaren konturako antolamendua dakarrenean, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen banaketan eskuhartzeko xedeaz.
2. Zerga honen ondorioetarako, Tarifetako 1. Sailatalaren barruan sailkatutako meatzal, industri, merkatal eta zerbitzuetako iharduerak hartuko dira enpresazko ihardueratzat.
3. Lanbidezko ihardueratzat Tarifetako 2. Sailatalaren barruan sailkatutakoak hartuko dira, beti ere pertsona fisikoek burutuak baldin badira. Pertsona juridiko batek, edo Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorreko 33. artikuluan aurrikusitakoetariko Entitate batek, Tariferako 2. Sailatalaren barruan sailkatutako iharduera bat burutzen duenean, matrikulatu eta 1. Sailataleko iharduera koerlatibo edo analogoaren zioz ordaindu beharko du zerga.
4. Arte ihardueratzat Tarifetako 2. Sailatalaren barruan sailkatutakoak hartuko dira.
5. Ez dira ekonomi ihardueratzat hartuko norberaren garraiobideen erabilpena edo norberaren lantegian egindako konponketa, bata zein bestearen bitartez gainontzekoentzako zerbitzurik ematen ez denean.

4. Erregela: Ahalmenak.

1. Oro har, iharduera bati dagokion kuotaren ordainketak soilik iharduera hori burutzeko ahalmena emango du, Zerga honen Foru Arau araupetzailean, Tarifetan edo honako Jarraipide hauetan bestelakorik xedatu ezean.
2. Aurrekoa gorabehera:

- A) Tarifetako 1. Sailataleko 1. Zatiketarik 4.era sailkatutako meatza edo industriazko ihardueren burutzapenak handi eta txikizkako salmentarako ahalmena emango du, baita aipatu ihardueren ondorioz lortutako gai, produktu, azpiproduktu eta hondakinen exportaziorako ere.

Halaber, letra honetako lehenengo lerroaldeak aipatutako kuoten ordainketak, iharduera egokien garapenerako behar diren lehengaiak eskuratzeko ahalmena ematen du, bizkaitar herrialdearen barruan zein berorretatik kanpo edo atzerrian, beti ere adierazitako lehengaiak ekoizpen prozesu propioaren barruan sartzan baldin badira.

Industri iharduerak direnean, kuota egokien ordainketak lehengaiak erauzteko ahalmena emango du, beti ere lehengai hauek ekoizpen prozesu propioaren barruan sartzan baldin badira eta erauzpen iharduera eta industriakoa udal mugarte berean egiten badira.

Honako letra honek aipatutako ihardueren burutzapenerako, hala nola bertan araupetutako ahalmenen garapenerako ere, subjektu pasiboek publikoarentzat itxikotako biltegi edo gordailuak euki ahal izango dituzte. Edonola ere, aipatu biltegi edo gordailuen azalera 14. Erregelako 1. ataleko F) letran xedatutakoaren ondorioetarako konputatuko da.

- B) Tarifetako 1. Sailataleko 5. Zatiketaren barruan sailkatutako eraikintz iharduerari dagozkien kuoten ordainketak ahalmena emango du, bizkaitar herrialdearen barruan zein berorretatik kanpo edo atzerrian, ihardueraren garapenerako behar diren lehengai eta artikulak eskuratzeko.

Honako letra honek aipatutako ihardueren burutzapenerako ahalmenen garapenerako ere, subjektu pasiboek publikoarentzat itxikotako biltegi edo gordailuak euki ahal izango

dituzte. Edonola ere, aipatu biltegi edo gordailuen azalera 14. Erregelako 1. ataleko F) letran xedatutakoaren ondorioetarako konputatuko da.

- C) Handizkako merkataritzako ihardueren burutzapenari dagozkion kuoten ordainketak txikizkako salmentarako ahalmena emango du, baita haien xede diren gai edo produktuen inportazio eta exportaziorako ere.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren ondorioetarako, honako hauekin burututakoa hartuko da handizkako merkataritzatzat:

- a) Hornidurarako salmentan diharduten establezimendu eta biltegiak.
- b) Haien ekoizpen prozesuen barruan sartu behar diren elementuekin erlazionaturiko edozein industri enpresa mota, kontratua edozein modutara eratzten delarik ere. Honi dagokionez, industri xedeak dituen gai edo produkturen bat ekoitzi, transformatu edo prestatzen diharduten enpresak hartuko dira halakotzat
- c) Indar Armatuak eta Merkatal Marina, kasu guztietan.

Hala ere, 618.1. epigrafean sailkatutako subjektu pasiboen ahalmenen erregimena aipatu epigrafeari egindako oharretan ezarritakoa izango da.

Halaber, merkataritza handizkakotzat hartua izan dadin nahikoa izango da transakzioak edo igorpenak egitea, nahiz eta establezimendu edo biltegirik ez izan, edo merkatalgaiak hornitzaileen eskuetan edo besteren biltegian gordailu izaera gordailugilearen agindu eta borondatearen pean gordetzea.

- D) Txikizkako merkataritzako ihardueren burutzapenari dagozkion kuoten ordainketak ahalmena emango du haien xede diren gai edo produktuak inportatzeko.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren ondorioetarako, txikizkako merkataritzatzat zuzeneko erabilera edo kontsumorako egindakoa hartuko da. Halakotzak hartuko da, era berean, destino bera izanik, biltegi edo establezimendurik gabe burutzen dena, nahikoa izango delarik transakzioak burutzea, edo merkatalgaiak hornitzaileen eskuetan edo besteren biltegian gordailu izaeraz gordailugilearen agindu eta borondatearen pean gordetzea.

Honako letra honek aipatutako ihardueren burutzapenetako, hala nola bertan araupetutako ahalmenen garapenerako ere, subjektu pasiboak publikoarentzat itxitako biltegi edo gordailuak euki izango dituzte. Edonola ere, aipatu biltegi edo gordailuen azalera 14. Erregelako 1. ataleko F) letran xedatutakoaren ondorioetarako konputatuko da.

- E) Zerbitzugintzako ihardueren burutzapenari dagozkion kuoten ordainketak, oro har, ahalmena emango du, bizkaitar herrialdearen barruan zein berorretatik kanpo edo atzerrian, haiek burutzeko behar diren gai edo produktuak eskuratzeko.

Aurreko lerroaldeak aipatutako iharduera eta ahalmenen erabilerarako, subjektu pasiboek publikoarentzat itxitako biltegi edo gordailuak euki ahal izango dituzte. Edonola ere, aipatu biltegi edo gordailuen azalera 14. Erregelako 1. ataleko F) letran xedatutakoaren ondorioetarako konputatuko da.

- F) Arrotzantzako zerbitzugintzaren ziozko subjektu pasiboek, kuota gehigarriak ordaindu gabe, zerbitzu osagarriak eskaini ahal izango dituzte, hala nola ileapainketa eta edergintza aretoak, jantzi eta oinetakoen garbiketa, garaje eta kirol instalazioak, moneta trukea, egunkari eta postalen salmenta, kirol instalazio eta elementuen alojera, etab., beti ere zerbitzu hauek beraiek ustiatu eta establezimenduko bezeroen erabilera eskusibora destinatzen direnean. Hala ere, aipatu zerbitzuak ematen direneko lokalen azalera 14. Erregelako 1. ataleko F) letran xedatutakoaren ondorioetarako konputatuko da.

Aurreko lerroaldeak aipatu dituen zerbitzu osagarriak publikoari eskaintzen zaizkionean, subjektu pasiboek haietariko bakoitzari dagokion kuotaren %50a ordaindu beharko dute, zuzenean ustiatzen badituzte ere.

Zerbitzu osagarri hauek arrotzantzako ustiategiaren titularra ez den beste edozein pertsona edo entitatek ematen baditu, aipatu pertsona edo entitateek zerbitzuei dagozkien kuoten %100a ordainduko dute, zerbitzuok soilik arrotzantzako establezimenduko bezeroei edo publikoari orokorrean eskaintzen zaizkion kontutan hartu gabe.

- G) Garraioko iharduerari dagozkien kuoten ordainketak zerbitzu lagungarriak eskaintzeko ahalmena emango du, hala nola plazak gordetzea eta txartelen alde aurretiko salmenta, loturarako zerbitzu konbinatuak, merkatalgaien fakturaketa eta bidalketa, erreklamazio zerbitzuak etab.

Aipatu zerbitzuak ematen direneko lokalen azalera 14. Erregelako 1. ataleko F) leran xedatutakoaren ondorioetarako konputatuko da.

- H) Portualde bat udal mugarte bat baino gehiagotan zabaltzen denean, aipatu zonaldean portuko trafikoarekin erlazionaturiko iharduerak burutzen dituzten subjektu pasiboek, aipatu portualdean kokatutako udaletarik, establezimendu nagusia duteneko Udalaren gutxienezko kuota ordainduko dute, iharduera portualdeko gainerako udalerrietan inolako kuota gehigarrik ordaindu gabe burutu ahal izango dutelarik.

Untzien zainpeketako iharduerari dagokion kuotaren ordainketak ahalmena ematen du zainpetutako untzia zama eta hustuketa lanak burutzeko, ahalduzko mugen barruan untxi-iharduerari dagozkion eragiketarako burutzeko ahalduzko untxi-entresaren ordezkaria bereganatzen duenean.

Untzien kontsignataria aldi berean merkatalgaien kontsignatari edo destinatari izan badadi, dagokion merkatal ihardueraren zioz ordaindu beharko du zerga.

- I) Diskotegi eta dantza aretoetako jolas zerbitzuak emateari dagozkion kuoten ordainketak ahalmena ematen du aipatu lokaletan edariak hornitzeko.
- J) Arau honen 4. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Tarifen epigrafeetako edozeinek ahalmena ematen die subjektu pasiboek, tarifen lehen ataleko 811. eta 812. taldeetan sailkatutako jardura duten finantza-erakundeentz kontura, eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik eskudirua ateratzeko eta ordaintzeko zerbitzu konbinatua ("Cashback" zerbitzua) emateko bezeroei.

3. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren ondorioetarako, ~biltegi eta gordailuak~ adierazpenak hozkelak ere barnebiltzen ditu.
4. Matrikulan inskribatuta agertzeak edo Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga ordaintzeak ez du iharduera bat burutzea legebideztatzen, indarreko xedapenetan horretarako beste beharrezko batzuek betetzea exijitzen bada.

5. Erregela.: Ihardueren burutokia.

1. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergak enpresazko, lanbidezko eta arte ihardueren burutzapen soila kargatzen du, lokal jakinean burutzen direnentz kontutan hartu gabe.
2. Enpresazko ihardueren burutokia honako hau izango da:

- A) Iharduerak lokal jakinean burutzen direnean, haiek eginetaratzeko lekua lokala kokatuta dagoeneko udal mugartea izango da.

Honi dagokionez, ondoko iharduera hauek lokal jakinean burutzen direla ulertuko da:

- a) Industri iharduerak, oro har.
- b) Merkatal iharduerak, oro har, beti ere subjektu pasiboak establezimendua duenean.
- c) Zerbitzugintzako iharduerak, oro har, beti ere zerbitzuok establezimendu batetan ematen direnean. Honi dagokionez, zerbitzugintzak zenbait elementu materialek eskuhartzen dutenean, hala nola trakzio mekanikozko ibilgailuak, trenbideak, untziak, aireuntziak, autoestratak, jolas makinak, ur, gas eta elektrizitate zenbakailuak, eta Tarifetan establezimendu iraunkorretik kanpo ematen diren zerbitzu legez sailkatuta daudenetan, zerbitzuok ez direla establezimendu batetan ematen ulertuko da.

Letra honek aipatutako ihardueren titularrek burutzen dituzten iharduketa guztiak lokal egokietan burututzat hartuko dira.

- B) Iharduerak lokal jakinean burutzen ez direnean, haiek obratzeko lekua udal mugarte egokia izango da, letra honen barruan bildutako arauen arabera.

Honi dagokionez, ondoko iharduera hauek lokal jakinean burutzen ez direla ulertuko da:

- a) Meatzal eta erauzpen iharduerak, oro har, ur erakarketa barne; iharduera hauek meatokia edo ustiatagia dagoeneko udal mugartean burutzen dira.
- b) Elektraenergia ekoizteko iharduerak; iharduera hau zentrala dagoeneko udal mugartean burutzen da.
- c) Elektraenergia garraiatu eta banatzeko iharduerak, hala nola harrolioaren gordinkin, gas natural, hiri-gas eta lurruna garraiatzekoak ere; iharduera hauek lurgaina, lurzorua edo zorupea hornidura-sareek, oliobideek, gasbideek eta abarrek atzemanda duen udal mugartean obratzen dira.

Hiriguneetarako ur banaketa eta tratamendu iharduerak; iharduera hauek ura banatzen den edo ur araztegiak dauden udal mugartean obratzen dira.

- d) Eraikintz iharduerak; obra, instalazio eta muntaiak burutzen direneko udal mugartean eginetaratzen dira iharduera hauek.
- e) Merkatal iharduerak, establezimendurik gabeko subjektu pasiboek egindakoak; iharduera hauek eragiketa egokiak eratzen direneko udal mugartean burutzen dira. Era berean, posta edo katalogoaren bitartez egindako salmenta merkatalgaiak destinatzen diren udal mugartean burutzen direla ulertuko da.
- f) Zerbitzugintzako jarduerak, zerbitzuok establezimendu batetik ematen ez direnean. Honi dagokionez, zerbitzugintzan zenbait elementu materialek eskuhartzen dutenean, hala nola trakzio mekanikozko ibilgailuak, trenbideak, untziak, aireuntziak, autoestratak, jolas makinak, ur, gas eta elektrizitate zenbakailuak, eta tarifetan establezimendu iraunkorretik kanpo ematen diren zerbitzu legez sailkatuta daudenetan, zerbitzuok ez direla establezimendu batetik ematen ulertuko da; jarduera hauek zerbitzu ezberdinak benetan ematen diren udal mugartean burutzen dira.

Ondasun higiezinaren alogera ihardueraren ziozko subjektu pasiboek honako hau ordainduko dute:

- Etxebizitzara destinatutako hiri izaerako ondasun higiezin guztien ziozko kuota bakarra, horretarako, guzti haiei dagozkien katastroko balioak metatuko direlarik.

- Industri lokaletara eta bestelako alojeretara destinatutako hiri izaerako ondasun higiezin guztien ziozko kuota bakarra, horretarako, guzti haiei katastroko balioak metatuko direlarik.
- Landa izaerako ondasun higiezin guztien ziozko kuota bakarra, horretarako, guzti haiei dagozkien katastroko balioak metatuko direlarik.

3. Lanbidezko ihardueren burutokia honako hau izango da:

- a) Iharduerak lokal jakinean burutzen direnean, aipatu lokala kokatuta dagoeneko udal mugartea.
 - b) Iharduera lokal jakinean burutzen ez denean, subjektu pasiboak egoitza fiskala dueneko udal mugartea.
- 4. Arte ihardueren burutokia subjektu pasiboak egoitza fiskala dueneko udal mugartea izango da.**

6. Erregela: Iharduerak burutzen direneko lokalaren kontzeptua.

- 1. Ekonomi ihardueren gaineko Zergaren ondorioetarako, enpresazko edo lanbidezko edozein ihardueratarako erabiltzen diren eraikuntza, eraikuntza eta instalazioak, eta azalerak, estaliak edo estali gabeak, publikoarentzat ireki zein itxiak, hartuko dira lokaltzat. Ondoko hauekin hala ere, ez dira lokaltzat hartuko zerga honi dagokionez:**
- a) Meatzal iharduerak burutzen direneko ustiategiak Meatzal ustiategiaren perimetroaren barruan, subjektu pasiboak prestaketa iharduerak, edo Zergako Tarifek ahaldundutako beste batzu, burutzen dituenen, haiek obratzen direneko eraikuntza edo instalazioak lokaltzat hartuko dira.
 - b) Harrolio edo gas naturala erauzi eta ura erakartzeko iharduerak obratzen direneko ustiategiak.
 - c) Elektraenergia ekoizteko zentralak.
 - d) Banaketa sareak, oliobideak, gasbideak etab., elektraenergiaren garraio eta banaketa iharduerak egiten diren tokiak (transformategiak barne), eta harrolio, gas natural, hiri-gas eta lurrunaren banaketa sareak. Halaber, ez dira lokaltzat hartuko hiriguneetarako ura banatzeko hornidura sareak eta gainerako instalazioak, ezta uraren tratamendurako lantegi eta instalazioak ere.
 - e) Eraikuntza ihardueraren xede diren obra, instalazio eta muntaiak, bulegoak, barrakoiak eta obra oinean egon eta obra, instalazio edo muntaia burutzen den bitartean bakarrik erabiltzen diren gainerako aldibaterako eraikuntzak.
 - f) Alogera, irakurketa eta artapenaren xede diren ur, gas eta elektrizitate zenbakailuak jartzen direneko higiezinak, aipatu ihardueren ondorioetarako bakarrik eta haiei beste iharduera batzuren ondorioetarako egotz dakiekeen izaeraren kalterik gabe.
 - g) Makinak edo aparatu automatikoak, gordailu lege utzitako erakustegiak, jolas makinak eta antzerakoak jartzen direneko higiezinak, aipatu elementuen bitartez burutzen diren ihardueren ondorioetarako bakarrik, eta higieziin beste iharduera batzuren ondorioetarako egotz dakiekeen izaeraren kalterik gabe.
 - h) Alogera eta salmentaren xede diren ondasun higiezinak, landa zein hiri izaerakoak.
 - i) Bidesarizko autoestrata, errepide, zubi eta tunelak, haien ustiapena zergak kargatutako iharduera denean.

- j) Lurrartzeko lekuak, hangareak eta portuak, eraikuntzak salbu.

Beraz, aurreko letretan aipatu diren instalazioak ez dira kontuan hartuko Jarraipide honen 14.1.f) erregelaren araupeetako azaleraren arabera zerga-elementua zehazteko, ezta Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 61989 Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritako indizea zehazteko ere.

2. Bereziki, eta Jarraipide hauetako 5. Erregelako 2.A) atalean aurrikusitakoari dagokionez, honako hauek hartuko dira lokal bereizitzat:

- a) Kale, bide edo tarteko pasagunerik gabeko jarraikako hormek bereizirik daudenak.
- b) Eraikin berean edo alboko eraikinetan egonik, publikoarentzako zerbitzurako ate ezberdinak izan eta ikus daitekeen edozein eratara zatituta daudenak, jabearentzat barrutik lotuta badaude ere.
- c) Lokal batetako sail edo sailatalak, ikus daitekeen eran zatituta egonik, errazki bakan daitezkeenean eta haietan iharduera ezberdinak burutzen direnean.
- d) Eraikin bateko pisuak, barrutiko loturarik izan edo ez, salbu eta titular bakarrik iharduera bera burutzen duenean.
- e) Azoka, merkatu edo erakusketa iraunkorretako postu, kaxoi eta gelauneak, beti ere erakusgaien kokapen eta salmentarako bakandu edo bereizita daudenean, nahiz eta haietarako guztientzat sarrera eta irteera amankomunak egon.

Tributu Administrazioak banandutako lokalak daudela ulertu ahal izango du, lokal bakarrean titularrak administrazio edo kontabilitate ezberdinaren xede diren iharduerak burutzen dituenen.

Produktu jakin baten fabrikazioko faseek, barrunbe beraren barruan egon ez arren, ustiapen unitatea osatzen dutenean, instalazio guztiak lokal bakartzat hartuko dira, beti ere aipatu faseak, berez, Tarifetan tributazio independentea esleitu zaien iharduerak ez direnean. Lokal batasunaren erizpide hau ostatu-etxe edo kiroldegi batetako instalazioak barrunbe berean kokatzen ez direnetan ere aplikatuko da.

3. Ondasun bat aldi berean etxebizitzara eta kargatutako iharduera baten burutzapenera destinatzen denean, zergaren ondorioetarako iharduera benetan burutzen den ondasunaren zatia bakarrik hartuko da lokaltzat.

7. Erregela: Aldiberekotasuna fabrikazio ihardueren burutzapenean.

Subjektu pasibo berak kargatutako fabrikazio iharduera ezberdinak burutzen dituenen, lehengaien prestakuntza edo lorpena zein bitarteko produktuak izateagatik, produktu nagusia dagoen fabrikazio produktu beraren barruan sartuak, aipatu iharduerei dagozkienetarik kuotarik altuena gehi %50a ordainduko da, beti ere adierazi bitarteko produktuak salgai ez direnean. Bitarteko produktuak salgai izan badaitez, subjektu pasiboak kuota guztien zenbateko osoa ordainduko du. Tributu elementu egokiak fabrikazio prozesu beraren barruan sartutako ihardueretako bakoitzari egotziko zaizkio.

Aurreko lerroaldean aurrikusitakoari dagokionez, merkatuaren arabera, lortzen diren bezalaxe saldu ahal izanik, hala ere, prozesu bereko geroagoko transformazio baterako guztiz lehengai legez erabiltzen diren produktuak hartuko dira bitarteko produktutzat.

Erregela honetako lehenengo lerroaldean xedatutakoa ez da aplikatutako honako kasuetan:

- a) Fabrikazio prozesu beraren barruan sartuta ez dauden ekoizkinak direnean.
- b) Epigrafe berean sailkatutako produktu ezberdinak, fabrikatzen direnean.

- c) Produktuak, prozesu beraren barruan egonda ere, lokal ezberdinetan fabrikatzen direnean, subjektu pasibo berarenak izan edo ez.

8. Erregela: Tarifetan zehaztu gabeko ihardueren tributazioa.

Tarifetan zehaztu gabeko enpresazko, lanbidezko eta arte iharduerak, behinbehinean, beste ataletan bildu ez diren ihardueren talde edo epigrafean sailkatuko dira, antzeko izaera duten iharduerenean alegia, eta aipatu talde edo epigrafeari dagokion kuotan ordainduko dute, kasuan kasu.

Aurreko lerroaldean aurrikusitako sailkapena posible gerta ez bada, ariketan bildu ez diren iharduerak, behin-behinean, izaeran antz handiena duen iharduerari dagokion talde edo epigrafean sailkatuko dira, eta azken honi esleitutako kuotan ordainduko dute.

9. Erregela: Kuota motak.

- 1. Tarifetan bildutako kuotak honako hauetan sailkatuko dira:

- a) Udalen gutxienezko kuotak,
- b) Probintziaren kuotak, eta
- c) Estatuaren kuotak.

10. Erregela: Udalen gutxienezko kuotak.

- 1. Udalen gutxienezko kuotak Tarifetan espezifikoki izendura horrekin agertzen direnak dira, kargatutako iharduerak burutzen direneko lokalen azalera elementua batuz, kasua denean, baita aipatu Tarifetan probintziaren kuota edo estatuaren kuotaren kalifikazio espresua ez duten guztiak ere.

Era berean, udalen gutxienezko kuotatzat hartuko dira, 14. 1.F) Erregelaren xedatutakoaren aplikazioaren bidez, haien zenbatekoa soilik azalaren tributu elementuak osatuta dutenak.

- 2. Udalen gutxienezko kuotak ordaintzeak, ordaintzea egiten deneko udal mugartean iharduera egokiak burutzeko ahalmena emango du, Jarraipe hauetako 5. Erregelaren aurrikusitakoarekin bat etorritik.
- 3. Iharduera bera lokal ezberdinetan burutu badadi, subjektu pasiboak iharduera burutzen dueneko lokal beste udalen gutxienezko kuota ordaindu beharko ditu, kasua denean ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko 10 eta 11. artikuluetan aurrikusitako koefizienteek gehituak. Lokal berean iharduera ezberdinak buru badaitez, burututako iharduera beste udalen gutxienezko kuota ordainduko dira, ihardueren titularra pertsona edo pertsona bera izanda ere.
- 4. Profesionariak ihardueren burutokia den lokala dagoen udal mugartetik kanpo burutzen dituzten iharduerak ez dute ekarriko beste inolako kuotatik ordaindu beharra, ez udalena, ez probintziarena, ez estatuarena.
- 5. Iharduera lokal jakinean burutzen ez duten profesionariak eta artistek, iharduerak burutzen dituzten lekuan dagokion kuota ordainduko dute, berorretatik kanpo iharduera horiei dagozkien iharduketa guztiak burutu ahal izango dituztelarik.

11. Erregela: Probintziaren kuotak.

- 1. Probintziaren kuotak Tarifetan espezifikoki izendura horrekin agertzen direnak dira.
- 2. Probintziaren kuotak ordaintzeak Bizkaiko Herrialde Historikoan iharduera egokiak burutzeko ahalmena emango du, udalen gutxienezko kuotarik ordaindu beharrik gabe.

12. Erregela: Estatuaren kuotak.

1. Estatuaren kuotak Tarifetan espezifikoki izendura horrekin agertzen direnak dira.
2. Estatuaren kuotak, foru lurraldean, edo nazio kuotak, lurralde amankomunean, ordaintzeak, foru lurraldean eta amankomunean iharduera egokiak burutzeko ahalmena emango du, udalen gutxienezko kuotarik edo probintziarenik ordaindu beharrik gabe.

13. Erregela: Udalen gutxienezko kuota, probintziaren edo estatuarenaren ziozko tributazioa.

Halako iharduerari 9. Erregelak aipatu kuota motetarik bat baino gehiago eslehi badakio, subjektu pasiboak haietariko edozeinen ordainketa aukeratu izango du, 10, 11 eta 12. Erregelan adierazitako ahalmenekin, hurrenez hurren.

14. Erregela: Tributu elementuak.

1. Erregelan aurrikusitakoaren ondorioetarako, kuoten zehaztapenerako Tarifek edo honako Erregela honek taiutzen dituzten ihardueraren zantzu-moduluak hartuko dira tributu elementutzat.

Jarraian tributu elementu nagusiak azalduko dira:

A) Ezarritako potentzia.

Tributupeko potentzia ezarria, tipifikatutako arauen arabera, industri ekipoari loturiko izaera elektriko zein mekanikoko energia elementuen izendun potentzien batuketaren emaitza da.

Beraz, ez dira konputagarriak izango berokuntza, argiztapen, aire girotze, instalazio antikutsagarri, pertsonalaren igogailu, gizarte edo osasun zerbitzuei emandako elementuen potentziak eta, orokorrean, ekoizpenari zuzenean loturik ez dauden guztiena, energia elektrikoaren transformazio eta zuzenketara bideraturikoak barne.

Ez dira kontutan hartuko ondorio hauetarako, erregai solido, likido eta gasezkoetz funtzionatzen duten labe eta galdarak, ezta labe eta galdara elektrikoak ere.

Industriako kuotak lortzeko erabiliko den potentzia fiskala, potentzia instalatu konputagarriaren guztizkoa kilowattetara murriztearen emaitza matematikoa izango da, hala badagokio, $1 \text{ CV} = 0,736 \text{ kW}$ baliokidetasuna erabiliz.

Saiakuntza-bankuetan, entsegu-plataformetan eta antzekoetan instalatutako potentzia benetan ezarritako potentziaren %10ean konputatuko da.

Fabrika-instalazioetako erreserba ekipoak ez dira tributu elementuak Tributu Administrazioari halako legez aitortzen zaizkionean.

B) Langile kopurua.

Kontuan izan honako hau, martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauaren 3.a) artikuluan ezarritakoarekin lotuta (2003ko apirilaren 11ko BAO):

Tarifaren kuota zehaztuta dagoen kasuetan, besteak beste "langile kopurua" zerga elementuarekin, langile bakoitzaren truke ordaindu beharreko zenbateko finko gisa, ez zaio aplikatuko zerga elementu horri dagokion kuotaren zatia.

Langile kopurutzat hartuko da enpresaren xede den ekoizpenari zuzenean lotutako lanbidezko profesionalari, espezialista eta peoi guztiena. Honi dagokionez, enpresaren plantilako langileak nahiz zerbitzugintza, lan-burutzapen eta abarrezko kontratuen bitartez enpresari loturik daudenak eta aldebaterako kontratazio enpresek eskainiak kontatuko dira.

Aipatu kopuruan, guztiak barik batzuk aipatzearen, ez dira kontatuko zuzendaritza-pertsonala, administrazio teknikariak, merkatal pertsonala, banaketakoa, gidariak, jagoleak, mandatariak, ikastunak eta laguntzaileak, azken kategoria bi hauetarako langile konputagarri guztien %15eko gehieneko muga dagoelarik.

Fabrika lan egiten duten langileak eta haren kontura etxean lan egiten duten beste batzuk daudenean, azken hauentzat konputua plantilako langileekiko baliokidetasunaren bidez ezarriko da. Ondorio hauetarako, etxean aplikatutako lankidetasun dagokion balio ekonomiko erantsia zati halako espezialitatearen batez besteko urteko bakoitzaren lankidetasun haztatua, legearen arabera egoki dakizkiokeen kopuru osagarriak barne, zatitzearen ondorioz gertatzen den eranskin bat kalkulatu da.

Inoizkako langileak, baita finko jarraigabeak ere, finkoekiko baliokidetasunaren bitartez konputatuko dira, haiek lan egindako saioen batura zati urteko lanegunaren kopurua zatitzearen ondorioz gertatzen den gutxiagozko zatidura osoa hartuz.

Denbora partzialerako kontratua duten langile finkoak, haiek lan egindako orduen kopurua zati denbora osoarako kontratua izanez gero egokituko litzazkiekeen urteko lanorduen kopurua zatitzearen ondorioz gertatzen den gutxiagozko zatidura osoa hartuz konputatuko dira.

C) Eguneko lan txandak.

Zergako kuotek iharduera burutzeko ahalmena emango du, lan txandaren kopurua edozein delarik ere.

D) Zuzenbidezko biztanleria.

Udalerriko zuzenbidezko biztanleria Biztanleen Udal Erroldan inskribatutako egotzi guztiek, daudenak eta ez daudenak, osatzen dute. Egotzi izaera inskripzioa egiterakoan eskuratzen da.

E) Ikuskizunetarako lokalen edukiera.

Ikuskizunak eratzen diren areto edo barrunbearen edukiera zenbakiturik daudeneko txartelen konputuaren bitartez finkatuko da.

Jezarleku jarraiak edo lerroka banatutako zutiko lekuak dituzten ikuskizunetan, zenbakitu gabe daudenetan, luzerako 50 cm-ko jezarleku edo leku bat dagoela ulertuko da.

F) Lokalen azalera.

Kontuan izan honako hau, martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauaren 3.e) artikuluan ezarritakoarekin lotuta (2003ko apirilaren 11ko BAO):

“Lokalen azalera” zerga elementua zehazteko ondorioetarako, ez zenbatzeaz gain, espezifikoki kenduko da zergapeko jardueren zuzenean lotutako elementuei dagokien azalera:

- Hartzaindegira edo subjektu pasiboaren langileen edo bezeroen seme-alabak zaintzera bideratutako azalera.
- Subjektu pasiboaren langileen jardura soziokulturaletara bideratutako azalera.

Hizki honetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, zergaren tarifek, zerga elementu gisa, lokalen azalera berariaz kontuan hartzen duten kuotak zehazteko, metro koadrotan zenbatuta, baldin eta lokalean dagozkien jarduerak gauzatzen badira.

Kendu beharreko azalera, hizki honetan xedatuaren arabera, ezin izango da zergapeko jardueren zuzenean lotutako elementuei dagokienaren 100eko 10 baino handiagoa izan.

- a) Tarifetako 1. Ataleko ohar amankomunak eta 2. Ataleko bigarren ohar amankomunak aipatutako azalera elementuaren aplikazioaren ondorioetarako, kargatutako iharduerak burutzen direneko lokaltzat honako Jarraipide hauetako 6. Erregelari horrela definitutakoak hartuko dira.
- b) Horretarako, lokalen azalera zatituta poligonoaren barruan bildutako guztia hartuko da, metro karratutan eta, kasua balitz, solairu guztienaren baturaz adierazia. Aurreko lerroaldean aurrikusitakoa gorabehera, honako hauek bakarrik hartuko dira azalera zatituta:
- 1.a. Lehengai edo edozein motatako produktuen gordailu, haize ageriko lehortegi, urancel eta, oro har, ihardueraren edozein alderdiri emandako eraiki gabeko eta estali gabeko azaleraren %20a.
- Beraz, ez da ezertarako konputatuko halako iharduera edo beraren alderdiren bat zuzenean burutzen ez deneko azalera eraiki gabe edo estaligabea, hala nola bide, lorategi, segurtasun alde, aparkaleku, eta abarretara dedikatutakoa.
- 2.a. Bide publikoa saltoki eta antzekoekin atzemanetz, sasoiko ihardueretako erabilitako azaleraren %40a.
- 3.a. Kirol-instalazioen eta ikuskizun zinematografikoetarako, antzerki-ikuskizunetarako eta analogoetarako lokalen azalera estaliaren edo eraikiaren 100eko 10, mailek, maileriek, esertokiek eta kirol-ikuskizunetarako, ikuskizun zinematografikoetarako, antzerki-ikuskizunetarako eta analogoetarako publikoa kokatzeko gainerako instalazio iraunkorrek hartutako azaleraren kasuan izan ezik. Azken azalera horretarako, 100eko 50 konputatuko da.
- 4.a. Maila guztietako irakaskuntzara destinatutako lokalen azaleraren %50a, iharduera salbuetsita ez dagoenean.
- 5.a. Mota guztietako biltegi eta gordailuen azaleraren %55a.
- 6.a. Aparkaleku estalien azaleraren %55a.
- c) Aurreko b) letran bildutako arauak aplikatzearen ondorioz gertatzen den metro karratuen kopuru osotik, edonola ere, %5a kenduko da, bao, enpresako jangela, igogailu, eskailera eta kargatutako iharduerari zuzenean lotuta ez dauden gainerako elementuetara destinatutako aldean kontzeptuan.
- Arrotzantzako iharduera denean, aurreko lerroaldeak aipatu kenketa %40koa izango da, adierazi kenketa arrotzantzako iharduera nagusia zuzenean destinatutako azalera eraikiaren metro karratuen kopuru osoaren gainean soilik aplikatuko bada ere.
- d) Azalera elementua zenbatekotzeko, honako lauki hauek aplikatuko dira:
- 1.a. LAUKIA: Lauki hau Tarifetako 1. Sailataleko 1, 6 eta 9. Zatiketetan eta 2. Sailatalean sailkatutako iharduerak burutzen direneko lokalen azaleraren balioa kalkulatzeko aplikatuko da. Euroak metro karratuko.

Lokalen azalera	Zuzenbidezko biztanleria					
	500.000 biztanletik gora	100.001etik 500.000 biztanlera	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztanletik behera
Otik 500 m ² -ra	0,745255	0,522881	0,342577	0,216364	0,108182	0,048081
500,1etik 3.000	0,576972	0,402678	0,264445	0,156263	0,084142	0,042071

m ² -ra						
3.000,1etik 6.000 m ² -ra	0,462779	0,324547	0,222374	0,132223	0,072121	0,036061
6.000,1etik 10.000 m ² -ra	0,396668	0,282476	0,180304	0,114192	0,066111	0,036061
10.000 m ² -tik gora	0,342577	0,246415	0,156263	0,096162	0,054091	0,030051

2.a. II. LAUKIA: Lauki hau Tarifetako 1. Sailataleko 7. Zatiketan sailkatutako garraio eta komunikazioko iharduerak burutzen direneko lokalen azaleraren balioa kalkulatzeko aplikatuko da.

Lokalaren azalera	Zuzenbidezko biztanleria					
	500.000 biztanletik gora	100.001etik 500.000 biztanlera	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanler a	5.000 biztaletik behera
0tik 500 m ² -ra	0,558941	0,390658	0,258435	0,150253	0,084142	0,042071
500,1etik 3.000 m ² -ra	0,432729	0,300506	0,198334	0,120202	0,066111	0,036061
3.000,1etik 6.000 m ² -ra	0,348587	0,252425	0,162273	0,102172	0,060101	0,030051
6.000,1etik 10.000 m ² -ra	0,300506	0,216364	0,138233	0,090152	0,054091	0,030051
10.000 m ² -tik gora	0,270455	0,192324	0,126213	0,078132	0,048081	0,024040

3.a. III. LAUKIA: Lauki hau Tarifetako 1. Sailataleko 8. Zatiketan sailkatutako finantz erakunde, aseguru, enpresei emandako zerbitzu eta alojeretako iharduerak burutzen direneko lokalen azaleraren balioa kalkulatzeko aplikatuko da.

Lokalaren azalera	Zuzenbidezko biztanleria					
	500.000 biztanletik gora	100.001etik 500.000 biztanlera	50.001etik 100.000 biztanlera	20.001etik 50.000 biztanlera	5.001etik 20.000 biztanlera	5.000 biztaletik behera
0tik 500 m ² -ra	1,760965	1,232075	0,805356	0,486820	0,252425	0,102172
500,1etik 3.000 m ² -ra	1,352277	0,949599	0,625053	0,378638	0,192324	0,084142
3.000,1etik 6.000 m ² -ra	1,081822	0,763285	0,498840	0,300506	0,150253	0,066111
6.000,1etik 10.000 m ² -ra	0,925559	0,649093	0,426719	0,258435	0,132223	0,060101
10.000 m ² -tik gora	0,793336	0,558941	0,360607	0,228385	0,114192	0,054091

Azalera elementuaren balioaren zenbateko osoa lokalaren azalera zati ezberdinei dagozkien balio partzialak, horrelakorik denean, batzearen emaitza izango da, aipatu balio partzialak, zati bakoitzean konputatu beharreko metro karratuen kopurua bider lokala kokatuta dagoeneko Udalerriko zuzenbidezko biztanleriaren arabera haiei esleitutako euro kopurua biderkatuz kalkulatu direlarik.

- e) Aurreko d) letran dauden koadroen aplikaziotik ateratzen den azalera elementuaren balioaren zenbateko osoa neurtzeko aplikatuko da ondorengo koadroaren arabera behar den koefiziente zuzentzailea, subjektu pasiboak burutzen duen jarduera motaren eta azalera elementua kontutan hartu baino lehen Tarifak aplikatzenetik horrentzat ateratzen den kuotaren zenbatekoaren arabera.

KUOTAREN ZENBATEKOAREN ETA JARDUERA MOTAREN ARABERA APLIKATU BEHARREKO KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEAK

Kuota euros arte	1. atala 1-7 eta 9. banaketak 2. sekzioa	1. sekzioa 8. banaketa
640,71	1,0	0,5
1.281,42	1,5	0,5
3.204,90	2,0	1,0
6.407,09	2,5	1,5
Hortik aurrera	3,0	2,0

- f) Lokal berean subjektu pasibo berak edo subjektu pasibo ezberdinek iharduera bat baino gehiago burutzen dituztenean, haietariko bakoitzari zuzenean erabilitako azalera egotziko zaio, gehi amankomunean erabilitako lokaletik dagokion proportziozko zatia. Aurrekoa ezinezkoa denean, lokalaren azalera osoa zati ihardueren kopurua zatitzearen ondorioz gertatzen den metro karratuko kopurua egotziko zaio iharduera bakoitzari.
- g) Probintzia eta estatuaren kuotak kalkulatzeko, edozelan ere, halako iharduerari zuzenean edo zeharka loturiko lokal guztien azalera elementuaren balioa hartuko da kontutan.

Aipatu balioa kalkulatzeko azalera konputagarriko metro karratu guztiak erantsiko dira a), b) eta c) letretan bildutako arauen arabera, eta honako lauki hau aplikatuko da:

Probintziaren kuotak era estatuaren kuotak.

- 0tik 500 m²-ra: 2,41 euro.
- 500,1 etik 3.000 m²-ra: 1,77 euro.
- 3.000,1etik 6.000 m²-ra: 1,44 euro.
- 6.000,1etik 10.000 m²-ra: 1,19 euro.
- 10.000 m²-tik gora: 1,03 euro.

- h) Udalen gutxienezko kuotaren ziozko subjektu pasiboek haren iharduerak, -hala nola zuzendaritza zentroak, administrazio bulegoak, kalkulu zentroak, ahalmena eman zaieneko biltegi edo gordailuak, etab.- zuzenean burutzen ez dituzteneko lokaletariko bakoitzak 10. Erregelako 1. ataleko bigarren atalean aurrikusitakoetako gutxienezko kuota batetan ordainduko ditu tributuak. Aipatu gutxienezko kuota,

bakar-bakarrik, aurreko d) letran jasotako laukietatik dagokiona aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak osaturik egongo da, aipatu zenbatekoa e) letran bildutako laukiarren ondoriozko koefizientearen aplikazioaz haztatzea bidezkoa izango ez delarik.

...

- i) 1991.eko abenduaren 31ko Finkamenduaren gaineko Udal Zerga ezarri ez zaien udalerrietan, udalen gutxienezko kuotan tributatuak ordaintzen direnean, lokalen azalera delako tributu elementuari dagokion kuotaren zatia ondoko portzentaia hauek aplikatuz txikituko da:
 - a) 1992.ean zehar, %80ko txikipena.
 - b) 1993.ean zehar, %60ko txikipena.
 - c) 1994.ean zehar, %40ko txikipena.
 - d) 1995.ean zehar, %20ko txikipena.
- j) F) letra honetan araupetutako tributu elementua ez da aplikatuko kuoten zehaztapenean, baldin eta, hauen kalkulurako, Zergaren Tarifek halako jarduerak burutzen direneko lokalen azalera, metro karratuko eurotan zenbatua, tributu elementu legez beren beregi kontutan hartu badute.

Aurrekoari dagokionez, tarifetako zenbait idazpurutan dauden deskripzioetan metro karratuak aipatzen direnean, adibidez, tarifen 1. idatz-zatiko 647.2, 647.3 eta 647.4. epigrafeetan metro karratuak aipatzen direnean, kontuan izan behar da jarduerak definitu eta sailkatzeko soilik aipatzen direla, eta inoiz ere ez direla aipamen horiek kuota zehazteko balio duten zerga-elementutzat hartu behar. Horrelakoetan, beraz, ez da aplikatu behar aurreko lerroaldean xedatu dena.

- 2. Tributu elementuak aplikatzeko arau orokorrak. Tributu elementuen %20a baino handiagoak ez diren gorabeherek ez dute aldaraziko ordaindu diren kuoten zenbatekoa. Aipatu gorabeherak adierazitako portzentaia baino handiagoak direnean, gorabeherak aldakuntzat hartuko dira ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko 13.2. artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako.

- 3. Krisi adierazpena duten sektoreak.

Krisi adierazpena izan eta lan planen birmoldaketa onetsi zaien sektoreetarako aldarazi egingo da zergaren ziozko tributu ordainketa, funtzionamendu erritmo berriari egokitzeko xedeaz, horretarako tributu elementuen zehaztapenean honako arau hauek jarraituko direlarik:

- A) Tarifako kuotari lotutako langileen kopurua, plantilan benetan dauden kopurua bider urtebetean benetan lan egindako orduen eta epealdi berdinean lantsaio arruntetik aterako liratekeen arteko zatidura biderkatuz lortuko da.
- B) Tributatuak ordaintzeari lotutako potentzia ezarriko kilowattei dagokionez, hauek kontsumituriko batez besteko potentziako kilowattez ordeztuak izango dira, aipatu batez besteko potentzia orduko kilowatten urteko kontsumoa zati benetan lan egindako orduak zatituz lortuko delarik.
- C) Aurreko letrak aplikatzeko, urte jakin batetan aginduzkoak izango diren tributu elementuak zehazteko kalkulurako oinarri lege, aurreko ekitaldiari dagozkion datuak hartuko dira.

- 4. Industrien gerarazpena.

Industrietan epai debeku, sute, uholde, amiltze, indar higierazle legez erabilitako ur emaririk erabateko ez, edo industri ekipoko matxura larririk gertatzen denean, interesatuek horren berri emango diote zergaren administrazio kudeatzaileari eta, hogeitamar egun baino gehiagotan debekua, edo ezbeharra edo industriaren gerarazpena guztiz egiaztatuz gero, kuotaren proportziozko zatiaren txikipena lortu ahal izango dute, industria funtzionatu gabe egon den denboraren arabera.

Kuota funtzionamendu denboraren arabera araupetutik duten industriei lehen finkatutako txikipena ez da aplikatzekoa izango.

15. erregela: Zergaren kuota zero izatea.

1. Tarifen arabera Zergaren kuota zero bada, subjektu pasiboak ez dauka ezer ordaindu beharrik eta ez du alta aitortzen aurkeztu behar.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak zero kuota ezar dezake etekinen urritasuna dela eta Zergaren zioz ezer ordaindu behar ez duten jardueretarako edo haien modalitateetarako. Hala gertatuz gero, subjektu pasiboak ez dauka alta aitortzen aurkeztu beharrik.
3. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, Zergaren tarifen 1. ataleko 508. taldean sailkatuta dauden interes ekonomikodun elkartzeei eta enpresen aldi baterako batasunei alta eman behar zaie matrikulan.

16. Erregela: Kuoten gutxienezko zenbatekoa.

Aurreko Erregelaren aurrikusitakoa salbuetsita, kuoten gutxienezko zenbatekoa 38,446744 euro izango da.

17. Erregela: Kuoten ordainerazpen eta banaketa.

1. Ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauean aurrikusitako lankidetzaren kalterik gabe, udalen gutxienezko kuoten ordainerazpena halako iharduerak burutzen direneko udal mugarteko Udalak eginetaratuko du.

Lokalak, edo lokaltzat jotzen ez diren instalazioak, 6.1. erregelaren bigarren lerroaldean aipatutakoak, udal mugarte bat baino gehiagotan daudenean, kuota egokia haietariko gehienak daudeneko Udalak exigituko du berak gainerako guztien artean aipatu kuotaren zenbatekoa banatu behar diren kalterik gabe, araubidez ezarritako terminoetan.

Zentral nuklearretako elektroenergiaren ekoizpeneko iharduera denean, halako kuota zentrala kokatuta dagoeneko Udalak exigitu du, edo haren zatirik handiena dagoenekoak. Kasu bietan, aipatu kuota, araubidez ezarritako terminoetan, zentralak ukitutako udalerri guztien artean banatuko da, nahiz eta horietan zentralari loturiko instalaziorik edo eraikinik ez egon.

4.2.H) Erregelako lehenengo lerroaldean aipatutako kuotak Udal ordainerazleak banatuko ditu harako portualdea zabaltzen den udalerri guztien artean.

2. Probintziaren kuoten ordainerazpena Foru Aldundiak burutuko du harako iharduera Bizkaiko Herrialde Historikoan egiten denean.

Aipatu kuoten zenbatekoa Foru Aldundiak banatuko du Bizkaiko Herrialde Historikoko udalerri guztien artean, araubidez ezarritako terminoetan.

3. Estatuaren kuoten ordainerazpena Foru Aldundiak burutuko du, subjektu pasiboak ohizko egoitza, edo egoitza fiskala, Bizkaiko Herrialde Historikoan duenean, bidezko denaren arabera.

Estatuaren kuoten zenbatekoa Bizkaiko Herrialde Historikoko udalerri guztien artean banatuko da araubidez ezarritako terminoetan.